

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

Arbitraje Batzordearen 1/2016 Erabakia, 2016ko abuztuaren 1ekoa, 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoei dagokiena, zeinak planteatu baitituzte, hurrenez hurren, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenari dagokionez

Bilboko herrian, 2016ko abuztuaren 1ean, osoko bilkura egin du Arbitraje Batzordeak, zeina osatzen baitute Juan Luis Ibarra Robles presidentek eta María Carmen Agoués Mendizabal, Javier Balza Aguilera, José Ramón Bengoetxea Caballero, Kepa Bilbao Gaubeka, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena eta Andrés María Urrutia Badiola kideek, eta hartu du honako

ERABAKIA

Eusko Legebiltzarrak, 2015eko azaroaren 12an egindako osoko bilkuran, aintzat hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamena, zeina argitaratu baitzen Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean 2015eko azaroaren 27ko alean (ELAO 150. zk.). Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak, hurrenez hurren, 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoak planteatu zituzten lege-proposamenaren gainean.

Bizkaiko Foru Aldundiak 1/2015 eskumen-arazoa planteatu zuen lege-proposamenaren artikuluko hauen inguruan: 1. artikulua, 2. artikulua, 3. artikulua, 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 6. artikulua, 7. artikulua, 8. artikulua, 9. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuak, 12. artikulua; 13. artikulua; 14. artikulua; 15. artikulua; 16. artikulua, salbu 5., 9., 10. eta 11. apartatuak, 17. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 18. artikulua, 19. artikuluko 1., 3., 4. eta 5. apartatuak, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 1., 2. eta 5. apartatuak, 23. artikuluko 1., 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuak; 24. artikulua 2. apartatua, 26. artikulua 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikulua. Arrazoa zen bere ustez manu horiek ez zaizkiola egokitzen Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta foralen artean Autonomia Estatutuak ezarritako eskumen-banaketari.

Arabako Batzar Nagusiek 2/2015 eskumen-arazoa planteatu zuten lege-proposamenaren artikuluko hauen inguruan: 1. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 2. artikuluko 1. apartatua, 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 6. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 7. artikuluko 5. apartatua, 8. artikuluko 1. apartatua, 9. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 10. artikulua, 12. artikuluko 4. apartatua, 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, 16. artikuluko 3. apartatua, 18. artikulua, 20. artikuluko 4. apartatua, 23. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikuluko d) letra. Eskumen-arazoaren helburua da deklaratzeko manu horiek urratu egiten dutela erakunde komun eta foralen artean Estatutuan islatutako eskumen-banaketa, foraltasunaren muiin ukiezinari eraginez.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Gipuzkoako Foru Aldundiak 3/2015 eskumen-arazoa planteatu zuen lege-proposamenaren artikuluko 1. 3ta 3. apartatuak, 5. artikuluko 1. apartatua, 6. artikulua, 7. artikuluko 2., 4. eta 5. apartatuak, 8. artikulua, 9. artikuluko 1. apartatua, 12. artikulua, 13. artikulua, 14. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuak, 15. artikuluko izenburua, 16. artikuluko 1., 2., 3. eta 13. apartatuak, 17. artikuluko 3. eta 4. apartatuak, 18. artikulua, 19. artikuluko 1., 3. eta 5. artikulua, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 1. eta 2. artikulua, 23. artikuluko 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuak, 24. artikuluko 2. apartatua, eta 27. artikulua. Eskumen-arazoaren arrazoa zen lege-proposamena bere ustez ez zela egokitzen erakunde komun eta foralen artean Autonomia Estatutuan ezarritako eskumen-banaketari, edota aldatu egiten zuela erakunde komun eta foralen artean Ekonomia Itunean eta Lurralde Historikoen Legean finkatutako eskumen-banaketa.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiak 4/2015 eskumen-arazoa planteatu zuen artikuluko 1. artikulua, 2. artikulua, 4. artikulua, 6. artikulua, 7. artikuluko 1., 2., 4. eta 5. apartatuak; 8. artikulua, 9. artikuluko 1., 2. eta 4. apartatuak, 12. artikuluko 1., 2. eta 4. apartatuak, 13. artikulua, 14. artikulua, 16. artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 12. apartatuak, 17. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 18. artikuluko 1. eta 4. apartatuak, 19. artikuluko 3. apartatua, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 5. apartatua, 23. artikuluko 4., 5., 6. eta 7. apartatuak, 24. artikuluko 2. apartatua, 26. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikulua.

Txostengile izan dira Kepa Bilbao Gaubeka, Andrés María Urrutia Badiola, María del Carmen Agoués Mendizabal eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, zeinek adierazi baitute Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkuraren iritzia.

AURREKARIAK

1.- 2015ko abenduaren 1eko datuz, Arbitraje Batzorde honetan sarrera izan zuen Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako idazki batek, non eskumen-arazoa planteatzen baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren aurka, uste zuelako urratu egiten zituela Bizkaiko lurralde historikoaren eskumenak.

2.- 2015eko abenduaren 10eko datuz, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen izapidetzeko onartzea eskumen-arazoa, zeina erregistratuta gelditu baitzen 1/2015 zenbakiarekin; erabaki zuen, orobat, eskumen-arazo hori helaraztea erakunde legitimatuei, amorez eta hogeit eguneko epean alegatu ahal izan zitzaten egoki irizten ziotena Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako eskumen-gatazkaren inguruan; erabaki zuen, baita ere, txostengile izendatzea Kepa Bilbao Gaubeka, txandaz tokatzen baitzitzaion; eta erabaki zuen, azkenik, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

jakinaraztea erabakia, eskatuz horren berri eman ziezaiela ekimenaren proposatzaileei, amorez eta 20 eguneko epean aurkeztu ahal izan zitzaten egoki irizten zizkioten alegazioak, Arbitraje Batzordearen Legeko 50.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.- 2015eko abenduaren 16ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuen data bereko idazki batek, Arabako Batzar Nagusiek aurkeztutakoak, non eskumen-arazoa planteatzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren artikulua batzuen inguruan.

4.- 2015eko abenduaren 17ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak idatzitako idazki batzuek, non eskumen-arazoa planteatzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari buruzko lege-proposamenaren artikulua batzuen inguruan.

5.- 2015eko abenduaren 22ko dataz, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen izapidetzeko onartzea planteatutako eskumen-arazoak eta erregistratzea, hurrenez hurren, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 zenbakiekin; erabaki zuen, orobat, horiek helaraztea erakunde legitimatuei, amorez eta 20 eguneko epean alegatu ahal izan zezaten planteatutako arazoaren inguruan egoki irizten ziotena; erabaki zuen, baita ere, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea erabakitakoa eta eskatzea helaraz ziezaiela erabakia proposatzaileei, amorez eta hogeit eguneko epean aurkeztu ahal izan zitzaten egoki irizten zizkioten alegazioak, Arbitraje Batzordearen Legeko 50.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Erabaki zen, era berean, Andrés María Urrutia Badiola izendatzea Arabako Batzar Nagusiek planteatutako 2/2015 eskumen-arazoaren txostengile, María del Carmen Agoués Mendizabal izendatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako 3/2015 eskumen-arazoaren txostengile, eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena izendatzea Arabako Foru Aldundiak planteatutako 4/2015 eskumen-arazoaren txostengile, horiei tokatzen baitzaie txandaz. Bileran berean erabaki zen ere ofizioa abiaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Biltzar Nagusiek sustatutako arazoak Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako eskumen-arazoari metatzeari dagokionez eta, ondorioz, entzunaldi-izapidea irekitzea, hamar eguneko epe batez, prozeduran agertutakoei, Arbitraje Batzordea erregulatzen duen 13/1994 Legearen 31.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiari ere jakinaraztea, proposatzaileek jakin zezaten.

6.- 2015eko abenduaren 30eko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuten Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Batzar Nagusien idazki batzuek, non alegazioak egiten baitziren Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 1/2015 eskumen-arazoaren inguruan.

7.- 2016ko urtarrilaren 7ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuen Eusko Jaurlaritzaren data bereko idazki batek, non alegazioak egiten baitziren Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 1/2015 eskumen-arazoaren inguruan.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

8.- 2016ko urtarrilaren 11ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuten Euskal Sozialistak talde parlamentarioaren idazki batek, non alegazioak egiten baitziren Bizkaiko Foru Aldundiaren 1/2015 eskumen-arazoaren inguruan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren idazki batek, non alegazioak egiten baitziren 1/2015, 2/2015, 3/2015 y 4/2015 eskumen-arazoak metatzearen inguruan, adieraziz ez ziola oztoporik batere jartzen metaketari eta errepikatu egiten zituela 1/2015 eskumen-gatazkan planteatutako alegazioak.

9.- 2016ko urtarrilaren 13ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuen Arabako Foru Aldundiaren idazki batek, non adierazten baitzen bat egiten zuela 2/2015 eta 3/2015 eskumen-arazoekin eta aldeko agertzen zela 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-gatazkek metatzearekin; 2016ko urtarrilaren 13ko dataz, sarrera izan zuen Arabako Batzar Nagusiek idazki batek, hura ere metaketaren aldekoa.

10.- 2016ko urtarrilaren 21ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuten Arabako Batzar Nagusien data bereko bi idazkik, non alegazioak egiten baitziren, hurrenez hurren, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoen inguruan; Eusko Jaurlaritzaren bi idazkik, 2015ko urtarrilaren 18ko datakoak, non alegazioek egiten baitzitaizkien 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoei, ados azalduz 1/2015 eskumen-arazoarekin metatzeari ekin ziezaion eta berriro errepikatuz 2016ko urtarrilaren 7ko dataz aurkeztutako alegazio-idazkian azaltzen eta eskatzen zena.

11.- 2016ko otsailaren 1eko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuen Euskal Sozialisten data bereko idazki batek, non alegazioak egiten baitziren 2, 3 eta 4/2015 eskumen-arazoen inguruan.

12.- 2016ko otsailaren 2ko dataz, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen metatzea aipatutako eskumen-gatazka horiek.

13.- 2015ko maiatzaren 10ean egindako bileran, batzordeak erabaki zuen, erabakia emateko epe-muga etenik, irekitzea Arbitraje Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapidea, prozeduran azaldutakoak entzute aldera, ea ba ote zen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritako eskumen-aldaketen ondorioz, prozeduran borrokan zeuden jarreraren defentsarako bestelako ziorik auzitan jarritako eskumen-titulartasunaren inguruan udalak erakunde autonomiko eta foralekin lankidetzaren instituzionalean aritzeari, tokiko zerbitzuen kudeaketari eta udalen finantziarioari dagokionez.

14.- 2016ko maiatzaren 26ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuten Arabako Batzar Nagusien eta Aldundiaren idazki batzuk, non erantzuna ematen zitaion Arbitraje Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapideari.

15.- 2016ko maiatzaren 27ko dataz, Arbitraje Batzordean sarrera izan zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren idazki batek, non helarazpen bera egiten baitzen.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

16.- 2016ko maiatzaren 30ean sarrera izan zuten Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako alegazioek.

17.- Azkenik, 2015ko maiatzaren 31ko dataz, sarrera izan zuen Arbitraje Batzordearen Erregistroan Euskal Sozialistak talde parlamentarioak aurkeztutako idazki batek, non betetzen baitzen helarazpen bera.

Behin azaldu ondoren aztertzeko metatuta jarri diren eskumen-arazo horietan izandako aurrekari kronologikoak, hurrengo dagokiona da labor biltzea arazo horietan erabilitako argudioak.

Lehenengoa.- 1. Bizkaiko Foru Aldundiak 1/2015 eskumen-arazoa planteatu du, Autonomia Estatutua urratzeagatik lege-proposamenaren artikulua hauetan: 1. artikulua, 2. artikulua, 3. artikulua, 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 6. artikulua, 7. artikulua, 8. artikulua, 9. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuak, 12. artikulua; 13. artikulua; 14. artikulua; 15. artikulua; 16. artikulua, salbu 5., 9., 10. eta 11. apartatuak, 17. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 18. artikulua, 19. artikuluko 1., 3., 4. eta 5. apartatuak, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 1., 2. eta 5. apartatuak, 23. artikuluko 1., 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuak; 24. artikulua 2. apartatua, 26. artikulua 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikulua.

Arbitraje Batzorde honen irizpenaren mende jarritako manuetako bakoitzaren azterketaren aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiak kontsiderazio batzuk egiten ditu eskumen-arazoaren planteamendu orokorraren inguruan, bai eta Autonomia Erkidegoaren barne-antolaketa instituzionalaren erregulazio orokorrari eta erakunde komun eta foralen eskumen-banaketari Konstituzioan eta Estatutuan ezarritako muga inguruan, eta, ondoren, aztergai den proposamenetako artikulua epigrafe batzuetan banatzen ditu, zeinak geroago zehaztuko baitira.

Eskumen-arazoa bere horretan hartuta, uste du bi plano gainjartzen direla: plano bat da ea proposamena egokitzen zaion erakunde komun eta foralen arteko eskumen-banaketari dagokionez Autonomia Estatutuan ezarritakoari, eta beste plano da indarrean dagoen legeriari dagokiona, zeina Estatututik ezberdina baita bai eskumen-banaketaren inguruan bai eskumen-sistemaren beraren inguruan.

Konstituzioaren eta Estatutuaren mugez den bezainbatean, Bizkaiko Foru Aldundiak uste du derrigorrezkoa dela Euskadiko Autonomia Estatututik abiatzea, funtzio bikoitza baitu: Autonomia Erkidegoaren oinarriko arau instituzionala izatea eta, Espainiako Konstituzioaren ondoren, foru-lurraldeen eskubide historikoen "eguneraketarako elementu erabakigarriena", funtzio hori ematen baitio Estatutuari Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak, Konstituzio Auzitegiaren 1988ko apirilaren 26ko 76/1988 epaiko bosgarren zuzenbide-oinarriaren arabera, eta ebazpen hori behin eta berriro aipatuko du bere oinarriketan zehar.

Estatutuaren dimentsio bikoitz horretatik abiatuta, uste du gutxieneko eduki bat gorde behar dela lurralde historikoetarako, Eusko Legebiltzarrak errespetatu

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

beharrekoa, eta bere asmoa babesteko aipatzen ditu Estatutuaren 3. artikulua, 10. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 24.2 artikulua, 25.a artikulua eta 37. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, zeinek, Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 epaiaren arabera, bi eskumen mota zehazten baitituzte: Estatutuaren aginduz foru-erregimenaren edukiaren gutxieneko muin ukiezin bat osatzen dutenak, eta erregimen horren hedapen-eremu bat, beste organo batzuen jarduketaren menpe jartzten dena, bai Autonomia Estatutuak berak hala ezartzen duelako, bai Konstituzioaren 150. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako prozedurak baliatzeagatik.

Bizkaiko Aldundiak beste muga bat aipatzen du, gainditu ezin dena, alegia, lege-proposamenak asmo interpretatibo bat izatea, izaera orokorrekoa eta loteslea, barne-esparru instituzionalari buruz eta ondoriozko eskumen-banaketari buruz. Horretarako oinarritzen da Konstituzio Auzitegiaren abuztuaren 5eko 76/1983 epaian, bai eta gorago aipatutako 76/1988 epaian ere, eta ondorioztatzen du ezen interpretazio lotesle eta "erga omnes" posible bakarrak Autonomia Estatutuan ezarritako eskumen-ordenari buruz, Konstituzioaren lehengo xedapen gehigarriaren arabera, izan behar direla Arbitraje Batzordeak eta Konstituzio Auzitegiak, zeinek bere eremuan, egiten dituztenak.

2. Behin izaera orokorreko kontsiderazio hauek eginik, Bizkaiko Foru Aldundiak egituratzen du planteatutako arazoa proposamenaren manuak lau multzo handitan bilduz:

- a. 1etik 4ra artikulua. Lurralde historikoek beren erakunde propioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari dagokionez daukaten eskumenaren urraketak.
- b. 6tik 13ra arteko artikulua. Aldundiaren arabera, artikuluko horiek Estatutua urratzen dute lege-proposamenari eta Ekonomia Itunaren Legeari egozten dielako foru-eskumenen iturri jatorrizkoen eta zedarriztaileen izaera eta modu injustifikatua mugatzen dituztelako Estatutuan errekonozitutako eskumenak.
- c. 14tik 18ra arteko artikulua. Aurreikuspenak dituzte erakunde komunak, lurralde historikoen eta udalerrien arteko gobernuarteko lankidetzari buruz, foru-eskumenak murrizten dituztenak.
- d. 19tik 27ra arteko artikulua. Urratu egiten dituzte foru-eskumenak lurralde historikoen finantza-baliabideen banaketari eta ekarpenen zehaztapenari dagokienez.

3. Lehenengo multzo handiaren inguruan, espresuki aipatzen ditu proposamenaren 1., 2. eta 3. artikulua eta 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, erlazionatuz Estatutuko 10.2 eta 37.3.a artikuluekin eta Konstituzio Auzitegiaren 76/1983 epaiko 38. zuzenbide-oinarriekin. Estatutuko bi manu horien irakurketatik ondorioztatzen du elkar-baztertzaileak direla eta zedarrizten dituztela erakunde komunak eta foralen arteko jarduketa autonomoko eremu batzuk une oro errespetatu beharrekoak, horietako bakoitzak muturra ezin sartuko duelarik bestearen antolaketa-moduan eta eskudantziatan.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Aldundiak aztergai diren manuen irakurketa bateratu bat egiten du, eta, zehazki, lege-proposamenaren 4. artikuluko 3. apartatuaren idazkeran abiapuntu hartuta, zeinek baitio "lurralde historikoei autogobernurako erakunde pribatiboak antolatzeko gaitasuna gauzatuko dutela lege honetan eta Autonomia Erkidegoko legeetan ezarritakoaren arabera, eta dagokionean, ezarri beharreko Estatuko legeen arabera", eta abiapuntu hartuta, orobat, foru-aldundiko osatzaileei buruz erabiltzen diren aginduzko hitzetan ("osatuko da"), zeina jasotzen baita artikuluko bereko 1. apartatuan, ondorioztatzen du artikuluko horietan urratu egiten dela Estatutuaren 37.3.a artikulua, zeinak lurralde historikoei izendatzen baitie, modu eskusiboan, beren erakunde propioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren gaineko eskumena.

4. Bigarren multzoko artikuluek Aldundiak duen desadostasuna hasten da 6. artikuluko 1. apartatuaren azterketarekin, apartatu hori lesibotzat jotzen baitu, kontuan hartzen ez duelako ezen lurralde historikoen eskumenak beren eskubide historikoetatik sortzen direla eta Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak bermatuak eta Estatutuan eguneratuak izan direla. Beste alde batetik, uste du Autonomia Erkidegoa eta Erkidegoko erakunde komunak ez direla termino sinonimoak, eta, Estatutuko 2.1 artikulua aipatuz, Erkidegoa ulertzen du lurralde-egitura konplexu modura, lurralde historikoz eta erakunde komunez osatuta dagoena.

6. artikuluko 2. apartatuari dagokionez, uste du idazkera nahasia duela eta aldatu egiten duela Konstituziotik eta Estatututik eratorritako eskumen-sistema, lege-proposamenari ematen baitio foru-eskumenen iturri sortzaile eta bakarraren izaera. Beste alde batetik, uste du "lege-mailako arauak" kontzeptuaren ordez "ahalmen legegilea" kontzeptua erabiltzeak urratu egiten dituelako Estatutuko 25.1 eta 41.2.a artikuluek.

7. artikuluen azterketan, Aldundia hasten da kritika eginez izenburuari, ez duelako aintzat hartzen, berriro, ezen lurralde historikoei eskumenak izendatzearen iturriak Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria eta Estatutua direla, eta akats berean erortzen da artikuluko horren 1. apartatuan ere. 2. apartatuari dagokionez, desadostasun dago, Estatua aipatzen duelako Ekonomia Itunaren Legean lurralde historikoei eskumenak aldebakartasunez izendatzen dituen subjektu gisa. Alde batetik, hori ez baitator bat Estatutuaren 37.3.f artikuluko lehenengo tartekiarekin, bertako 41. artikuluko 1. eta 2. apartatuekin loturan jarrita, eta beste alde batetik, Itunaren izaera, nahiz eta Estatutuan lege bat izan, paktista baita, Estatuko erakunde zentralak ezin dutelarik bere edukia aldebakartasunez erabaki, akordio baten fruitu izan behar delako organo orokor horien, Erkidegoko organoen eta lurralde historikoetako organoen artean Itunaren Batzorde Mistoraren baitan, eta bere tesiaren alde aipatzen ditu Konstituzio Auzitegiaren 179/1988 epaia eta, berriagoak, 208/2012 eta 171/29014 epaiak.

Artikuluen 4. apartatuz desadostasun agertzen da Aldundia, uste duelako aldendu egiten dela Estatutuko 25.1 eta 37.3 artikuluetatik eta horiekin erlazionatutako

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

manuetatik. Azkenik, manu bereko 5. apartatuarekiko jarrera kritikoaren oinarria da inposatu nahi dela foru-eskumen eskusiboaren gainetik Legebiltzarraren ahal legegilea, kontuan izan gabe ea Legebiltzarrak Estatutuan baduen ala ez hartarako gaitzen duen beharrezko eskumen-titulurik.

8. artikuluekiko desadostasunaren funtsa hirukoitza da: alde batetik, aginterazko "izango dute" erabiltzea, lege-proposamena Estatutuaren maila berean kokatzen duelarik; beste alde batetik, Estatutuaren 37.3 artikuluko f) letraren omisioa, manu horren eta Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarriaren urraketa dena; eta azkenik, 37.3 artikuluan jasotako enuntziatuari fideltasun osorik ez izatea, zeren artikulua horrek eskusibo modura kalifikatzen baldin baditu zerrendatzen dituen eskumenak, baita f) epigrafikoak ere, lege-proposamenak ezin baitu hustu ez erlatibizatu arau horren edukia eta irismena, aipatu artikulua 2. apartatuak egiten duen bezala.

9. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuei dagokienez, Aldundiak errepikatutzat jotzen ditu aurreko artikuluetan egindako kontsiderazioak eskumen horien jatorrizko esleipenaren inguruan, eta gero uste du kontraesana dagoela bere 1. apartatuan xedatutakoaren artean, non zerrendatzen baititu Estatutuan aurrekusitakoaren garapen gisa lurralde historikoen eskusibotzat ezartzen dituen eskumenak, eta 2. apartatuaren artean, non erakunde komunekin partekatu gisa tratatzen baitira. Maila zehatzago batean, manu horren 1. apartatuarekiko desadostasunaren jatorria da ezen errepide eta bideen kasuan salbuetsi egiten direla "Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekotzat aitortu direnak", zeren eskumen eskusiboa izanik eskumen partekatu izatera degradatzen baitu.

9. artikuluko 4. apartatuan errepikatu egiten du bere argudiaketa, "lege honek foru-organo horiei esleitu ez dizkien eskumenak" esapideari dagokionez, alegia, lurralde historikoen eskumenen jatorria Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian eta Estatutuan dagoela eta ez lege-proposamenean.

12. artikulua kritikan erreferentzia egiten zaio berriro eskumenak izendatzeko jatorrizko iturriari, kasu honetan zerga arloan, uste delarik ezen bere 1. apartatuak formalki kontraesaten duela konstituzionaltasun-multzoan xedatutakoa eta gainazpikatu egiten duela eskumen-ordena, Ekonomia Itunaren Legetik etorraraziz eta ez Estatutuko 41. artikulutik, eta bere desadostasuna adierazten du Autonomia Erkidegoaren zerga-sistema bat existitzen delakoarekin, zeren ekonomia-itunaren erregimenean ari diren bakarrak Estatuarena eta lurralde historikoena baitira. Argudiaketa horretan ekiten da 2., 3. eta 4. apartatuei buruz ere.

13. artikuluekiko oposizioa, berriro, aurreko argudiaketa du orokorrean abiapuntu. 1. apartatuarekiko desadostasuna da, hain zuzen, berdindu egiten duela zerga-harmonizazio zergen funtsezko elementuen uniformizazioarekin.

Lege-proposamenaren 13. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuekiko desadostasun orokorraren jatorria da horietako lehenengoan xedatutakoa, alegia, Eusko

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Jaurlaritzari izendatzea Ekonomia Ituna osatzen duten zergen funtsezko elementuak lurralde historikoek harmonikoki erregulatzeko daukaten obligazioaren betekuntza begiratzeko funtzioa, nahiz eta harmonizazio-funtzioa Eusko Legebiltzarrari izendatzen dion Estatutuko 41.2.a artikulua. Beste alde batetik, Aldundiak uste du Itunaren Legeak bere 5. bigarren, 34. eta 65. artikuluetan ezarrita duela jada kontroleko funtsezko estandarra bere aplikaziorako, bai eta bermea ere bere oinarritzko printzipioak bete daitezzen.

5. 14tik 18ra arteko artikuluei dagokionez, zeinek aurreikuspen batzuk baitituzte erakunde komun, lurralde historikoen eta udalen arteko gobernuarteko lankidetzari buruz, foru-eskumenak murrizten dituztenak, Aldundiak planteatutako arazoa alderdi hauetan kokatzen da:

Lege-proposamenaren 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuen oposiziorako argudio nagusia da ezen koordinazio-printzipioaz horietan jasotako erreferentziak ezin direla ulertu erakunde komunak gaituta baleude bezala lurralde historikoen jarduketa zuzentzeko eta soilik uler daitezkeela elkarren arteko akordioaren ikuspuntutik.

Aldundiaren oposizio handiena 14. artikuluen 3. apartatuan dago, eta horren inguruan desadostasuna adierazten du zerga gaiari egiten dion aipamena dela eta, erakunde komun eta lurralde historikoen arteko eskumen-banaketaren kontrakoa baita, bai eta "funtsezko elementuen erregulazio harmonizatua betetzeko obligazioa bermatzeko" esapidea dela-eta ere. Koordinazio-printzipioa aplikatzen baldin bada, elkarren arteko akordioaren printzipioaren menpe egon behar da derrigorrez, Eusko Legebiltzarrak ezingo duelarik koordinazio-irizpideren bat inposatu eta, larriago litzatekeena, lurralde historikoen jarduketa zuzendu.

14. artikuluko 4. apartatuarekiko oposizioaren arrazoiak, funtsean, 3. Apartatuari buruz azaldutako berak dira.

Hortik guztitik ateratzen du ezen Arbitraje Batzordeak deklaratu beharko lukeela ezen 14. artikulua osoa Estatuak, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorritik, ezarritako eskumen-ordenaren kontrakoa dela.

15. artikuluari dagokionez, Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio manu horren inguruan egin dezala eskumen-banaketari egokitu historikotako irakurketa bat, Estatuaren 37.3 artikuluan xedatutakoan kokatuta.

16. artikulua, Finantzen Euskal Kontseilua erregulatu duena, auzitan jartzen da bertako apartatu askoren idazketari dagokionez.

1. apartatuak hizpide du modu harmonizatuan erregulatzeko arauketa autonomoko zergen funtsezko elementuak, eta hustu egiten du zergei buruzko foru-eskumena, eta ondorioz errepikatutzat ematen ditu 13. artikulua aztertzean emandako argudioak.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

2. eta 3. apartatuekiko oposizioak arrazoi bat baino gehiago ditu. Alde batetik, berriro esaten da proposamenak, behar ez bezala, Itunaren Legean jartzen duela foru-eskumenen iturria, Estatutuan eta Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian jarri beharrean. Beste alde batetik, inbaditu egiten dituzte lurralde historikoen eskumen exekutiboak, horien artean zerga-iruzurraren kontrako borroka.

5., 6., 7. eta 8. apartatuak batera jartzen dira auzitan. Lege-proposamenak dio udal-ordezkariek hitzarekin eta botoarekin jardungo dutela hizpide denean Udalen Legearen 106.2 artikuluan (zerga itunduen errendimendua) eta 10.7 artikuluan (toki-entitateek lurralde historiko bakoitzean parte hartzearen zehaztapena) ezarritakoa, "baita udalei edo haien ordezkari zuzenean eragiten dieten gaiak eta tokiko ogasunen zerga-arauketari buruzkoak eztabaidatzen direnean ere". Aldundiak gaitzespen batzuk egiten dizkie apartatu hauei: lehenengo, beren idazkera irekiegia eta zehaztugabeegia dela, udalek ez dutela eskumenik zerga itunduetan, eta baita ere udal-ordezkariek ezin dutela zuzenean parte hartu ekarpenei buruzko erabakiak hartzeko orduan, eskudun bakarrak erakunde foralak eta komunak baitira.

Azkenik, 12. apartatua ere, Aldundiaren ustez, ez da bateragarria lurralde historikoen eskumenekin, baterako organo bati, Finantzen Euskal Kontseiluari izendatzen baitio lurralde historiko "bakoitzerako" aurrekontu-aurreikuspenak egiteko gaitasuna.

17. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuekin ere ez dago ados, 16. artikuluari egindako kontsiderazioengatik eta 19. artikuluari buruz egingo direnengatik.

Lege-proposamenaren 18. artikuluekiko oposizio orokorraren jatorria da manu horrek Autonomia Erkidegoaren legediaren kontrol eta zaintza mekanismo bat ezartzen duela lurralde historikoen gainean, "jarraibideak" ezartzeko aukera barne.

1. apartatuak Eusko Jaurlaritzari izendatzen dio Autonomia Erkidegoko legeei dagokienez lurralde historikoek egiten duten exekuzioaren kontrola, nahiz eta eskumen hori Estatutuan inon izendatzen ez zaien erakunde komunei.

2. apartatua kontrol-mekanismo generiko bat da, "kontrol-lanak" deitzen diona, eta izaera inplizitu eta zehaztugabe horrek gainditu egiten du lurralde historikoen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanetan onargarria dena, ez du kualifikatzen lurralde-historikoei eskatu ahal zaien informazioaren maila, ez du zehazten lurralde historikoko zein agintaritzari eskatu ahal zaion, kontraesanaren oinarritzko irizpideen kontra doa, ez baitu onartzen lurralde historikoarekin kontrastatzeko aukera alegatutako "zalantzen" errealitatearen inguruan, saihestu egiten du Eusko Jaurlaritzak txosten batean jasotzea zertan dautzan zalantza horiek, eta, finean, tutela-mekanismo bidegabe bat ezartzen du erakunde komun eta lurralde historikoen arteko harremanen eremuan, eskubide historikoek daukaten berme instituzionalaren kontra jokatuz.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

18. artikuluko 3. eta 4. apartatuekiko oposizioa bide beretik doa eta uste du edukiz husten duela Estatutuko 3. artikulua.

6. Sartuko gara orian Aldundiak artikuluko multzo handietako azkenengoari buruz, 19tik 27ra artekoei buruz, daukan jarreran, artikuluko horiek bere ustez urratu egiten baitituzte finantza-baliabideen banaketari buruzko eta lurralde historikoen ekarpenak zehazteari buruzko foru-eskumenak.

Aldundiarentzat, lege-proposamenaren 19.a artikuluko 1. apartatua Estatutuko 37.3.b artikulua kontrakoa da, zeinak errekonozitzen baitu lurralde historikoen zerga-gaietan daukaten eskumen eskusiboa. Urraketa dator sartzegatik lege-proposamenaren eta "aplikatzekoak diren gainerako legeetan" xedatutakoa aurrekontu-autonomia forala mugarritzeko esparruan.

3. apartatuak bitan urratzen du Estatutuko 41.2.a artikulua. Lehenengo, berriz esatearren lurralde historikoen zerga-eskumena lege-proposamenarekin bat etorritik gauzatu behar dela, eta bigarren, berriz exijitzeagatik zergen funtsezko elementuen erregulazio uniformeak.

4. apartatua ere 37.3.b artikulua kontrakoa da, muturra sartzen duelako lurralde historikoen aurrekontu-autonomian.

5. apartatuak lurralde historikoei ezartzen die erakunde komunek erabilitakoekin homogeneoak diren irizpideak aplikatzea aurrekontuak prestatzerakoan, funtsezko eskakizun bat ahaztuz, alegia, irizpide horien zehaztapena Finantzen Euskal Kontseiluan adostu eta zehaztu behar dela, hau da, beharrezkoa den lurralde historikoen esku-hartzearekin.

Lege-proposamenaren 20. artikuluko 4. apartatuak 19.4 artikulua ia berdina den arau bat jasotzen du eta, ondorioz, kritika bera zor zaio.

22. artikulua hizpide ditu Ekonomia Ituna osatzen duten zergetatik eratorritako finantza-baliabideen banaketarako printzipioak.

Aldundiarentzat, 1. apartatuak, itxura batean, errespetatu egiten du Estatutuko 42.a artikulua, nahiz eta udalak ere barruan sartuz. Hala ere, egitate hori kontuan izan behar da gainerako apartatuak aztertzerakoan.

2. apartatua, 22. artikuluko 5. apartatuarekin lotura duena, Estatutuko 42.a artikulua kontrakoa da, baliabideen banaketa-sistematik erabat kanpo uzten baititu tokiko zergetatik eratorritako sarrerak, eta horiek kontuan izan behar dira, Aldundiaren ustez, lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahaleginaren balioa ateratzeko, zeina hizpide baitu lege-proposamenaren 23.2 artikulua, amarez eta ekitatiboa izan dadin banaketa. Beste alde batetik, urratu egiten du martxoaren 23ko 2/2007 Legea (Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa), zeinak kontuan hartzen baititu zerga-ahalegina kalkulatzeko orduan eta zeinak indar formal pasiboagoa baitu produkzio-prozedura bera jarraitzen ez duten beste lege batzuen aldean, ezinbesteko eskakizuna delako aurretiazko akordioa izatea erakunde komunen eta foralean artean.

23. artikulua lurralde historikoen ekarpenak erregulatzen ditu.

Aldundiarentzat, 1. apartatuak ez dio inolako aipamenik egiten adostasunaren eskakizunari.

2. apartatuari dagokionez, Aldundiak errepikatutzat ematen du 22. artikulua azterketan azaldutakoa.

3., 4. eta 4. apartatuen kritika ere bide beretik doa, aipatu gabe uzten baitu erakunde komunen eta foralen arteko akordioa, Estatutuko 42.a artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezkoa dena.

Aldundiarentzat, 6. apartatua 16.12 artikuluaekin loturan jarri behar da, eta ondorioztatzen du ez zaiola egokitzen zuzenbideari, berriz ere Estatutuaren 42.a artikulua urratzeagatik, kentzen delako aurretiazko akordioaren eskakizuna, eta baita ere inhabila delako 2/2007 Legea aldatzeko edo indargabetzeko, lehenago azalduko arrazoiengatik, eta uzten duelako, Konstituzio Auzitegiaren 76/1998 epaiko doktrinaren kontra, zuzenketak aurkezten hizpide duen lege-proiektuari. Aldundiak garatu egiten du azken doktrina hau, zuzenketak ezin aurkeztuari dagokionez geroago 27/2000 epaiak berronetsi duena, eta ondorioztatzen du ezen ekarpenak zehazterakoan bi eskakizun bazterrezinak biltzen direla: erakunde komunen eta foralen arteko aurretiazko adostasuna, eta akordio horren onspen parlamentarioa irakurraldi bakarreko prozeduraz onetsitako lege baten bitartez.

Aldundiarentzat, lege-proposamenaren 16.12 eta 23.6 artikuluek ez dute errespetatzen gutxieneko hori. Lehenengoak ez ditu hizpide ekarpenak, baizik eta ente instituzional bakoitzaren sarrera eta gastuen aurreikuspena, zehaztuz lurralde historiko bakoitzari exijitu beharko litzaiokeen bilketa-gaitasuna, zeina ez baita izan behar ezinbestean berdina. Uste du 23.3 artikulua ez diola aipamenik egiten Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari, eta artikulua horretako 1. zenbakira birbidaltzen duela, eta hark ere ez duela aipatzen. Lege-proposameneko 23.6 artikulua bigarren esaldiari dagokionez, ez du betetzen, Bizkaiko Aldundiaren arabera, eskakizunetako bigarrena, aukera emanez ab initio zuzenketak aurkeztea.

Antzeko gaitzespenak egiten dira 4., 5., 6. eta 7. apartatuei buruz ere, zeinek erregulatzen baitute Udal Finantziatorako Funtsa. Aldundiak arreta jartzen du 2008 eta 2011ko Euskadiko udal-lege proiektuei buruz Arbitraje Batzordeak emandako erabakietan, alegia 1/2008 eta 3/2012 erabakietan, adieraziz bere ustez bi erabaki horien artean dibergentzia bat dena, horri dagokionez gogoratuz 3/2012

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

erabakiaren 46. apartatuari erakunde foralek izendatutako hiru batzordekideek formulatutako boto partikularra.

Azterketa egiteko, legedi estatalera jotzen du, zeinen gain osatu den aipatutako jurisprudenzial konstituzionala, ikusteko nola proiektatu behar den jurisprudenzia hori Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalaren gainean. Horretarako, Toki Ogasunen Legearen testu bateginera jotzen du (martxoaren 5eko 2/2004 legegintzako Errege Dekretuz onetsi zen), 1. artikuluko (aplikazio-eremua) 1. eta 2. apartatuetara eta 39. artikulura, eta manu horietatik ondorioztatzen du ezen toki-entitateek sarrera estatal eta autonomikoetan izan beharreko parte-hartzeari buruzko Estatuaren eta autonomia-erkidegoen esku-hartze normatiboa habilitatzen duten eskumen-tituluak direla, lehenengo kasuan, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua (administrazio publikoen araukosbide juridikoaren oinarriak) eta 149.1.14 (ogasun orokorra), eta bigarren kasuan, autonomia-erkidegoek oinarri horien garapen legegilea egitea, Euskadiren kasuan Estatuaren 10.4 artikulua bertutez (toki-araubideari buruzkoa dena), zeinetik tratamendu asimetriko bat ondorioztatzen baita, halatan non Estatuak toki-entitateen gainean duen finantza-babeseko ahalmenek irismen material handiagoa baitute autonomia-erkidegoenak baino, hauek galarazita dutelako Konstituzioaren 149.1.14 artikulua okupatutako eremu materiala. Aldi berean, Toki Ogasunen Legeko 39. artikulutik ondorioztatzen du ezen tokiko enteeek parte hartzen duten zerga-sarrerak banatzeko irizpideak ezartzeko orduan, eskumen estatala edo autonomikoa ebatzeko funtsezko datua dela sarrera horien titulartasuna. Ondorio beretara iristen da Konstituzio Auzitegiaren doktrinatik abiatuta ere, 331/1993 epaiko hirugarren zuzenbide oinarria aipatuz.

Aldundiak eskema hori Autonomia Erkidegora eramaten duenean, uste du kontuan izan behar dela ezen, nahiz eta erakunde komunek toki-araubideari buruzko eskumena daukaten (10.4 artikulua), ez dutela ogasun orokorrari buruzko eskumen orokor eta lehentasunezko baten titulartasunik, Estatuarentzat Konstituzioaren 149.1.14 artikuluan aurreikusitakoa bezalakorik. Aitzitik, Bizkaiko Aldundiarentzat Estatutuko 40. artikulua Autonomia Erkidegoaren eskumenak mugatzen ditu bere eskumenak egokiro gauzatzeko eta finantzatzeko ogasun autonomo bat izatera, eta eskumen horien artean ez dago ogasun orokorraren gaia. Beste alde batetik, erakunde komunek ez dute eskudantziarik batere lurralde historikoen ogasunen gainean. Azkenik, Estatutuan ez dago Konstituzioaren 156. artikuluan jasotakoa moduko aurreikuspenik, babesa ematekorik erakunde komunek erakunde foralen gainean koordinazio funtzioak gauzatzeari.

Hortik guztitik, bai eta Arbitraje Batzordearen 2/2003 eta 1/2008 erabakietatik, ondorioztatzen du ezen Konstituzioaren 142. artikulua exijitzen duen udalen finantza-nahikotasuna bermatzeko arduradunak izan behar direla, lehentasunez, foru-organoak. Erakunde komunak eskudunak dira, soilik, Bizkaiko aldundiaren arabera, legez erregulatzeko eta ezartzeko zer-nolako banaketa-irizpideak izango diren Autonomia Erkidegoko osoko toki-entitateek iturri autonomikoko sarreretan parte hartzeko.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Era honetara, udal-finantziarioari dagokionez auzitan diren eskumenen esleipen-arauak, zeinetara inplizituko bidalketa egiten duen Toki Ogasunen Legearen 48.5 artikulua, honako hauek dira foru-instituzioaren ustez:

- Foru-organoentzat, Estatutuko 41.2.a), b) eta f) artikulua, 37.2 artikularekin erlazionatuta, eta Ekonomia Itunaren Legeko 48.5 artikularen eta Lurralde Historikoen Legeko bigarren xedapen gehigarriarekin eta Toki Ogasunen Legeko 39.1 artikularekin loturan.
- Erakunde komuentzat, Estatutuaren 10.4 artikulua, toki-araubideari buruzkoa, 42. artikularekin loturan, zeinak uzten baitie lankidetzeta-funtsak sortzen, beren sarrera propioen kargura, Autonomia Erkidego osoko udalekin, eta lege ezartzen horiek banatzeko irizpideak, Estatutuko 41.2.f) artikularekin eta Ekonomia Itunaren Legeko 48.5 eta Toki Ogasunen Legeko 39.2 artikuluekin erlazioan.

Era honetara ondorioztatzen du ezen udalen finantza-babesa lurralde historikoen eskumen eksklusiboa dela, kontuan izanik 2/2003 eta 1/2003 erabakiak eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia.

Aldundiak bukatzen du lege-proposamenaren 23. artikularen kritika, laburbilduz ezen ahazten duela aipatzea Finantzen Euskal Kontseilua izan behar dela akordioa hartzeko tokia, gero hori Legebiltzarrak lege mailara jaso dezan, eta Legebiltzarra espresuki habilitatzen duelako akordioa zuzendu ahal izateko, lurralde historikoen esku-hartze edo aurretiatzko kontsultarik gabe.

Lege-proposamenaren 24. artikuluko 2. apartatuak, 23.4 artikularekin duen loturagatik, haren akats berak dauzka, eta ondorioz manu horri dagokionez esandakoa dakarte gogora.

26. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan Lurraldearteko Parekatze Funtsa sortzea jasotzen da, baina ez dute bermatzen lurralde historikoek parte hartzea funtsaren zuzkidurari buruzko akordioa hartzeko orduan. Zuzkidura sartzen duen legea ez da mugatzen hura formalizatzerara, aukera ematen baitu zuzenketak aurkezteko, eta ondorioz aldatu egiten da 2/2007 Legea hartarako beharrezkoa den prozedurari jarraitu gabe (akordioa eta irakurraldi bakarra). Finean, Estatutuko eskumen-ordenaren kontrakoa da, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren eta Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 epaiaren arabera. Kritika hau hedatzen du lege-proposamenaren 27. artikuluko 1. apartatura ere, zeinen hizpidea Udal Finantziatorako Funtsa baita.

7. 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du batere eragozpenik jartzen bere 1/2015 arazoarekin metatzeko, uste baitu betetzen dela Arbitraje Batzordea erregulatzen duen ekainaren 20ko 13/94 Legearen 31.1 artikuluan exijitutakoa eta errepikatu egiten ditu bere alegazio propioak, eta bere egiten ditu 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoetan jasotakoa bere alegazioekin bat datozen neurrian.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

8. Azkenik, Arbitraje Batzordeak, 2015ko maiatzaren 10eko osoko bilkuran hartutako erabakia betez, egindako helarazpenari buruz, alegia, ea beste ziorik baden Aldundiak bere posizioa defenditzeko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Lege onetsi izanaren ondorioz, ba horren inguruan alegazio batzuk egiten ditu.

Hasteko, nabarmentzen du ezen lege-proposamena Estatutuarekin kontrastatu behar dela soilik, zeren eskumen-mugaketa berri bat egin nahi baitu erakunde komun eta foralen artean Lurralde Historikoen Legea ordezkatzuz. Horregatik, jada azaldutako guztia berresten du Aldundiak, Toki Erakundeei buruzko Legearen sarrerak ez baitakar eskumen-ordenaren aldaketarik maila estatutarioan.

Gainera, gogoratzen du foru-instituzioen gaineko koordinazio autonomikoko eskumena sostengatu daitekeela, soilik, baldin eta eskumen-titulu espezifiko bat balego, Estatutuak zalantzarik gabe Erkidegoari esleituta.

Oharpen horiek egin ondoren, sartzan da lege-proposamenaren manu konkretu batzuen azterketan, eskatuz Arbitraje Batzordeak eman dezala erabaki bat, hartan jasoz 1/2015 eskumen-arazoa aurkezteko idazkiaren petitumeko bigarren apartatuan eskatzen den ebatzia eta deklaratzuz hartan adierazitako artikuluek eta xedapenek urratu egiten dutela Estatutuan, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriari jarraituz, ezarritako eskumen-ordena, eta lege-proposamenaren 14. artikuluko 1. apartatuak, bere azkenengo alegazio-idazkian jasotako ñabardurekin, 16. artikuluko 4., 6., 7. eta 8. apartatuek, 22. artikulua, 23. artikuluko 4. eta 5. apartatuek, 24. artikuluko 2. apartatuak, 27. artikulua eta azken xedapenetako hirugarrenak aldatu edo ukitu egiten dutela indarreko legedian, eta zehazki Lurralde Historikoen Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean, erakunde komun eta foralen artean ezarrita dagoen eskumen-sistema, bere alegazioetan azaldutako eran.

BIGARRENA.- 1. Arabako Batzar Nagusiek 2/2015 eskumen-arazoa planteatu dute lege-proposamena honako artikulua havei buruz: 1. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 2. artikuluko 1. apartatua, 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 6. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 7. artikuluko 5. apartatua, 8. artikuluko 1. apartatua, 9. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, 10. artikulua, 12. artikuluko 4. apartatua, 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, 16. artikuluko 3. apartatua, 18. artikulua, 20. artikuluko 4. apartatua, 23. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikulua.

Planteatutako kuestioa banatuta dagoen lege-proposamenaren alegazio orokorretan eta manuetako bakoitzari egindako alegazio partikularretan.

2. Alegazio orokorrak, lege-proposamenak urratu egiten duela-eta Erkidegoaren barruan Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta lurralde historikoetako foru-organoen artean Estatutuak ezarritako eskumen-ordena.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

Batzar Nagusiek, lehenik, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria aipatzen dute, bai eta Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 epaia ere, eskubide historikoen titularrak definitzeko. Batzar Nagusientzat, lurralde historikoek Estatutuan bermatuta dauzkate eskubide batzuk, "foraltasunaren muin ukiezina" deitutakoa osatzen dutenak; eskumen-erreserba hori Estatutuaren 3., 10., 34., 24.2, 37. eta 41. artikuluetan jasotzen da. Foraltasunaren berme orokor hori bi ikuspegitan zehazten da: hala Erkidegoko erakunde komunen aurrean, nola Estatuko Administrazioari dagokionez. Ondoren, lurralde historikoen eskumen-motak zehazten dira eta bi mota ondorioztatzen dira: Estatutuan nominalki espezifikatuak, eta Legebiltzarraren legeen bitartez eskualdatuak. Horrek guztiak bitartekoen antolaketa bat eskatzen du obligazioak bete ahal izateko, eta hori, ondorioz, foru-araudian islatzen da. Aurreko egoera horren aurrean, lege-proposamenak, Batzar Nagusien ustez, hustu egiten du Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea, gaur egun dagoen eran, eta hori ez da inola ere onargarria.

3. Gainera, eskumenen banaketa-ordenaren urraketa batzuk hautematen dira, Arabako Batzar Nagusien ustez honako puntu hauek konkretatzen direnak:

1. artikuluko 1. apartatua eskumenen inbasio bat da, Estatutuko 37.1 artikuluan, 3. artikularekin lotuta, xedatutakoaren kontrakoa delako, zeren lurralde historikoetako bakoitzaren antolaketaren eguneraketa "autogobernu-erakunde pribatiboei" baitagokie. Manu horren 2. apartatuak Estatutuko II. tituluan jasota ez dauden beste erakunde batzuk (kasu honetan udal-instituzioak) sartzen ditu, eta hori Estatutua aldatzea da eta Estatutuko 37. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan aipatutako eskumenei eragiten die.

2. artikuluko 1. apartatuak ez du aintzat hartzen lurralde historikoei eta erakunde komunei dagozkien eskumenen iturri bikoitza: horietako batzuk Estatututik bertatik eratorriak dira eskubide historikoen eguneratze modura eta, ondorioz, legegile arruntak aldaezinak dira, eta beste batzuk legeen aplikaziotik datozenak dira, eta horiek aldatu egin daitezke legeak aldatzen direnean.

4. artikuluko 1. apartatuak Estatutuko 37.3.1 artikulua urratzen du, lurralde historikoen autoantolaketa-eskumenen kontra baitoa. 3. apartatuak Estatutuko 37.1.a artikulua urratzen du.

6. artikuluko 1. apartatuak Estatutuko 37. artikuluan eta Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa urratzen du, gainazpikatu egiten baititu eskumenen iturriak eta lege-proposamena jotzen baitu lurralde historikoei eskumenak izendatzeko iturri bakartzat, ahaztuz Konstituziotik datozen kontuak eta, bereziki, lurralde historikoen finantza-babesa.

6. artikuluko horren 2. apartatuak urratu egiten ditu berriro, legegintza-ahalean aitzakia hartuta, Estatutuko 37.3 eta 4 artikuluetan jasotako bermeak. Arrazoiketa bera errepikatu behar da 7. artikuluko 5. apartatuaren desegokitasuna oinarritzeko.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

8. artikuluko 1. apartatuak, egungo Lurralde Historikoen Legearekiko kontraste xehatu batean, agerian uzten du desagertu egin direla Arabako lurralde historikoaren eskumen pribatibo batzuk.

9. artikuluko 1. apartatuak Estatutuko 37.2 eta 3 artikulua urratzen du, errepide probintzialen gaineko eskumenaren gauzatzea etengabe garatu duelako denboran zehar Arabako lurralde historikoak.

Gauza bera esan daiteke artikuluko horretako 2., 4., 5. eta 11. apartatuez ere, zeinek hizpide baitituzte mendiak, basozaintzako zerbitzu eta ustiapenak, abelbideak eta larreak, bai eta herri-lanak ere baldin eta herri-lan horiek egiteak beste lurralde historikoei eragiten ez badie, eta orobat Miñoien Kidegoa. Berebat esan daiteke 7. apartatuaz ere, zeinak hizpide baitu arte, monumentu eta arkeologiazko ondarea eta non ezabatu egin baita "historiko" hitza, hala ahalmen normatiboaren eskumengabetzea gertatuz.

2. apartatuari dagokionez, ezabatu egiten ditu de facto eskumen eskusiboak, zeren "hala dagokionean" erakunde komunek baliatu ahal baitute garapen normatiboko ahalmena.

10. artikuluan den bezainbatean, ezabatu egiten du Obra eta Zerbitzuen Foru Plana egitea eta onestea bai eta toki-entitateei aholkularitza tekniko ematea, soilik jasotzen baitu hautazko ahalmen bat inbertsio-programa eta -plan sektorialetan.

12. artikuluko 4. apartatuak urratu egiten du Estatutuko 37.3 eta 5 artikuluan eta 41. artikuluan xedatutakoa, eta orobat indarrean dagoen Ekonomia Itunaren Legeko 48.bosgarrenean ezarritakoa, zeinek finantza-babesa, Estatuari izendatzen dion era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunei izendatzen baitie, hartarako aipatuz Ekonomia Itunaren Legeko hirugarren xedapen gehigarria. Bere argudiaketaren indargarri, Arbitraje Batzordearen 2/2003 Ebazpena aipatzen du.

13. artikuluko 2. apartatuaz dio urratu egiten duela Estatutuko 41.2.a artikulua. Eusko Jaurlaritzari ikuskapen-funtzioak izendatzeak –dio "zainduko du bete egiten dutela"– ez du euskarririk txikienik ere Estatutuan.

13. artikuluko 3. apartatuak urratu egiten du Estatutuko 41. artikuluan ezarritako, bai eta Ekonomia Itunaren Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan eta Zergapideen Elkarregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 2.a artikuluan xedatutakoa. Harmonizazioak utzi egiten du lurralde historikoetan arau-xedapen desberdinak egotea, betiere horiek bermatzen badute zerga-prezio baliokidea izatea Autonomia Erkidego osoan.

16. artikuluko 3. apartatuak ez dauzkaten eskumenak izendatzen dizkie erakunde komunei, espresuki urratuz Estatutuko 41.2.b artikuluan xedatutakoa, zeinek lurralde historikoetako foru-aldundi bakoitzean kokatzen baititu zerga guztien ordainarazpen,

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

likidazio, bilketa eta ikuskapen funtzioak. Eusko Legebiltzarra izango da borroka-planak onetsiko dituen eta horiek aginduzko izaera eduki beharko dute: hori foru-eskumenetan muturra sartzea da.

18. artikuluari dagokionez, Estatutuaren eredutik erabat aldentzen den autonomia-erkidego bat artikulatzen du manu osoak, urratuz Estatutuko 37. eta 3.a Artikuluetan jasotako xedapenak, zeren Administrazio komunaren eskuordetza huts gisa eratzen baititu lurralde-historikoak, haren jarraibideen menpe jartzen dituztelarik lege-proposamenen jasotako eskumenen exekuziorako, are exekuzioan desadostasun edo zalantza dagoen kasuetan ere, jarraibide konkretuak eman ahal izanik, hierarkia-printzipioaren gainetik, lurralde historikoko agintariei.

20. artikuluko 4. apartatuak prozesu bera egiten du lurralde historikoetako foru-ogasunei dagokienez.

23. artikuluko 4. eta 5. apartatuek eta 27. artikuluko Estatutuan ezarritako dagoen eta Ekonomia Itunaren Legean isla duen eskumen-sistemari eragiten diote, zeren lege horretako 48.5 artikuluan Euskadiko erakunde eskudunei izendatzen baitie finantza-babesa, eta horiek dira, Arbitraje Batzordeak aipatutako 2/2003 Ebazpenean adierazitako irizpidearen arabera, lurralde historikoei dagozkienak.

4. 1/2015, 3/2015 y 4/2015 eskumen-arazoaren inguruan, Arabako Batzar Nagusiak ados daude funtsean horietan guztietan planteatutakoarekin, hala beren arrazoiketa juridikoan nola beren eskaeretan, eta alde daude planteatutako eskumen-arazo guztiak metatzearekin.

5. Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea onetsi izanaren ondorioz Arbitraje Batzordeak irekitako entzunaldi-izapideari dagokionez, uste du berak planteatutako eskumen-arazoaren euskarria zela, soilik, Estatutuak finkatutako eskumen-ordena urratzea, eta ondorioz Lurralde Historikoen Legea aldatzen edo puntualizatzen baldin bada, horrek ez diola eragiten ez eztabaidari ez eta Arbitraje Batzorde honek emango duen ebazpenari.

HIRUGARRENA.- 1 Gipuzkoako Foru Aldundiak 3/2015 eskumen-arazoa planteatu du lege-proposamenaren honako artikulua hauen inguruan: 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak, 5. artikuluko 1. apartatua, 6. artikulua, 7. artikuluko 2., 4. eta 5. apartatuak, 8. artikulua, 9. artikuluko 1. apartatua, 12. artikulua, 13. artikulua, 14. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuak, 15. artikuluko izenburua, 16. artikuluko 1., 2. 3. eta 13. apartatuak, 17. artikuluko 3. eta 4. apartatuak, 18. artikulua, 19. artikuluko 1., 3. eta 5. artikulua, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 1. eta 2. artikulua, 23. artikuluko 1., 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuak, 24. artikuluko 2. apartatua, eta 27. artikulua. Eskumen-arazoaren arrazoia zen bere ustez ez zela egokitzen erakunde komun eta foralen artean Autonomia Estatutuan ezarritako eskumen-banaketari, edota aldatu egiten zuela erakunde komun eta foralen artean Ekonomia Itunean eta Lurralde Historikoen Legean finkatutako eskumen-banaketa.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

2. Gipuzkoako Aldundiak, lehenik, kontsiderazio batzuk egiten ditu ezarri asmo den eskumen-erregimen berriaren inguruan zioen azalpenean jasotzen diren zenbait aspekturi buruz.

Gipuzkoako Aldundiak uste du lege-proposamenak mugatu egiten dituela lurralde historikoen eskumen eskusiboak Estatutuko 37.3 artikuluan jasotako gaietara hertsiki, eta horrekin ezabatu egiten du Lurralde Historikoen Legearen 8.1.a artikulua, lege bereko 7.1 artikuluan jasota datozen eskumen eskusiboko beste gai batzuen gainean, lurralde historikoei izendatzen dien araugintza-ahala, eta gai horietan lege-proposamenean lurralde historikoei soilik errekonozitzen zaizkie araugintza-garapen, administrazio eta exekuzioko ahalak.

Gipuzkoako Aldundiaren ustez, lege-proposamenean aurreikusita dagoen gobernuarteko lankidetzeta hala bertikal nola horizontaleko tresnen erregulazioak, "disimulurik gabe" erakusten du Eusko Jaurlaritzaren "nagusigo-ikusmira" foru-aldundien gainetik.

Zerga itunduetatik eratorritako finantza-baliabideen banaketaren gainean lege-proposamenean egiten den erregulazioari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiaren ustez eliminatu egiten da Estatutuko 42.a artikulua araberako honetan Legebiltzarrean aurkeztu beharreko proposamenaren izaera bereziki itundua. Autonomia Erkidegoko udalen aurrekontuak finantzatze aldera Udal Finantziaiorako Funtz bat sortzeko beharizanaren inguruan, Gipuzkoako Aldundiak pentsatzen du badela jada lurralde historiko bakoitzean udal-finantziaiorako foru-funtz bat, dagozkien Batzar Nagusiek foru-arau bitartez sortua eta erregulatua.

3. Lege-proposamenaren xedapen-partean sartuz, Gipuzkoako Aldundiak uste du hautsi egiten dela Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako erakunde foralen artean ezarritako eskumen-ordena, eta hori oinarritzen du, laburbilduta, honako arrazoi hauetan:

Pentsatzen du ezen lege-proposamenaren 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuek, zeinek erregulatzen baitituzte lurralde historikoen instituzioak, urratu egiten dituztela Estatutuaren 3, 10.2, 24.2 eta 37.3.1 artikulua, zeinen kariaz lurralde historikoei baitagokie eskusiban beren erakunde pribatiboen antolaketa.

Bere ustez, lege-proposamenaren 5. artikuluko 1. apartatua, xedatzen duenez udalen eta gainerako toki-entitateen antolaketa instituzionala erabakiko dela toki-araubidea erregulatzen duten Estatutuko eta Autonomia Erkidegoko legeen bitartez, eta foru-arauak ez dituenek aipatzen toki-entitateen antolaketa erregulatzeko gai diren xedapenen artean, hala urratu egiten ditu lurralde historikoei legez errekonozitutako eskumen eskusiboak, urratzen ditu, zehazki, Estatutuko 37.3.c eta Lurralde Historikoen Legeko 7.a artikuluko 2. eta 3. apartatua, zeinen bertutez lurralde historikoetako foru-organismoek eskumen eskusiboa baitaude lurralde

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

historikoen mugarteak gainditzen ez dituzten udal eta udalez gaineko demarkazioen gaian, bai eta toki-entitate txikien arloan ere.

6. artikuluko 1. apartatuari dagokionez, non erakunde komunei esleitzen zaien “lege honetan” lurralde historikoei espresuki izendatzen ez zaien eskumen oro, gogora ekarri nahi du ezen lurralde historikoei eskumenak izendatzeko iturriak direla Konstituzioaren lehenengo xedapen gehiagarria eta Estatutuaren 37. artikuluko 3. eta 4. apartatuak. Halaber, uste du ezen 6. artikuluko 2. apartatuak Estatutuaren 25.1 artikulua urratzen duela, ezartzen baitu ezen “lege honetan lurralde historikoei eskumenak esleitzeak ez duela inola ere Eusko Legebiltzarraren legegintza-ahala mugatuko”.

Lege-proposamenaren 7. artikuluko 2. Apartatuaz den bezainbatean, pentsatzen du ez dela zuzenena ezta Estatutuko 41.1 artikularekin bateragarria baiestea “Ekonomia Itunaren Legean Estatuak eskumenak esleitzen dizkiela lurralde historikoei”, zeren Ekonomia Itunaren Legeak itun-izaera baitauka eta osaera parekideko Batzorde Misto baten baitan adosten da. Gipuzkoako Aldundiak auzitan jartzen du 4. apartatua ere, zeren lurralde historikoei beren eskumeneko dituzten ahalak zehaztean ez baitaio batere aipamenik egiten beren eskumen eskusiboko gaitan araugintza-ahala izateari. Errekurritu egiten da 5. apartatua ere, zeren, Gipuzkoako Aldundiaren ustez, lurralde historikoen eskumen eskusibokoak diren gaitan kanpoan utzi beharko bailitzateke, modu automatikoan, Eusko Legebiltzarraren legegintza-ahala.

Lege-proposameneko 8. artikuluen inguruan, zeinak erregulatzen baititu lurralde historikoen eskumen eskusiboak, alegatzen du mugatzen dela errepikatzena Estatutuko 37. artikuluko a) eta e) apartatuak, aipatu gabe Lurralde Historikoen Legearen 7.a artikulua jasotzen dituen gainerako gaiak, eta ondorioz, azken gai horiek, Lurralde Historikoen Legean gai eskusibo gisa tratatuta zeudenak, lege-proposamenean araugintza-garapeneko, administrazioko eta exekuzioko eskumenak izatera pasatzen dira 9. artikuluan. Gainera, toki-entitate txikien gaia, zeina Lurralde Historikoen Legearen 7.a.2 artikuluen kariaz lurralde historikoen eskumen eskusiboa baita, desagertu egiten da lege-proposamenaren 8. eta 9. artikuluetan, eta ondorioz gai hori erakunde komunuen eskumen eskusibo izatera pasako litzateke ekimen horren 6.1 artikuluan xedatutakoaren kariaz. Aurreikuspen hori Euskadiko udalei buruzko lege-proiektuaren 13. artikuluen kontra ere joango litzateke. Bestalde, 8. artikuluko 2. apartatuaren gainean, argudiatzen da ezen Eusko Legebiltzarraren lege batek ezin diela lurralde historikoei esan nola baliatu behar duten beren araugintza-ahala beren eskumen eskusibokoak diren gaitan.

Lege-proposamenaren 9. artikuluko 1. apartatuari buruz, Gipuzkoako Aldundiak alegatzen du ezen errepide eta bideen eskumena lurralde historikoen dela eskusiban Estatutuko 37.3.f artikuluen kariaz, Estatutuko 10.34 artikularekin erlazioan. Konstituzio Auzitegiaren 132/1998 epaiaren 4. zuzenbide-oinarria aipatzen da eta adierazten da ezen Estatuak ez duela jasotzen errepide bat Autonomia Erkidegoaren interes orokorreko deklaratzeko aukera, gai horren

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

gainean eskumena erakunde komunei izendatzeko. Era berean, argudiatzen da ezen lege-proposameneko 9. artikuluko 1. apartatuak ez duela batere aipatzen errepide bidezko garraioaren gaia, eta, aitzitik, Lurralde Historikoen Legearen 10. artikulua lurralde historikoei izendatzen dizkiela, gai honetan, Arabak bere lurralde barruan zituen ahalmen berak eta izaera berarekin, Estatuarekin indarrean zeuden hitzarmenei jarraituz.

Gipuzkoako Aldundiaren ustez, ez Estatutuan ez Ekonomia Itunean jasotzen da Autonomia Erkidegoaren zerga-sistemaren existentziarik; alabaina, lege-proposamenaren 12. artikulua Autonomia Erkidegoaren zerga-sistema du hizpide. Era berean, pentsatzen du ezen 12. artikuluko horren 1. apartatuak Estatutuko 41.2 artikulura egin beharko lukeela bidalketa edo erreproduzitu, hari fidelago izateko. Gauza bera planteatzen da 2. eta 3. apartatuez ere, zehazki "eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren artean" esapidea, eta orobat 4. apartatuaz ere, zeinak, Gipuzkoako Aldundiaren arabera, bai baitirudi murriztu nahi dituela lurralde historikoen zerga-eskumenak, bi kasuetan urratuz Estatutuaren 42.1.a artikulua.

13. artikuluko 1. apartatuaren aurreikuspenari dagokionez, zeinen arabera lurralde historikoei, zerga-harmonizazioa bermatze aldera, modu uniformean erregulatuko baitituzte zergen funtsezko elementuak, horri buruz alegatzen da ezen lege-proposamena ez dela zerga-lege bat, baizik eta Autonomia Erkidegoaren antolaketa instituzionalari buruzko legea; argudiatzen da ere ezen Estatutuko 42.1.a artikulua ez duela ezartzen zergak modu uniformean erregulatu behar direnik beren funtsezko elementuetan. Alegatzen da ezen manuaeren gainerako apartatuek "ohiz kanpoko" zaintza-sistema bat ezartzen dutela, lurralde historikoei zerga arloan duten araugintza-produkzioari jardueraren gainean Eusko Jaurlaritzak izan beharrekoa.

Bigarren kapituluaren inguruan, zeinak erregulatzen baitu erakunde komunak, lurralde historikoen eta udalen arteko lankidetzak, Gipuzkoako Aldundiak honako alegazio hauek egiten ditu:

14. artikuluko 1. apartatuari buruz, sostengatzen du Estatutuak ez diela erakunde komunei esleitzen foru-organoen jardueraren koordinaziorako inolako titulu espezifikorik, eta ondorioz bi instituzioek berdintasun eta elkarrekikotasun planoan jardun beharko dute. 3. apartatuari dagokionez, lege-proposamenaren 13. artikulua alegatutakora egiten du bidalketa. 4. apartatuaz den bezainbatean, uste du ezen Estatutuaren 41.2 artikulua, Estatuarekin eta lurralde historikoei beren artean izan beharreko koordinazio, zerga-harmonizazio eta lankidetzako irizpideak aipatzean, zergen erregulazioaz ari dela (a) apartatua), ez zergen ordainarazpen, kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapenaz.

15. artikuluari dagokionez, eragozpena jartzen da "bertikal" adjektiboaren inguruan, zeina erabiltzen baita artikuluen izenburuan, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko gorbarnuarterko lankidetzaz aritzeko, zeren harreman horiek, Aldundiaren arabera, ez dute jarraitzen hierarkia-irizpidea, baizik eta eskumen-irizpidea.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Gipuzkoako Aldundiak alegatzen du ezen lege-proposamenaren 16. artikuluan kendu egiten zaiola Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari zerga itunduen kudeaketatik eratorritako baliabideak banatzeko daukan funtzioa, bai eta lurralde historiko bakoitzak Ogasun Nagusiarri ondorioz egin beharreko ekarpenen kalkularena ere, funtzio horiek aurreikusita baitaude Estatutuaren 42.a artikuluan, eta, aitzitik, bestelako batzuk ematen zaizkiola (1. apartatua) eta kontseiluaren osaeran euskal udalen hiru kide sartzeko direla (13. apartatua). 1. apartatuaren inguruan, 13. eta 14. artikuluen gainean esandakoari egiten dio bidalketa. 3. apartatuaren gainean, jartzen duen eragozpena da Estatutuak ez diola Eusko Legebiltzarrari eskumenik ematen zerga-iruzurraren kontrako plan bat onesteko, zeren hori lurralde historikoen eskumen eskusiboa baita Estatutuaren 41.2.b artikuluen bertutez. 13. apartatuaz den bezainbatean, lege-proposamenaren 22.1 artikuluari buruz egindako alegazioetara egiten du bidalketa.

Lege-proposamenaren 17. artikuluko 3. apartatuaz, alegatzen da oso zaila dela foru-ogasunen arduradunek beren artean kolaboratzeko egin beharra, zergen funtsezko elementuen erregulazio harmonizatua bermatze baldera, baldin eta zerga-arau fiskalen onespina Batzar Nagusiei badagokie, eta uste du xedapen honek Estatutuaren 41.2.a artikulua urratzen duela. 4. apartatuaren inguruan, erreproduzitu egiten da lege-proposamenaren 13. eta 14. artikuluetarako alegatutakoa.

Lege-proposamenaren 18. artikuluari dagokionez, zeinak Eusko Jaurlaritzari esleitzen baitio Autonomia Erkidegoaren legeen exekuzioaren kontrola 9. artikulua lurralde historikoei izendatzen dizkien gaietan, alegatzen da zaintza hori onartezina dela eta Estatutuaren 38. artikuluen kontrakoa.

III. kapituluari dagokionez, zeinak erregulatzen baititu Euskadiko ogasun publikoak bai eta finantza-baliabideak erakunde komunen, lurralde historikoen eta udalen artean banatzea, Gipuzkoako Aldundiak honako alegazio hauek egiten ditu:

19. artikuluko 1. apartatuaz den bezainbatean, zeinak aldarrikatzen baitu Autonomia Erkidegoaren, lurralde historikoen eta udalen finantza- eta aurrekontu-autonomia "Autonomia Estatutuaren, lege honetan jasotako xedapenen eta aplikatzekoak diren gainerako legeen esparruan", uste da Estatutuko 37.3.b artikuluen kontrakoa dela, zeinak lurralde historikoei eskumen eskusiboa errekonozitzen baitie beren aurrekontuak egiteko eta onesteko. Lege-proposamenaren 3. apartatuak exijitzen du uniformeki erregulatzeko zerga batzu eta besteen funtsezko elementuak; xedapen horren kontra, Aldundiak argudiatzen ditu 13. eta 14. artikuluen kontra aritzeko erabili dituen argudio berak.

5. apartatua dela eta, argudiatzen da ezen, Lurralde Historikoen Legeko 15.2 artikuluan ez bezala, lege-proposamenak ez duela inolako aipamenik egiten Finantza Publikoen Euskal Kontseilua izatea ezarri behar dituen irizpide

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

homogeneoak aurrekontu-prozeduraren eta kontabilitate publikoaren arloan, eta ondorioz, Aldundiaren ustez, urratu egiten da Estatutuaren 37.3.b artikulua.

Orban bera argudiatzen da 20. artikuluko 4. apartatuaren kontra, zeinak hizpide baititu Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bertako udalen ogasun publikoak.

22. artikuluari dagokionez, aipatzen da ezen 1. apartatuak urratu egiten dituela lurralde historikoek udal-finantziazioaren arloan dauzkaten eskumenak, zeren erregulatu egiten baitu finantza-baliabideen banaketa, baita bere lurraldean kokatutako udalen toki-ogasunena ere. Bere defentsan alegatzen du ezen Lurralde Historikoaren Legeko bigarren xedapenenaren 1. apartatuaren arabera foru-aldundiak direla bere lurraldeko udalen gainean finantza-babeseko ahalmenak gauzatzea esleituta daukatenak, horien artean zerga itunduetatik eratorritako baliabideen banaketa. Baita ere aipatzen dira Ekonomia Itunaren Legea, Toki Araubidearen Oinarrien Legea (bigarren xedapen gehigarriko 6. apartatua), Toki Ogasunen Legea, 2/2004 Erregearen Legegintza Dekretuz onetsitako testu bategina (zortzigarren xedapen gehigarriko 1. apartatua). Gipuzkoako Toki Ogasunak Erregulatzeko Foru Araua (11/1989, uztailaren 5ekoa), Udal Finantziaziorako Foru Funtza Erregulatzeko Foru Araua (15/1994, azaroaren 23koa) eta azkenik, Euskadiko udalen lege-proiektuaren 107. artikuluko 1. apartatua. 2. apartatuak aurreikusten du banaketa horretarako kalkulurako kanpoan uztea toki-zergetatik eratorritako baliabideak, zeinen erregulazioa eta ordainarazpena foru-aldundiei baitagokie. Gipuzkoako Aldundiaren ustez, baliabide horiek kontuan eduki beharko lirarteke, hala ere, lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahalegina kalkulatzeko aldera, zeina hizpide baitu lege-proposamenaren 23.2 artikulua. Aipatzen da, argudio indargarri modura, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 19an hartutako Akordioaren 15.1.b artikulua.

Lege-proposamenaren 23. artikuluari buruz, zeinak erregulatzen baititu lurralde historikoen ekarpenak, esaten du urratu egiten duela lurralde historikoek udal-finantziazioaren arloan daukaten eskumen eskusiboa, zeren aurreikusten baitu ezen foru-aldundi bakoitzak euskal udalen aurrekontuetara egin beharreko ekarpena lege horretan bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dela. Gipuzkoako Aldundiak dio ere 23. artikuluko 3. apartatuak Estatutuko 42.a artikulua urratzen duela, zeinak exijitzen baitu ezen lurralde historiko bakoitzak Euskadiko aurrekontu-gastuetara egin beharreko ekarpenak zehazteko erabili behar diren banaketa ekitatiboko irizpideak ezartzerakoan modu itunduan jokatu behar dela ("adostu"). Lurralde historikoen Legeko 22.8 eta 29. artikuluetan ez bezala, lege-proposamenak ez du inolako aipamenik egiten irizpideak aurretiaz Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onesteari. 4., 5., 6. eta 7. apartatuak 1. apartatuaren urraketa berean erortzen dira Aldundiaren ustez; 6. apartatuak kanpoan uzten du beharrezkoa den Finantzen Kontseiluaren aurretiazko akordioa eta Jaurlaritzari baimena ematen dio zuzenean Eusko Legebiltzarrean aurkezteko baliabideen banaketarako metodologiari eta foru-aldundi bakoitzak Erkidegoko Ogasun Nagusiarri eta Udal Finantziaziorako Funtzari egin behar dion ekarpenaren zehaztapenari buruzko lege-proiektua. Aukera horren kontra, esaten da ezen Konstituzio Auzitegiak apirilaren 26ko 76/1988 epaian ezarri

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

zuela ezen Estatutuko 42.1 artikuluko "adostu" hitzak adierazten duela borondateen batasun edo akordio bat exijitzea erakunde komunen eta lurralde historikoen artean, zeina foru-erregimenaren muinaren osagai bat baita. Era berean, aipatzen da Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 31eko 27/2000 epaia, hizpide duena ezen lege-proiektuaren itun-izaerak zilegitu egiten duela izapidetza parlamentarioaren berezitasuna, zehazki irakurraldi bakarreko prozedura, zuzenketarik aurkeztu gabekoa.

Eragozpena jartzen da, orobat, 24. artikuluko 2. apartatuaren kontra, 22. artikuluaen kontra argudiatutako arrazoi berengatik.

Azkenik, Aldundiak uste du ezen lege-proposamenaren 27. artikulua, zeinak erregulatzen baitu udal-finantziatorako funtsa sortzea bai eta Eusko legebiltzarrak funts hori osatzen duten baliabideen banaketako irizpideei buruz legea egitea, inbaditu egiten duela lurralde historikoei udal-finantziarioaren arloan daukaten eskumena eta muturra sartzen duela araugintzako foru-ahalean.

6. Euskadiko Toki Erakundeek Legea indarrean sartzearen ondorioz Arbitraje Batzordeak egindako helarazpena betez, Gipuzkoako Aldundiak uste du ezen lege horrek indartu egiten dituela planteatu duen arazoari eusten dioten argudioak. Hartarako zentratzen da Euskadiko udalen lege-proiektuko 5., 8., 9., 16., 20., 22., 23. eta 27. artikuluetan eta horiek erlazioan jartzen ditu Euskadiko Toki Erakundeek Legean aplikatzekoak direla uste duen manuekin. Azkenik, eskatzen du har dadila erabaki bat planteatutako eskumen-arazoan adierazitako eran.

LAUGARREN.- 1. Arabako Foru Aldundiak 4/2015 eskumen-arazoa planteatu du lege-proposameneko artikulua hauen inguruan: 1. artikulua, 2. artikulua, 4. artikulua, 6. artikulua, 7. artikuluko 1., 2., 4. eta 5. apartatuak; 8. artikulua, 9. artikuluko 1., 2. eta 4. apartatuak, 12. artikuluko 1., 2. eta 4. apartatuak, 13. artikulua, 14. artikulua, 16. artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 12. apartatuak, 17. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 18. artikuluko 1. eta 4. apartatuak, 19. artikuluko 3. apartatua, 20. artikuluko 4. apartatua, 22. artikuluko 5. apartatua, 23. artikuluko 4., 5., 6. eta 7. apartatuak, 24. artikuluko 2. apartatua, 26. artikuluko 2. eta 3. apartatuak, eta 27. artikulua.

Laburbilduta, Arabako Aldundiak erabilitako oinarriek eta argudioek dimentsio bikoitza daukate. Izaera orokorreko dimentsio edo ikuspegi bat, gogora ekarriz ezen foru-erregimena beraren "berme instituzionalak" babestuta dagoela, zeina ezarrita baitago Konstituzioan, eta hortik muga batzuk eratortzen direla legegilearen antolaketa-askatasunerako. Eta dimentsio espezifikoa edo konkretuagoa, horren arabera auzitan jartzen direlarik xeheki lege-proposamenaren testuko zenbait artikulua.

2. Ikuspegi orokor batetik, idazkiak gogoratzen du, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 26ko epaian espresuki oinarrituz, ezen foru-erregimena beraren berme

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

instituzionalak babestuta dagoela, zeina ezarrita baitago Konstituzioan lehenengo xedapen gehigarrian, eta babes hori iristen dela bai erregimen horren existentziara berera bai bere funtsezko ezaugarrien preserbaziora ere, sozialki errekonozitua izateko gutxiengo murriztuezina –eta ondorioz ukiezina– osatzen duten ezaugarriak.

Foru-erregimen horren irudia osatzen duten eskubide historikoak babestu eta errespetatu egiten ditu Konstituzioak eta eguneratu egin daitezke haren eta Autonomia Estatutuaren markuan. Ondorioz, aurreikuspen konstituzionalak (berme forala barne) eta estatutarioak (foru-berme horren edukia 37. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan zehazten duten aurreikuspenak barne) eguneraketaren muga dira.

Arabako Aldundiak, era berean, uste du lege-proposamenak Lurralde Historikoen Legearen (27/1983, azaroaren 25ekoa) zenbait aldaketa jasotzen dituela, eta horiek, “ez direnez gutxienerako eran oinarrituta artikulatzen”, ez dute betetzen, Arbitraje Batzordearen azaroaren 3ko 5/2003 erabakiaren arabera, Lurralde Historikoen Legean ezarritako eskumen-banaketako erregimenaren aldaketa orok bete behar duena. Hau da, Lurralde Historikoen Legean eskumen-banaketari dagokionez ezarritako eskema eta edukiak eskatzen du, ikuspuntu formal batetik, Eusko Legebiltzarrak emandako lege-mailako arau bat, artikulatuko duena modu zuzen, espresu eta oinarrituan aldaketa hori, zeren bestela Lurralde Historikoen Legea bera Euskal Autonomia Erkidegoan duen “oinarrizko eskumen-txertaketa”ko bere funtzio propiorik utziko bailitzateke.

3. Arabako Aldundiak egiten du ere lege-proposamenaren azterketa xehaminoitu bat, adieraziz badirela bertako manu konkretu batzuk indarreko eskumen-erregimena urratuko luketenak.

1. artikuluari dagokionez, Aldundiak uste du proposamenak erasotu egiten duela jada aipatu den foraltasunaren muin ukiezina, zeren muturra sartzen baitu lurralde historikoek bere barne-antolaketa, erregimena eta funtzionamendua ezartzeko daukaten eskumen eskusiboan, zeina jasota baitago Estatutuko 3., 34.2, 37.1 eta 37.3 artikuluetan.

2. artikulua inguruan, Aldundiak uste du hark ere inbaditzen duela foraltasunaren muin ukiezina, aurreko artikuluari buruz adierazitako eran, zeren lege-proposamenak erregulatzen baititu Autonomia Erkidegoaren eta lurralde historikoen arteko gobernuarteko harremanak (bai eta bertan kokatutako udalekikoak ere), eskumen-titulurik izan gabe askatasun osoz ezartzeko barne-antolaketaren gauzapena eta hartaz erabakiak hartzeko.

4. artikuluari dagokionez: 1. apartatuak urratu egiten du LLHHen eskumen eskusiboa beren instituzio propioen antolaketa, erregimen eta funtzionamenduaren arloan (EHAeko 37.3 artikulua), foru-aldundien osaketa zehazten duelako (ahaldun nagusiak eta foru-ahaldunek osatuko dutela dio). Bestalde, 2. apartatuan “estatutuaren testuaren [EHAeko 3. artikulua] eta lehendik badiren eskubide historikoen errekonozimenduaren urraketa argi bat dago”, zeren “gorde” hitza

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

kendu baita (eta "autogobernurako erakunde pribatiboak berrezarri edo eguneratu" besterik ez baita esaten). 3. apartatua desegokia da Estatutuaren ikuspegitik, zeren apartatu horrek zenbait lege autonomikoren mende jartzen baitu LLHHen antolatze gaitasuna, kontuan hartu gabe foru-erakundeen antolaketa foraltasunaren gune ukiezinaren zati bat dela (EHAeko 25.1 eta 37. artikulua).

6. artikuluari buruzko desadostasunak (autonomia-erkidegoko erakunde komunen eskumenak) honako puntu hauetan daude: artikuluko lehenengo apartatuak bere gain hartzen du LLHHen eskumenen esleipena, alde batera utziz esleipen horren jatorria Espainiako Konstituzioa eta EHA (37. artikulua) direla. Bigarren apartatuak, bere aldetik, Eusko Legebiltzarrari ematen dio legegintza-agintea LLHHei dagozkien gaietan ere, eta, beraz, ez ditu kontuan hartzen EHAeko 25. eta 37.3 artikuluetan lurralde horietako foru-legegileari gordetako eskumenak.

AFAren iritziz, 7. artikulua bere gain hartu eta bere egiten du LLHHen eskuduntzak zein diren erabakitzeko gaitasuna, eta ahaztu egiten du -beste behin ere- EKn onartutako eta EHAEn (37.3 eta 41. artikuluetan) gaurkotutako eskubideetan oinarritutako eskumenak direla. Laugarren eta bosgarren apartatuek Eusko Legebiltzarrari ematen diote legegintza-eskumena foru-eskumen eskusiboko gaietan, edo ez dute haren eskumena baztertzen (EHAeko 25.1 eta 37.3 artikulua urratuz).

8. artikuluari dagokionez, AFAk uste du ezen lehenengo apartatua ez litzatekeela EHAeko 37.3.f artikulua egokituko, EHAeko beste manu batzuetan foru-organoei esleitutako eskumen eskusiboak alde batera uzten dituelako eta, era berean, beste eskumenen eskualdaketaren bidez foru-erregimena zabaltzeko aukera aipatzen ez duelako. Bigarren apartatuak Estatutua urratzen du, zeren ez baitu errespetatzen LLHHei beren eskumen eskusiboko gaietan arautzeko duten gaitasun osoa (lege-proposamenaren 6.2 eta 7.4 artikuluei buruzko argudiaketa igortzen da).

9. artikulua aztertzeari ekinen diogu. AFAren ustez, lehenengo apartatuak LLHHen araudia lantzeko, administratzeko eta betearazteko eskumen gisa aipatzen ditu indarrean dagoen LHLk horiei esleitzen dizkien eskumen eskusiboetako asko. Haren ustez, adierazgarria da eskumen ez eskusibotzat jotzea errepide eta bideei dagokiena, eta, beraz, urratu egiten da -Arabaren kasuan, bederen- Konstituzioaren aurretik dagoen eta Konstituzioak berak eta EHAek onartu eta babestutako eskubide historiko bat (EHA, 10.34 artikulua). Bigarren apartatuak LLHHen gaitasun arauemailea mugatuko luke, eta EHAko lege-indarreko xedapenen eta erregelamenduzkoen arau bidezko garapenera eta exekuzio eta gestio administratiboko funtzioetara murriztuko lituzke foru-organoen eskumen eskusiboak diren gaiak. Laugarren apartatuak, berriz ere, AFAren esanetan betiere, lege-proposamen hau hartzen du LLHHei eskumenak esleitzeko jatorrizko iturritzat.

12. artikuluari dagokionez, lehenengo apartatuak EHA urratzen du, tributu-eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen Legeak (EIL), eta ez EHAeko 41.2 artikulua, esleitzen dituela uste izateagatik zein existitzen ez den "autonomia-erkidegoko zerga-sistema" bat aipatzeagatik, foru-

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

organoen tributu-sistema bat aipatu ordez. Bigarren apartatuak murriztu egiten ditu LLHHei bere tributu-sistemak aplikatzeko dituzten ahalmenak, tributuak "ordainarazteko eta kudeatzeko" eskumenera mugatuz, "kitatuko, bilduko eta ikuskatuko" dituztela dioena alboratuz (41.2.b EHAE). Laugarren apartatuak EHAE urratuko luke, uste izateagatik EILk LLHHei emandako eskuduntzak tributuen eremura mugatzen direla, eta ez finantzen alorrera ere (EILk berak eta EHAEk ere, 41.2.d eta e artikuluetan, adierazten duten bezala).

AFArek arabera, lege-proposamenak 13. artikuluan egiten duen harmonizazio fiskalaren erregulazioak EHAEko 41. artikulua urratzen du (baita EILko 1, 2 eta 3. artikulua eta Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunari buruzko 3/1989 Legearen 2. artikulua ere), uste izateagatik LLHHen tributu-ahala EILtik datorrela eta ez EHAEtik; eta parekatu egiten dituelako zergen funtsezko elementuen "erregulazio uniforme" baten mandaturak –harmonizazio fiskala bermatze aldera- eta horien "erregulazio bera", eta bestelakoak edo desberdinak izan daitezkeen arauak, EAE osoan presio fiskal baliokide bera bermatzen dutenak, egotea eragozten duelako. Horrekin batera, aipatu artikulua kontraesanean dago EHAEko 41.2.a artikuluekin (eta EILko 2.4arekin), euskal gobernuari esleitzen baitio tributuen funtsezko elementuen erregulazio bera egiteko LLHHen betebeharra zaintzeko eginkizuna, nahiz eta eginkizun hori ezin den sartu edo identifikatu aipatu arauak Eusko Legebiltzarrari esleitzen dizkioten harmonizazio-, koordinazio- edo lankidetz-ahalmenen artean, eta are gutxiago uler daitezkeen gobernu autonomoari bakarrik esleitzen zaiola.

14. artikulua gobernu arteko lankidetzaren arautzen du. Modu sintetikoan adierazita, AFAk uste du ezen lege-proposamenak Estatutua urratzen duela, zeren erakunde komunekiko koordinazio eta lankidetzarako berme bat ezartzen baitu, zeinaren bidez uler daitezkeen erakunde horiek gaituta daudela LLHHen jardura kontrolatu eta gidatzeko, lurralde horiek eskumen eskusiboak dituzten eremuetatik haratago ere (LLHHen antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari lotutako alderdiak; ahal araugileak tributuen alorrean; tributuak kudeatzeko funtzioak).

Finantza Publikoen Euskal Kontseilua 16. artikuluan aurreikusita dago. Idazkiaren arabera, lege-proposamena ez dago Estatutura egokituta, zeren LLHHen tributuen alorreko eskumen araugileak hustu egiten dituen (Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren alde, tributuen arauak harmonizatua bermatze aldera); EHAEko 41.2.b artikulua arabera aipatu lurraldeek tributuak aplikatzeko dituzten eskumen eskusiboak inbaditzen baititu (modu nabarian lruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planari buruz ezarritakoan); edo aurrekontuen alorrean duten eskumen eskusiboa urratzen dituelako (EHAEko 37.3.b artikulua).

17. artikulua aztertzeari ekingo diogu. Lehenengo apartatuak urratu egiten du LLHHei beren antolaketa, funtzionamendua eta erregimen juridikoa ezartzeko duten eskumen eskusiboa (EHAEko 3, 24.2, 37.1 eta 37.3.a artikulua), aldundien arteko harremanen eremuan sartzen delako. Beste alde batetik, hirugarren eta laugarren apartatuak (14. artikuluari buruz esandakoaren ildo beretik) Estatutuaren aurka

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

egongo lirateke, LLHHeK tributuen antolaketa, ahal araugile eta gestioaren alorrean dituzten eskumenak arautzen dituelako, foru-ogasunen artean gobernu arteko lankidetzaz bermatu nahi dutelako (37.3.a eta 41.2.1 eta b).

AFAren arabera, 18. artikuluari dagokionez, EHAEn ez dago -lehenengo apartatua adierazitakoaren aurka- ezein oinarri juridikorik Eusko Jaurlaritzari esleitzen diona LLHHen Autonomia Erkidegoko legeak betetzeko modua kontrolatzeko eskumena. Beste alde batetik, laugarren apartatua adierazitako mekanismoa sartzeak urratu egingo luke LLHHen antolaketa, erregimen eta funtzionamendurako eskumen eskusiboa, 3. eta 37.3.a artikuluetan onartutakoa.

19. artikuluari dagokionez, AFAren iritziz, artikulua hiru garren apartatuak urratu egiten du EHAEn 41.2.a artikulua, errepikatu egiten baitu LLHHen tributuen gaineko eskumena lege-proposamenari jarriki erabili behar dela, baita tributuen funtsezko elementuen erregulazio uniformea exijitzeagatik ere (13 eta 14. artikuluetan emandako arrazoiei dagokie).

20. artikulua Zuzenbidearen kontrakoa da, adierazten baitu zelan zehaztu aurrekontu-prozedurari eta kontabilitate publikoari buruzko irizpideak (erakunde komunek erabili dituztenekiko homogeneoak), eta nola egin -egungo LHLak ez bezala- modu inperatiboan eta Dirubideen Euskal Kontseiluaren esku-hartzea ezabatuz; laugarren apartatuak hautsi egiten du LLHHen eskumen eskusiboa beren aurrekontuak lantzeko eta onesteko.

22. artikuluari buruzko kritikaren gaia da baliabideak banatzeko sistematik kentzen direla tokiko tributuetatik datozenak (Ekonomia Itunaren barruan daudenak), artikuluko bigarren apartatua adierazita dagoen bezala, eta, hortaz, EHAEn 42.a artikulua kaltegarritzat jotzen da (artikulu horren arabera Eusko Legebiltzarren lege batek ezarri behar ditu LH bakoitzaren ekarpenen bidezko banaketarako irizpideak, hain zuzen ere indarrean dagoen 2/2007 Legeak egiten duena, zeinak tokiko diru-sarrerak sartzen dituen LH bakoitzaren ahalegin fiskala zehazteko).

23. artikuluari dagokionez, laugarren eta bosgarren apartatuek, udalen parte-hartzearen koefizientea (Ekonomia Ituna osatzen duten tributuetatik datozen baliabideen banaketari dagokiona) zehazterakoan eta udalerrien arteko banaketarako irizpideak ezartzerakoan, EHAEn 41 eta 42. artikuluek urratzen dituzte, zeren horretarako (baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko) alde aurreko edo itundutako akordioaren baldintza ezabatzen duten. Itundutako tributuek sorrarazitako diru-sarreretan udalek duten parte-hartzeari dagokionez, AFAren ustez, gainera, erakunde komunek ez dute eskumenik gai hori arautzeko. 6 eta 7. artikuluek 42.a eta 37.3.b artikuluek urratzen dituzte, zeren, hurrenez hurren, (baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko) aipatutako alde aurreko akordioaren betekizuna ezabatzea eta aurrekontuak lantzeko eta onartzeko eskumen eskusiboarekin talka egitea baitakarte.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

24. artikuluan, bigarren apartatuko Udal Finantziatorako Funtsari buruzko aipamenak Estatutua urratzen du, zeren -23. artikuluan bezala- itundutako tributuetatik eratorritako diru-sarreraren banaketari buruzko itunaren beharra ezabatzen baitu.

AFAren arabera, 26. artikuluan EHAEko 42.a artikulua urratzen da, Lurralde arteko Parekatze Funtsa sortzen delako, aipatu artikuluan aurreikusten den (aurrekontu gastuei buruzko) alde aurreko akordiorik gabe.

Azkenik, 27. artikuluan ez da aipatzen LLHHen gain horri buruzko alde aurreko akordioa, EHAEko 42.a artikulua eta 76/1988 KAEko konstituzio-doktrina urratuz.

4. 1/2015, 2/2015 eta 3/2015 eskumen-arazoak, baita 4/2015a ere, 1/2015arekin batzearen alde agertzen da AFA, zeren eta eztabaidatu beharreko ebazpenak bat baitatoz eta, horien edukia ikusita, aurkeztutako eskumen-arazoei erantzen zaie. Horiei buruzko arazoiketaren gune nagusia BFAk aurkeztutako 1/2015 eskumen-arazoa helaraztearekin batera egiten du.

AFA "erabat ados dago" BFAk aurkeztutako eskumen-arazo honekin, eta berak lege-proposamenaren artikuluei buruz aurkeztutakoarekin "ia guztiz bat datorrela" uste du.

BFAren eskumen-arazoari (CC 1/2015) buruzko alegazio-idazkian AFAk, modu laburtuan, darabilen oinarria hau da:

Gogora ekartzen da erakunde komun en eta foru-organoen barne-antolaketa instituzionalak eta haien arteko eskumenen banaketak gogoan hartu behar dutela foru-erregimenaren bermea, zeina datorren bai EKren 1. xedapen gehigarriaren eskubide historikoekiko babes eta errespetutik bai Autonomia Estatutuak lurralde historikoei bermatzen dizkien eskumenetatik, zeinak muga gaindiezinak bihurtzen diren legegile estatal eta autonomikoarentzat, 76/1988 KAEk dioenez.

LLHHek zenbait eskumen bermatuta dituzte EHAEn, zeinak foraltasunaren gune ukiezina diren; eta horien artean dira, bertan espresuki onartutako eskumenez gain, hau da, izendatutakoez [37.3 artikulua en a)tik e)ra arteko azpiapartatuak] eta EHAEn zehaztutakoez gain, transferituko zaizkion beste guztiak ere.

Zehazkiago esanda, AFAk dio ezen lege-proposamenak EKren eta EHAEn eskumen-sistema azpikoz goratzen duela, arrazoi hauengatik:

1. foru-eskumenen jatorrizko iturria eta iturri bakarra dela dio (bere buruaz), aintzat hartu gabe eskumen horiek aipatu EKren 1. xedapen gehigarritik eta EHAEtik datozela;

2. ez du kontuan hartzen, behin eta berriz, LLHHek eskumen eskusiboa dutela beren erakunde en barne-antolaketa, erregimena eta funtzionamenduari dagokionez (EKren 1. xedapen gehigarria eta EHAeko 3, 24.2, 25.1, 37.1 eta 37.3 artikulua), eta

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

Eusko Legebiltzarrari esleitzen dio;

3. onartzen du Eusko Legebiltzarrak legegintza-ahala duela foru-eskumenekoak diren gaitan, eskumen eskusibokoak diren ala ez bereizi gabe;

4. nabarmen murrizten ditu Konstituzioak eta Estatutuak LLHHei onartutako eskumenak, zeren ez baititu eskusibotzat jotzen EHAEn adierazitakoak (horren 37.3 artikuluan eta beste zenbait manutan), ezta LLHHek erabiltzen ari ziren eta indarrean dagoen LHLak, lehendik baziren eskubide historikoak direlako, onartutako beste batzuk ere, kolpe batez ezabatzen duelarik gai horietan duten gaitasun legegilea, zeina geratzen baita erakunde komunek emango dituzten lege-mailako xedapenen eta erregelamenduzkoen arau bidezko garapen hutsera mugatuta, baita betearazte-eta kudeatze-funtzioetara ere;

5. hainbat modu sartzen ditu lege-proposamenak gai askotan LLHHei esleitzen dizkien arauak garatzeko eta betearazteko eskumenen gaineko kontrol zuzena eta hierarkikoa egiteko, eta horrek legez kanpoko esku-sartzea eta foru-lurraldeek arauak betearazteko autonomia galtzea eragiten ditu; 6. tributuei (eta aurrekontuei) dagokienez: larriki murrizten da LLHHei onartutako tributu-sistemak aplikatzeko ahala; beharrezkoa den koordinazio-printzipioari buruzko aipamenak erabiltzen dira LLHHen jardura gidatzeko gaitasuna emateko; eta harmonizazio-printzipioari buruz egindakoak tributuen funtsezko elementuen arauketa berdina edo berbera inposatzeko; mugatu egiten dira tributu-eskumenak tributuen ordainarazpenari eta kudeaketari dagozkienetara; edo foru-eskumenak urratzen dira finantza-baliabideen banaketari eta ekarpenak zehazteari dagokienean, aldeztu aurreko edo itundutako akordioaren betekizuna ezabatzen delako.

5. Azkenik, aipatzeke daude AFaren zenbait alegazio, ETEL onartu ondoren Arbitraje Batzordeak 2016ko maiatzaren 10ean hartutako Ebazpena dela-eta irekitako audientzia-tramitearen ondorioz egindakoa.

AFAk gogora dakar, hasteko, aurretik aipatutako beste alegazio batzuekin bat eginez, ezen lege-proposamenarekin alderatzeko judizioa EHAerekiko egin behar dela, eta ETEL indarrean sartzeak ezin duela EHAek ezarritako eskumen-ordena inolaz ere aldatu.

Beste alde batetik, BFArekin ere bat etorritik, ulertzen du ezen erakunde komunak LLHHekin koordinatzeko eskumena posible dela soilik baldin eta gai horri buruz haiei esleitutako eskumen-titulu espezifiko bat balego.

Hortik aurrera, AFaren azterketa zentratuta dago bere ustez zehazki ETELekin zerikusia duten lege-proposameneko manuetan, eta ondorioztatzen du uler daitekeela 14. artikuluko 1. apartatua EHAerekin bat datorrela, baldin eta interpretatzen bada foru-erakundeentzako obligazio berririk sortzen ez dela, udal-autonomiari datzekion printzipio bat jaso besterik ez duela egiten, zeina den toki-

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

ordezkariak aukera izango dutela eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko. Berriz ere, BFAk egindako alegazioaren oso antzekoa da.

Azkenik, aplikatzekotzat jotzen dituen ETELeren manuak baliatuta, berriz ere adierazten du ez datorrela bat lege-proposamen polemikoaren 16. artikuluko 4. apartatuarekin; 22. artikularekin; 23. artikularen 4 eta 5. apartatuekin; 24. artikularen 2. apartatuarekin eta 27. artikularekin.

BOSGARRENA.- 1. Eusko Jaurlaritzak (aurrerantzean EJ) 2016ko urtarrilaren 7ko sarrera-data duen idazkian aurkeztutako alegazioen xedea da Arbitraje Batzordeak honako hau adieraz dezala:

- a) “Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionalari” buruzko lege-proposamenaren 4.3; 6.2; 7.2 eta 7.5; 8.1; 9.1.1; 12.1, 12.2 eta 12.4; 14.4; 16.3; 18; 20.4; eta 23. artikulua Estatutuaren markoaren kontrakoak direla eta ez direla egokitzen hartatik datorren eskumen-banaketara.
- b) Eta 1; 6.1; 13.1; 14.3; 15 eta 17. artikulua ez dira Estatutuaren markoaren kontrakoak, baldin eta bere alegazio-idazkian azaldutakoaren arabera interpretatzen badira.

2. Alegazioen hasieran 1979ko Gernikako Estatututik datorren EHAeko eredu instituzionalaren azalpen laburra egiten da, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriari eta Estatutuak eredu hori garatzeko aurreikusten dituen legeei begira; laburpena zentratuta dago, funtsean, erakunde komun eta foru-erakunde artean eskumenak banatzeko aurreikusitako sisteman, eta, ondoren, manu bakoitza aztertzeari ekiten dio.

EJren iritziz, 1979ko Gernikako Estatutuan diseinatutako EAEko eredu instituzionala lurralde-botere ezberdinen orekaren bidez eratzen da, hau da, Euskal Herriko erakunde komun eta LLHHen artean, non batera existitu eta artikulatu behar diren Eusko Legebiltzarri esleitutako monopolio legegilea (EHAeko 25. artikulua) eta LLHHen foru-erreserbaren eremuarekiko errespetua eta bermea (EHAeko 37. artikulua), betiere euskal sistema instituzionalaren berezko printzipioen arabera, hau da, LLHHen foraltasunaren irudia gordetzea, lankidetzeta eta koordinazio instituzionalaren printzipioa eta segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera.

EJren iritziz, eskumenen banaketa da euskal botere publikoen arteko oreka instituzional hori artikulatzeko mekanismoetako bat, non LLHHei dagozkien eskumen-mota bi aurreikusten diren (76/1988 KAE, 6. OJ):

- a) Estatututik zuzenean eratorritako eskumen eskusiboak.
- b) Erkidegoko botereen jardura jakinen bidez zehaztu beharko diren eskumenak. Eskumen hauek eskumen «esklusiboak» izan daitezke baldin eta, EHAeko 37.3.f artikuluari jarraiki, Estatuak edo erakunde komunek izaera horrekin transferitzen badizkiete; edo “Eusko Legebiltzarrak zehaztu ditzan gaietan, arau bidez garatu eta beren lurraldean betearaztea” dakarten eskumenak izan daitezke

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

(EHAeko 37.4 artikulua). Eskumen horiek osatzen dute foraltasunaren hedatze-eremu gisa ezagutzen dena.

Ejk Gernikako Estatutuan foraltasunaren funtsezko muina osatzen duten eskumenak zentratzen ditu Estatutuaren 3. artikuluan (bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde edota, hala dagokionean, biziberritu eta eguneratzeko eskumenak), 10.34an (bideak eta errepideak), 24.2an (beren foru-erakundeak gorde eta antolatzea, Estatutuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat), eta 37.a, b, c, d, eta e letratan eta f letrako lehenengo tartekian eta 41. artikuluetan jasotakoetan.

Foraltasunaren gune ukiezina osatzen duten LLHHen eskumen horiek guztiek foraltasunaren berme instituzionala dute. Foraltasunaren berme instituzional hori 1978ko Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren 37.2 artikulua ondu zuzena da.

Muin ukigaitzetik haratago, Estatutuan EJrentzat eskumenak banatzeko aurreikusitako sistema irekia eta malgua da, aukera ematen du LLHHen eskumen-sorta handitu edo txikitzeko, Eusko Legebiltzarraren lege arrunt baten bidez, horri dagokionez LLHHei buruzko 27/1983 aipatuz.

Ejk gogora ekartzen du euskal sistema instituzionalak baduela ere bere arkitektura instituzionalaren printzipio gidarieratik zerbait eta, beraz, hori ezin dela ulertu Gernikako Estatutuak ezarri duen eta une oro bilatzera derrigortzen duen botereen arteko orekaren kalterako. Esklusibotasun nozioari eman nahi zaion edukia ezin da erabili LLHHen foraltasunaren bermearen kalterako, hots, foraltasunaren gune ukiezinen kontra egiteko, ezta Eusko Legebiltzarrari esleitutako monopolio legegilearen eta erakunde komunei dagozkien aginte-funtsaren aurkako jarduerak bat edo horien murrizketa bat eragiteko ere.

EJren iritziz, zenbait berme errespetatu behar da Autonomia Erkidegoko erakundeen antolamenduari edo foru-erakundeen erregimen juridikoari eta horien arteko eskumen-banaketari eragiten dieten legeak lantzeko eta arautzeko prozeduran. Hauek dira berme horiek:

- a) Arbitraje Batzordearen iritzi orokorraren arabera, ondorengo legeek LHLk ezarritako eskumenen banaketa aldatuz gero, aldaketa zuzena, berariazkoa eta arrazoitua izan behar da, azaroaren 3ko 5/2003 Erabakia aipatuz.
- b) Partaidetza bermatzea erabakia hartzeko orduan, halako moldez non euskal antolamendu juridikoak euskal lurralde-aginteen artean beren harreman instituzionalei eta beren eskumenen eremuari eragiten dieten gai guztien inguruko adostasun instituzionala, Eusko Legebiltzarrak dagokion lege formala onetsi aurrekoa, bilatzeko mekanismoak sar ditzan.

Mekanismoek euskal instituzioen artean adostasuna lortzeko egokiak izan behar dute, baina, KAren jurisprudentzian ere aitortuta dagoenez, adostasuna bilatzeko aurreikusitako mekanismoen bidez ez bada adostasunik lortzen erakunde komunen

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

eta foru-erakundeen artean, Eusko Legebiltzarrak egoera horren ondorioz sortutako eztabaidak erabakitzeko tresnak aurreikusi ditzake bere legeetan.

Azkenik, EJK Gernikako Estatutuaren kontrol instituzionalerako sistemak, Estatutuaren 38. eta 39. artikuluetan jasotakoak, aipatzen ditu. EJren ustez, Autonomia Estatutuko lurralde-agintearen banaketa eskumen-printzipioari jarraiki artikulatzen da eta ez hierarkia-printzipioaren bidez.

3. Hortik aurrera, EJK lege-proposamenaren manuetako bakoitzaren azterketa espezifikoa egiten du.

1. artikuluari dagokionez, EHAErekin bat egiten duela interpreta daiteke.

4. artikulua 3. apartatuak urratu egiten ditu EHAEko 3. artikulua, 37.3 artikuluko a) letra eta 37.2 artikulua, baita EHAEko 25.1 artikulua ere.

EJK ustez, 6. artikulua 1. apartatuak bat egiten duela interpreta daiteke, LHLko 6.1 artikulua bezala eta, beraz, ezin esan daiteke Estatutuaren aurkakoa denik. Halarik ere, alderantziz gertatzen da lege-proposamenaren 6. artikuluko 2. apartatuko «eta lege honetan LLHHei eskumenak esleitzeak ez du inola ere ahalmen hori mugatuko» tartekiarekin, zeren EHAEko 25. artikulua urratzen baitu, eta EHAEko 37.2 artikulua ere, manu horietan jasotako berariazko foru-bermea ez aipatzeagatik.

7. artikuluan, 2. apartatuaren idazkera ez da teknikoki zuzena, zeren Estatua identifikatzen baitu Kontzertu Ekonomikoaren eskumenak alde bakarretik esleitzen duena bailitzan.

7. artikuluko 5 apartatuko «inola ere» esamoldea EHAEren aurkakoa dela interpreta daiteke, baldin eta foraltasunaren funtsezko muina osatzen duten foru-eskumenak murriztea badakar.

8. artikulua 1. apartatuak EHAEko 7.3 artikulua urratzen du, ez baitu jasotzen EHAEko f) letraren azken tartekian zehaztutako beste foru-eskumenei buruzko aipamen zehatza [“Estatutu honetan zehatu daitezten edota eskuordetu dakizkien guztiak”].

9. artikulua 1.1. apartatuak EHAEko 10.34 artikulua urratzen du, ez baitu jasotzen aldundiei soilik dagozkien eskumenei buruzko aipamen zehatza eta Estatutuan antolatutakoaz bestelako banaketa bat artikulatzen baitu, 132/1998 KAE aipatuz horri dagokionez.

«Autonomia-erkidegoaren interes orokorrekotzat aitortu direnak salbu» tartekiak ere EHAetik eratorritako eskumen-banaketa urratzen du, zeren EHAEk ez baitu inolaz ere babesten interes orokorrekotzat aitortzea lortu duten errepideen eskumen eskusiboa erakunde komunei ematea.

EJren ustez, 12. artikuluko 1. apartatuak bat egiten duela interpretatu ahal da, zeren EHAEn jasota baitago Euskal Herriko ogasun nagusia, baina “aipaturiko lege-

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

xedapenetan ezarritako mugen barruan” tartekia ez dago teknikoki behar bezala idatzita eta Estatutuaren aurka doa, zeren LLHHeK Ekonomia Itunaren sistemako tributuei buruzko eskumenak erabiltzeko ez baitituzte legeek ezarritako mugen barruan egin behar, Estatutuko eta legezko xedapenei “jarraiki” baizik.

12. artikularen 2. apartatuak EHAEko 41.2.b artikulua urratzen du, ez dituelako aipatzen Estatutuan bertan foru-aldundiei espresuki esleitutako funtzio batzuk. Lege-proposamenak ere, apartatu horretan, aipatu gabe uzten du 41.2.c artikuluan aurreikusitako eskumena, honela adierazita dagoena: «LLHHe-tako erakunde eskumendunek behar bezalako erabakiak hartuko dituzte Estatuak lurralde arruntean ezartzea erabaki dezan salbuespenezko eta unean uneko zerga-arauak zeinek bere lurraldean ezartzeko, arauok izan dezaten indarraldi berbera izango dutela». Hori dela-eta, Estatutuaren kontrakoa da.

12. artikuluko 4. apartatuak EHAE urratzen du, zeren foru-eskumenak mugatzen dituen, Ekonomia Itunaren funtzionaltasuna murriztuz. Berriz ere, «zerga-esparrura mugatuko dira, estatuko lege horren izaerari jarraiki» esamoldea ez la teknikoki zuzena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren Legea ez dela mugatzen tributuen alorreko berezko gaiak arautzera, baizik eta EAEn eta Estatuaren arteko finantza-harremanak ere arautzen dituen.

EJren iritziz, 13. artikularen 1. apartatua bat egiten duela interpreta daiteke, azpimarratuz ezen “zergen funtsezko elementuak modu uniformearen arautzeko” agindua aurreikusita dagoela indarrean den LHLaren 14.3 artikuluan. Halarik ere, berriz ere teknikoki desegokia da «Kontzertu Ekonomikoaren Legeak esleitzen dien araudiak egiteko ahalmena gauzatzean» tartekia, zeren Ekonomia Itunaren sistemako tributuen arloko araugintza-eskumenak ez baitira esleitzen Ekonomia Itunaren Legearen bidez soilik, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak eta EHAEk osatzen duten konstituzionaltasun-multzoaren bidez baizik. Tarteki horrek bide ematen du Estatutuaren kontrakoa izan daitekeen irakurketa bat egiteko, baldin eta ulertzen bada Ekonomia Itunaren Legea dela LLHHen tributua-ahalen iturri bakarra.

14. artikuluari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak lankidetzaren printzipioa taxutzen du Estatuaren lurralde-antolamenduaren funtsari berezko zaion zerbait bezala (18/1982 KAE, martxoaren 4koa). Euskal antolaketaren eremuan, oinarritzko arau instituzionalak, hau da, Autonomia Estatutuak zein Lurralde Historikoei buruzko 27/1983 Legeak eta Jaurkitari buruzko 7/1981 Legeak funtzionamendu-printzipio eta -arau horiek sartu dituzte modu zalantzaezinean (besteak beste, objektibitate, publikitate, efikazia, deszentralizazio, deskontzentrazio, lankidetzaren eta koordinazioaren printzipioak) euskal administrazioentzat eta zehaztu dute beren harreman instituzionalak eta jardura publikoa gidatu behar dituztela.

Lankidetzaren, kooperazioaren eta koordinazioaren kontzeptuei buruzko KAren doktrina orokorra azaldu ondoren, EJ zentratu egiten da lankidetzaren printzipioak EAEn harreman ekonomiko eta finantzarioetan duen garrantzian.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Aldez aurretik egindako gogoeta honetatik abiatuta, azkenean, EJK ulertzen du ezen, azaldutakoaren ildotik, bat egiten duela interpreta daitekeela, lege-proposamenaren 14. artikulua testuan ikusten dituen akats teknikoak gorabehera. Beraz, 3. apartatuak, aipatzen duenean "zergen -zeinak araudi autonomoaren zergak baitira, Ekonomia Itunaren Legearen arabera- funtsezko elementuen erregulazio harmonizatua betetzeko obligazioa", kontuan hartu behar du 76/1998 KAEn ebatzitakoa.

lido horretatik beretik, lege-proposamenaren 14. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoari dagokionez aurreko 3. apartatuari buruz esandakoa errepikatzen du, nahiz eta, gainera, EHAEn kontrakoa izan daitekeen, zeren "presio fiskal bera" identifikatzen duen harmonizazio fiskalaren berme gisa, eta heinik gabe aldentzen den indarrean diren legeak jasotzen duten "presio fiskal efektibo global baliokidearen" kontzeptutik (Ekonomia Itunaren 3. artikulua).

15. artikuluari dagokionez, EJren iritziz, bat egiten duela interpreta daiteke, nahiz eta uste duen tituluko "bertikala" hitza ez dela zuzena, zeren ez baitago hierarkia-harremanik lankidetzaren artean, hitzak berak hori adierazten duen arren, eta, zentzu horretan interpretatuko balitz, elkarrekin erabakitze edo itunak egiteko printzipioarekin kontraesanegongo litzateke.

EJren ustez, 16. artikulua 3. apartatuko «hiru LLHetan presio fiskal bera dagoela bermatzeko» tartekia EHAEn eta Ekonomia Itunaren (3. artikulua) kontrakoa da.

Iruzur fiskalaren aurka borrokatze planari buruzko tartekiak, aldiz, bat egiten duen interpretazio bati bide ematen dio, izaera orokorra duelako, eta uler daiteke, nolana ere, Eusko Legebiltzarra ez dagoela gaituta tributuen erregulazio espezifikorako.

17. artikuluari dagokionez, 14. artikuluari buruz esandakoa errepikatzen du.

EJren iritziz, 18. artikulua osoa da EHAEn kontrakoa, zeren artikulatzen duen kontrolak ez baitauka tokirik Estatutuaren ondoriozko instituzioen arteko harreman-motaren testuinguruan, ezta Autonomia Erkidegoko antolaketa instituzionalaren egiturazko erakundearen artean ere, instituzio horien arteko harremanak ez direlako hierarkiazkoak.

20. artikuluko 4. apartatua EHAEn kontrakoa da, EHAEn 37.3 artikuluko eskumenen foru-gune ukigaitzari eragiten diolako.

EJren ustez, lege-proposamenaren 23. artikuluko 3, 4, 5 eta 6. apartatuek Estatutuaren 42.a artikulua urratzen dute, zeren ezabatzen baitituzte itundutako betekizuna eta irakurraldi bakarraren bidezko tramitazioa lurralde historikoek EAEko Ogasun Nagusiari egin beharreko ekarpenak arautuko dituen Legebiltzarraren Legea onartzeko tramitetik, eta horiek biak, 76/1988 KAEn arabera, gutxieneko

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

betekizunak dira foru-berme instituzionala errespetatuko dela bermatzeko, eta berme hori badago jasota 23. artikulua beraren 7. apartatuan, zeinak Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari esleitzen baio ekarpenen zehaztea.

4. 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 eskumen-arazoei dagokienez, EJ horiek guztiak 1/2015ean pilatzearen alde dago eta berretsi egiten ditu Arbitraje Batzordearen Idazkaritzan 2016ko urtarrilaren 7an aurkeztu zuen idazkian jasota zeuden alegazioak, eta errepikatutzat jotzen ditu.

5. EJK aurkeztutako azken alegazio-idazkiaren helburua da Batzordeak, ETEL onartu izanaren ondorioz, emandako entzunaldiaren tramitea betearaztea. EJK bi motatako alegazioak egiten ditu, batzuk izaera juridiko-formalekoak dira eta, beste batzuk, alderdi juridiko-materialei eragiten dietenak.

Lehenengoei dagokienez, lehendabizi Arbitraje Batzordearen 32. artikulua aztertzen du, zeinaren aurrekaririk gertukoena Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoan kokatzen duen, eta hau, era berean, 1956ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 43. artikuluan, egun Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 33.2 artikulua den horretan.

Manu horiek guztiak, bere idazkian aipatzen dituen Konstituzio Auzitegiaren ebazpen judizialekin batera, erabiltzen ditu ondorioztatzeko ezen Konstituzio Auzitegiaren Legeko 84. artikulua mugak direla kongruentzia eta kontraesanaren printzipioak eta, hortaz, eztabaida prozesalaren terminoetan horiek gaindituz gero, berme prozesal funtsezkoenak eta, horrekin batera, defentsaren oinarritzko eskubidea urratzea ekarriko luke. Aipatu manutik ateratzen dituen ondorioak garrantzitsuak dira EJrentzat, zeren Arbitraje Batzordearen Legeko 32. artikulua testuak bat egiten duen, ia literalki, eta, hortaz, hari buruz dagoen jurisprudentziak balio dezake hobeto ulertzeko Batzordeak erabaki duen entzunaldiaren tramitearen esanahia eta gorabehera.

Aipatzen duen bigarren muga da Konstituzio Auzitegiaren eta Arbitraje Batzordearen ebazpenen norainokotik eratorritakoa. Gogoratzen du azken horrek baduela Legebiltzarrean tramitatzen ari diren arau-proposamen eta -proiektuen berri, eta eskumenen banaketa Estatutuaren kontrakoa den epaitzeko kontrol-kanona osatzen duela soilik konstituzionaltasun-multzoak, Autonomia Estatutuak eta Konstituzioak osatutakoak, eta epaitzeko parametro horretatik kanpo geratzen direla indarrean dauden Eusko Legebiltzarrak onetsitako legeak. Horri dagokionez, aipatzen du Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkuraren azaroaren 3ko 05/2003 Erabakia, Mahatsardoaren Antolaketaarako Lege-Egitasmoaren gainekoa, zeinak balio dion agerian uzteko ez dagokiola Arbitraje Batzordeari indarrean dagoen legeria Estatutuaren araberrakoa den juzkatzea, baizik eta legegileari ohartaraztea tramitatzen ari den arau-proposamen edo -proiektuak gai jakin batean indarrean dagoen eskumen-banaketarik eragiten diola.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Aipatu doktrina azaldu ondoren, EJren iritziz, Arbitraje Batzordearen 2016ko maiatzaren 10eko erabakia ez dago aski arrazoituta, zeren ez duen espezifikatu zein diren bere irudiko kontuan hartu beharreko arrazoi berriak ETEL onartu ondoren hasita dagoen prozeduraren xede den asmoa argitzeko, kontuan hartuta ezen arau honek, ez duenez estatututasun-multzoa osatzen, ez du LPren kontrol-parametroarena egiten, eta arrazoiketa hori egiten du berriro alderdi juridiko-materialak aztertzerakoan.

SEIGARREN.- 1. Euskal Sozialistak talde parlamentarioak aurkeztutako alegazioen xedea da Arbitraje Batzordeak erabaki bat eman dezala zehazteko, lehendabizi, inpugnatutako lege-proposamena Autonomia Estatutuan zehaztuta dagoen erakunde komun eta foru-erakundeen arteko eskumenen banaketara egokitzen dela; bigarren, zehaztu dezala inpugnatutako lege-proposamenak aldatu egiten dituela indarrean dagoen legerian ezarritako eskumenen sistema eta erakunde komun eta foru-erakundeen arteko eskumen-banaketa, Arbitraje Batzordearen iritziz horretarako beharrezko diren baldintza formalak betez, LHLen aldaketa zuzena, berariazkoa eta arrazoitua egiteko proposamen bat delako.

2016ko otsailaren 1eko sarrera-data daukan idazkiak errepikatu egiten du urte bereko urtarrilaren 11koan azaldutakoa, eta lege-proposamenaren artikuluei buruzko azterketa, LLHHen berme instituzionalaren errespetuari eta haien aldeko estatu-erreserbei dagokiena, eransten dio.

2. ES LTak, bere alegazioen hasieran, inpugnatutako artikuluen azterketari ekiteko oinarrizkotzat jotzen dituen lau gai azaltzen ditu:

- A) Foraltasunaren "gune ukigaitza" deitu izan dena mugarriztatzea;
- B) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko legegileak lurralde historikoen eskumenak - eta dagozkien funtzioak- arautzeko orduan gainditu ezin dituen mugak;
- C) EAEko legegilearen gaitasuna Ekonomia Itunaren sistema osatzen duten tributuen gestiotik eratorritako baliabide finantzarioen banaketa arautzeko;
- D) EAEko legegilearen gaitasuna gobernu arteko harremanak arautzeko bere erabakiz EAEko LLHHei esleitzen zaizkien eskumenak erabiltzerakoan.

Zehazten du, gainera, aipatutako gaietakoren baten barnean aztertu beharko dela, modu berezian, gai bereziren bat, esaterako LLHHei dagozkien "finantza-tutoretzako ahalmenak".

Oinarrizko gai horiek bat datoz inpugnatutako proposamenean espresuki zehazten diren xedeekin: A) LLHHen eskumenak zehaztea, EAEko Autonomia Estatutuan aurreikusitakoa garatuz; B) Gobernu arteko harremanak arautzea; C) AEko erakunde komun eta LLHHen arteko finantza-baliabideen banaketa arautzea.

Modu horretan, inpugnatutako proposamenaren asmo argi eta zuzena da indarrean dagoen LHLa osorik aldatzea, bere lehenengo xedapen indargabetzailean espresuki jasota dagoena, horri dagokionez Arbitraje Batzordearen 5/2003 Erabakia aipatzen duelarik, zeinean hau dioen: "LHLko eskumen-banaketaren eskema aldatzeko,

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

horren eduki materiala aldatzeko, beharrezkoa da, ikuspuntu formal batetik, Eusko Legebiltzarrak lege mailako arau bat ematea, aldaketa hori zuzenean, berariaz eta oinarriturik artikulatzeko”.

3. Foraltasunaren “gune ukiezina” mugarriztatzeari dagokionez, ES LTak 76/1988 KAE hartzen du oinarritzat, eta horretatik ondorioztatzen du ezen foru-lurraldeen eskubide historikoen babesak eta errespetuak, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian jasota dagoenak, eratzen duen “berme instituzionalak” ez duela eduki jakin bat edo eskumen-eremu zehatz bat ziurtatzen, baizik eta instituzioa ezagut daitezkeen terminoetan gordeko dela, eta hori urratu egingo dela instituzioa mugatuko denean, instituzio gisa benetan existitzeko aukera ia kendu arte, izen soil bat besterik ez izateko, baina hori ez dela lege-proposamenaren kasua, zeinak, bere iritziz, EHAek zuzenean gordetzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak errespetatzen dituen eta, gainera, eskumen gehiago esleitzen dizkien LLHHei, EHAEn berean aurreikusitakoaren babesean.

4. Bere alegazioetan aztertzen duen aldez aurreko bigarren kontua da EHAEn zeregina foru-erregimenaren gaurkotzean eta, ondorioz, EAEko legegileari ezartzen zaizkion mugak LLHHei dagozkien eskumenak zehazteari dagokionez. Berriz ere, 76/1988 KAEn oinarrituta, ondorioztatzen du ezen, Konstituzioaren markoan, EHA delako -salbuespenak salbu, aurrerago zehaztuko diren terminoetan- Konstituzioak babestutako eskubide historikoak eta, hortaz, “foru-lurraldeen” erregimena gaurkotzeko erabili beharreko tresna. Gaurkotze hori, ES LTaren arabera, EHAek egin dezake “oraingo” garairako egokienak iruditzen zaizkion terminoetan eta LLHHak sortzen den erakunde instituzional berrian txertatzeak, hots, EAEn txertatzeak, bere iritziz, exijitzen dituen beharkizunekin, baldin eta LLHHen “berme instituzionala” babestuta badago, EHAeko 16 eta 17. artikulua aipatuz adibide gisa.

5. ES LTak aztertzen duen hirugarren gaia hau da: Eusko Legebiltzarraren mugak LLHHen eskumenak zehazteko.

Talde parlamentarioak uste du ezen EHAek, foru-erregimena eguneratu zuenean, aukeratu zuela haren artikuluetan zuzenean ipintzea LLHHei zenbait eskumen gordetzen zitzaizela. 37. artikuluko lehenengo hiru zenbakietan espezifikatutako eskumenak dira, lege-testu bereko 3. artikuluan ezarritakoari dagokionak, EHAeko legegileari muga gaindiezin bat ezartzen diotenak, talde parlamentarioaren irudiko lege-proposamenak errespetatzen dituenak.

Hortik aurrera kontsiderazio-multzo bat egiten du EHAEn 37. artikuluko 2. zenbakiaren esanhiari buruz, zeren, bere iritziz, salatariak aipamen hori baliatzen duten, behin eta berriz, argudiatzeko LLHHek badituztela eskumenak EHAEn zehaztutakoa baino haratago, eta, praktikan, egungo LHLa aldaezina dela esatera iristen dira.

ES LTa zentratu egiten da LLHHen eskumenak zehazteko Eusko Legebiltzarraren baliabideak aztertzen, EHAEn 37. artikuluko 3. apartatuko f) letra aipatuz, eta

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

ondorioztatzen du ezen Eusko Legebiltzarrari dagokiola LLHHen eskumenen hedatze-eremuan egoki irizten zaizkion eskumenak zehaztea, eta eskumenen esleipen horretan, KAK adierazi omen duenaren arabera, foru-aldundiek historikoki eskumen jakin batzuk erabili izanak ez duela Eusko Legebiltzarra mugatzen.

Hau da lege-proposamenaren 9. artikulua gauzatu nahi duena, ES LTak adierazten duen bezala: LLHHei esleitutako eskumenak zehaztea, EHAeko 37. artikuluan xedatutakoari jarraiki, EHAek zuzenean LLHHei gordetzen dizkien eskumenak babestuta -aurreko 8. artikuluan egiten den legez-.

Talde proposatzailearen iritziz, EHAek EAeri dagozkion eskumenak ezartzen ditu; horien artean, zuzenean LLHHei gordetzen dizkien eskumen batzuk zehazten ditu eta gainerakoak erakunde komunei dagozkie, horiek LLHHei esleitu nahi dizkietenak salbu, zeinak EHAEn zuzenean gordetakoei gehituko zaizkien. Baina eskumenen esleipen hori alda daiteke Eusko Legebiltzarrari egoki iruditzen bazaio.

Gauza bera esan daiteke, talde parlamentarioaren arabera, EHAek tributuen gaian LLHHei gordetzen dizkien ahalei buruz, Ekonomia Itunaren Legean jasotako arauketari dagokionean; lege-proposamenaren 12. artikuluan espresuki babesten diren ahalmenak dira.

6. Idazkian aztertutako hurrengo gaia da LLHHen eskumena toki-ogasunei dagokienez eta, bereziki, udalerrien finantza-tutoretzako ahalmenak.

ES LTaren ustez, EHAek EAeri esleitzen dio "toki-erregimenaren" gaiko eskumena eta oso era murriztuan soilik gordetzen dizkie LLHHei eskumen zehatz batzuk gai honetan.

Lehendabizi dio ezen EHAek LLHHei esleitzen diela "udalaz gaindiko lurralde barrutien" gaineko eskumena, LHLk zabaldu zuena, "udal barrutien" gaineko eskumena ere sartuz. Alegazio-egileen iritziz, LLHHen eskumena esleipen baten ondorioa denez gero, EAeko erakunde komunen eskumenen eremuan mantendu egiten da EHAEn berean LLHHei espresuki gordetzen ez zaien edo EAeko legegileak espresuki esleitzen ez dien guztia -EHAek EAeri esleitzen dizkion eskumenen barruan-

Jarraian, toki-ogasunen gaineko eskumenean zentratzen da. Horretarako, uste dute argitasunarekin mugarritu behar direla LLHHei toki-ogasunen eremuan dagozkien eskumenak, zeren espresuki esleitu ez zaien hori guztia erakunde komunei baitagokie, "toki-erregimenaren" gaineko eskumenaren barruan, eta, EHAek eta LHLak ez dietenez LLHHei esleitzen "toki-ogasunen" gaineko eskumena, LLHHek ez dute eskumenik toki-ogasunen gainean, orokorrean, Ekonomia Itunaren Legean toki-tributuei buruz ezarritako salbuespenak baizik.

Gai honek, halarik ere, azterketa sakonago bat merezi du talde parlamentarioaren iritziz. Egia da LLHHek toki-tributuen gaineko eskumena dutela, Ekonomia Itunaren

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Legearen 39. artikularen arabera, zeinaren xedea ez den erakunde komunen eta LLHhen artean eskumenak banatzea. Ondoren, Ekonomia Itunaren Legearen 48. artikuluko 5. zenbakia aipatzen du, nondik ondorioztatzen duen euskal legegileari dagokiola zehaztea zeini dagokion, Estatuak toki-erakundeen gaian, une bakoitzean, beteko dituen finantza-tutoretzako ahalmenak erabiliz -aplikatzekotzat jotzen duen legeria aipatuz horiek definitzeko-. Nolanahi ere, talde parlamentarioak ulertzen duena da ezen finantza-tutoretzako ahalmenek izaera teknikoa (kontrolakoa) dutela udal-autonomia finantzen planoan erabiltzeari dagokionez eta ez direla ulertu behar toki-ogasunen gaineko, horien eremu osoaren gaineko eskumen gisa, hau da, oso bereziki, diru-sarreraren gaineko eskumen gisa. Eta, batez ere, ez dira ulertu behar arauzko erregulaziorako ahalak esleitzeko gisa, Arbitraje Batzordearen 2003ko martxoaren 16ko 2/2003 Ebazpenetik abiatuta eta, geroago, Arbitraje Batzordearen irizpidea aldatzen duen 2012ko apirilaren 19ko 3/2012 Erabakitik abiatuta berresten duena.

Azkenik, Ekonomia Itunaren Legeak toki-ogasunei buruzko beste bi eremu aipatzen ditu. EHko toki-erakundeek tributuen bidezko diru-sarreretan duten partaidetzei buruzkoa da garrantzitsuenak.

Analisia egungo Ekonomia Itunaren Legeko 51. artikuluan zentratzen da. Proposatzaileen iritziz, legegile autonomikoari dagokio itundutako tributuetatik datozen baliabide ekonomikoak banatzea. Haiek diotenez, aipatu artikulutik ondorioztatu behar dira foru-aldundiei esleitutako ahalmenen mugak (kudeaketa exekutiboak) eta horiek erabiltzeko orduan men egin behar zaiela legeria- edo araudi-mailako arau batzuei, zeinak arautuko dituzten baliabideak banatzeko irizpideak eta EAEko legegilearen eskumena udalerrien baliabide ekonomikoak izendatzeko arauak ezartzeko.

Ekonomia Itunaren Legearen 51. artikuluko xedapena baldin bada toki-erakundeei dagozkien zenbatekoak banatzeko ahalmena LLHHei espresuki esleitzen dien bakarra eta horrek erakusten badu LLHhak gai direla, era berean, oraingo honetan itundu gabeko tributuetatik ez, baizik eta itunduetatik datozen beste baliabide batzuk banatzeko, ez da posible mantentzea haien ahalmenak, azken eremu honetan, ezin direla lehenengo eremu hartan ahalmenek dituzten mugaketen berberen menpe egon.

Ondorioz, LHlan ez dago ezarrita LLHhek badutela tributuetatik datozen udalerrien baliabideak ezartzeko eskumena. Zeharka eta inplizituki soilik dago jasota Ekarpenen Legearen xedapen gehigarri batean. Horren oinarria itundu gabeko tributuetatik datozen diru-sarrerei buruz Ekonomia Itunaren Legean jasotako aurreikuspenaren hedadurak emango luke, antzekoak baitira. Baina tributuetatik datozen baliabideak Ekonomia Itunaren Legeak itundu gabeko tributuetatik datozen baliabideen banaketari dagokionez ezartzen dituen mugaketen mende ez izatea nahi da. Mugaketa horien arabera, "toki-araubidearen" gaian eskumena duenak, hau da, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak, hala dagokionean, banaketarako ezarritako arau orokorreari men eginez betearazi behar dira.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

ES LTak dioenez, LLHHen eskumenak tributuen alorrera soilik mugatzea eta toki-erakundeen (batez ere, udalerrien) aurrekontuen eremua horien artean ez sartzea behin eta berriz berretsi izan du Auzitegi Gorenak (AG), eta Administrazioarekiko Auzien 3. Salaren hainbat epai aipatzen du (1999ko urriaren 25ekoa-RAr. 1999\8642-, 2002ko apirilaren 8koa -RAr. 2002\3826- eta 2002ko apirilaren 26koa -RAr. 2002\4222-).

ES LTak dioenez, posizio batzuetatik uste da badaudela datu normatibo berriak LLHHen toki-ogasunen gaineko eskumen orokorra bermatzen dutenak. 2002ko Ekonomia Itunaren Legeko 48. artikulua bidez, 1981eko Legearen 45. artikulua testuari dagokionez, egindako aldaketek ari dira, toki-ogasunen gaineko finantza-tutoretzari buruzkoak biak, baina, esaten denaren aurka, azaltzen dute ezen, Ekonomia Itunaren testu batean zein bestean, Estatuak araubide komunean une bakoitzean erabiliko dituenek ari dela. Hori dela-eta, aplikatzekotzat jotzen dituen lege-xedapenak aipatzen ditu, TAOALko bigarren xedapen gehigarria bereziki, eta ondorioztatzen du ezen, beraz, EAEko legegileari dagokiola LLHHei izendatzen dizkien ala ez zehaztea.

Gai honekin bukatzeko, aipatzen da Auzitegi Gorenaren 2015eko uztailaren 9ko epaia, 2939/2013 kasazioko errekurtoa, ondorioztatzeko ezen EAEko legegileak baduela ahalmena toki-erakundeen finantzaziorari buruz erabakitzeko, eta Arbitraje Batzordeak ezin duela Auzitegi Gorenak ezarritakoaren kontrako interpretazio bat ezarri, eta gerta daitekeela Arbitraje Batzordeak LLHHen gai honetako eskumenari eustea eta AGk, bere aldetik, haiek aipatu eskumena erabiliz emandako foru-arauak balio gabetzea.

Finantza-baliabideak erakunde komunen eta LLHHen artean banatzeari dagokionez, adierazten da ezen EHAk ez duela mugarik jartzen lurraldeen artean ekitatea, berdintasuna eta garapen orekatuaren helburuak bermatzeko egokiena dirudien baliabideen banaketa-sistema ezartzeko EAEn.

7. Azkenik, proposamenaren manuen analisi bereziari heldu aurretik, gobernu arteko lankidetzak aztertzen dute, ondorioztatzeko ezen inpugnatu den proposamenak, beti, gobernuen arteko topaketa eta kolaboraziorako organotzat jotzen dituela gobernuen arteko lankidetzak-organotzat, eta inoiz ez erabakiak nahitaez, bakoitzaren eskumenak betetzeko lana baldintzatuz, inposa ditzaketen organotzat.

8. Lege-proposameneko artikuluen azterketa zehatzari dagokionez

1. artikuluari dagokionez, bere desadostasuna adierazten du LLHhak legegileak ezin kasutan ukitu ezin dituen eremu gisa konfiguratu nahi dituzten inpugnazio-idazkiak direla-eta.

2. artikuluari dagokionez, 1. apartatua EHAEn muga zehatzen barruan mantentzen da hertsiki, eta Eusko Legebiltzarri dagokio LLHHei esleitu beharreko eskumenak

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

zehaztea, EHAEn arabera AEri dagozkion eskumenen artetik. 2. apartatuak aipatzen du soilik legeak arautuko dituela gobernu arteko harremanak EAEn barruan eta gauza bera esan daiteke 3. apartatuari buruz, AEko erakundeen artean finantza-baliabideak banatzeari dagokionez, eta horiek Eusko Legebiltzarrari dagozkion funtzioak dira.

4. artikuluari buruz dio ezen LLHHei esleitzen diela bere autogobernu-erakundeak arautzeko gaitasuna eta horri aplikatzekoak diren Estatuko edo AEko legeen aipamena, eta zuhurtziazko aipamen bat sartzen saiatzen da soilik, eskumen-jarduera hori aplikatzekoak diren lege-mailako xedapenen mende edo horiek mugatuta egon ahal izan dadin.

6 eta 7. artikuluei dagokienez, 1. apartatua EHAEn 37.3.f in fine eta 37.4 artikuluen ondorioa baino ez da eta 2. apartatua oinarritzeko dio ezen EHAEn zuzenean gordetako eskumen "esklusiboen" azterketak nabarmentzen duela eskumen horiek ezin dutela eragin lege-arauketa ezabatzea, beren zedarriztapen materialagatik beragatik, eta, beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak erabakitzen badu LLHHei esleitzea, adierazitako mugaketen barruan, legeria garatu eta betearazteko eskumenak, agerikoa dela, gure antolamenduan eskumen horiek antolatuta dauden moduari begira, Estatutuak Erkidegoari eremu horietan esleitzen dizkien legegintza-ahalez legegileak egingo duen erabileraren mende geratzen diren eskumenak direla.

Kontzertu Ekonomikoaren Legeak LLHHei esleitzen dizkien eskumenei dagokienez, alegazio-egileek agerikotzat jotzen dute lege hori koherentea dela EHAEn 41. artikuluan ezarritakoarekin. Ekonomia Itunaren Legea da Ekonomia Itunaren sistemako tributuen eremuan LLHHen eskumen horiek erabiltzeko mugak eta funtzioak zehazten dituen. Lege hau da, eta ez Estatutua, zehazten duena zein tributu diren arautegi autonomikokoak eta zein ez. Bistakoa da, gainera, Ekonomia Itunak historikoki Estatuaren arauak (legeak baino maila apalagokoak) arautu izan dituela, eta tributu-legalitatea Estatuaren eskumen eskusiboa dela. Elementu horiekin, agerikoa da Estatuaren Legea dela eskubide historikoak "eguneratzen" dituen, Konstituzioaren eremuan. Beraz, ez dago eragozpenerako arrazoirik lege-proposamenak espresuki aipatzen baditu, tributuen eremuan, Ekonomia Itunaren Legeak LLHHei esleitzen dizkien eskumenak eta funtzioak.

8. artikuluari dagokionez, ES LTak justifikatu egiten ditu "leges repetitae" delakoen teknika erabiltzeko arrazoiak.

9. artikuluari dagokionez, ES LTak ulertzen du ezen legegilea ez dagoela mugatuta LLHHei historian zehar izan zituzten eskumenak direla-eta. EHAEn nahi izan balu hori horrela izatea zuzenean ezarriko zukeen, eta ez zituzkeen Estatutuan LLHHei gordetako eskumenak 37.3 artikuluko a) eta b) letretan jasotakoaren arabera mugatuko. Beste alde batetik, EHAEn LLHHei esleitzen dizkien eskumenak zehazten dituen 37.3.f in fine eta 37.4 artikuluetan aurreikusitakoaren babesean, Eusko Legebiltzarrak LLHHen funtzioak zedarritu ditzake, komeni irizten zaion bezala,

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

arauak garatzeko eta betearazteko ahalmena emanaz, edo betearazteko bakarrik emanaz.

10. artikuluari dagokionez, horren testua interpretatzeko ulertu behar da zer izan ohi ziren foru-planak, baina modu malgu eta dinamiko batean ulertu behar dira, Arbitraje Batzordearen uztailaren 21eko 2/2004 Ebazpenak interpretatu zituen bezala.

Ondoren, 12 eta 13. artikulua aztertzen dira, harmonizazio fiskaleko eskumenetan zentratuta, eta horretarako aipatzen dira Ekonomia Itunaren Legearen 2.1.4. artikulua eta indarrean dagoen Zergapideen Elkarregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunezko Legea (3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa). Lege-proposamenak, gaitasun hori erabiliz, hori gauzatzeko moduak era zehatzagoan arautu besterik ez du nahi.

14ti 17ra arteko artikulua gobernu arteko lankidetzaz ari dira. Lege-proposamenak topaketarako organoak antolatu baino ez du nahi, gobernu-mailen arteko lankidetzaz bideratu ahal izateko.

18. artikuluan jasotakoari jarraiki legeria betetzeko eskumenak erabiltzeari dagokionez, lurralde osorako komuna den erregulazioa bermatu nahi da.

19tik 25era arteko artikulua finantza-baliabideen banaketaz arduratzen dira.

EHAk ez du arautzen Estatuari Kupoa ordaindu ondoren Erkidegoan geratzen diren baliabideak Erkidegoko erakundeen artean banatzeko sistema. Gai hori, beraz, Eusko Legebiltzarrak arautu behar du lege baten bidez. Hori da Eusko Legebiltzarrak egin zuena indarrean dagoen LHLa onetsi zuenean, eta ez dago xedapenik Estatutuan, ezta, are gutxiago, Konstituzioan ere, Erkidegoaren barruan finantza-baliabide horiek banatzeko sistemaz bestelako arauketa bat eragozten duenik. Lege-proposamenak indarrean dagoen LHlan dagoenaz bestelako erregulazio bat sartu gura du.

Udalerrien finantza-beharrizanak aztertzeke Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan udal-ordezkariak sartzeari dagokionez, EHAk ez dago ezer ezartzen duenik Ekonomia Itunaren sistema osatzen duten tributuetatik datozen finantza-baliabideak banatzea, Estatuari Kupoa ordaindu ondoren, erakunde komunei eta LLHk foru-organuei bakarri eragiten dien zerbait dela.

9. ES LTak, ETEL onartu ondoren Arbitraje Batzordeak emandako eskualdatzea betearaziz, aurretik aurkeztutako alegazioak berresteko idazki bat aurkeztu du eta, EJK erakutsitako jarreraren aurka, ulertzen du egokia dela Batzorde honek ofizioz adierazitako iritzia, honela dioena: "...partzialki bat datoz prozedura honetako eskumen eztabaidagarrien titulartasunari buruzko adierazpen-helburuetako batzuen mamia eta indarrean dagoen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritako eskumenen banaketako aldaketak". Bere ustez, iritzi

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

horrek egiaztatu egiten du Autonomia Erkidegoko legegileak gaitasuna duela LHLa bera aldatzeko, Arbitraje Batzordeak ezarritako exijentziak betetz. Abiapuntu honetatik, ulertzen du ezen lege-proposamena zalantzan jarri dutenak direla beren defentsa-arrazoiak azaldu behar dituztenak Batzordeak adierazitako gaietan: udalerrien eta autonomia- eta foru-erakundeen arteko lankidetzaren instituzionala, tokiko zerbitzuen kudeaketa eta udalerrien finantzamendua.

35.- Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkurak 2016ko uztailaren 28rako zehaztu zuen Erabaki honen ezaugarria eta onarpena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lege-proposamenaren aginduak banan-banan aztertzen hasi baino lehen, egokitzat jo da aditzera ematea Arbitraje Batzordearen jarrera planteatutako gai orokorren gainean, zeinak elkartu ditzakegun honako enuntziatu orokor hauetan:

- a) Foraltasunaren gune ukiezinaren bermearen esparru orokorra
- b) Foru-araubide pribatiboaren bermearen proiektzioa Eusko Legebiltzarraren legegintza-eskumena mugarriztatzen
- c) Foru Ogasunen arloko eskumena eta udalerrien finantza-tutoretza baliatzearena
- d) Eskumen-esparru hurbilketa lege-proposamenaren 2. kapituluak aipatzen duen gobernu arteko lankidetzaren.

LEHENA.- FORALTASUNAREN GUNE UKIEZINAREN ESPARRU OROKORRAZ

Batzorde honen kontsideraziopean jarritako lege-proposamenak xede du Euskal Autonomia Erkidegoaren barne erakunde-antolamendua, Autonomia Erkidegoa garatuz. Proposamenak, bere atarikoan, Eusko Legebiltzarrari esleitzen dio gaiari buruzko legegintza-eskumena. Eskumen horri dagokionez, aztertu beharreko testuan jasotako xedapenak banan-banan aztertzen hasi aurretik, komeni da zehaztea proposamenak errespetatu beharra daukan bermearen esparru orokorra – Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 28ko 76/1988 epaiaz geroztik (6. oinarri juridikoa) foru-erregimenaren gune ukiezin bat bezala identifikatuz joan dena– eta zenbateraino foru-araubide pribatibo horren bermearen proiektzioak mugatzen eta mugarriztatzen duen Eusko Legebiltzarraren legegintza-eskumena gai honetan. Gai biak landuko ditugu hurrengo lerroetan.

Horri gagozkiola abiapuntu hartu beharra dago Konstituzioaren 1. xedapen gehigarria, zeinak babestu eta errespetatu egiten dituen foru-lurraldeen eskubide historikoak eta behartu egiten duen foru-araubidearen eguneratzea betiere Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen esparruan egitera. Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren berezitasuna –arau osagarritzat Konstituzioaren 2. xedapen derogaitzalea duena–, da foru-itzulketa burutzen duela, Estatutuaren prozesuari ekin

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

baino lehen; hau, beraz, ez “ex novo” sortzen, baizik eta haren aitzindari den foru-araubide baten eguneratze arauemaile baten bidez. Esaten ari da badirela eskubide batzuk historian oinarrituak eta berorien subjektu titular batzuk, hots, Lurralde Historikoak; Lurralde Historiko horiek, hain zuzen, era honetara definituak ageri dira apirilaren 26ko 76/1988 KAEaren bidez (2. OJa) –nahitaez aipatu beharrekoa irizpen honetan–: “Espainiako Monarkiaren osatzaile izaki, Espainiako gainerako erreinu eta erregioetako Zuzenbide publikoa eta erakunde politiko eta administratiboak batu arren –batze hori 1707, 1711, 1715 eta 1716ko Planta Berriko Dekretuen bidez bururatu zelarik–, beren foru propioak gorde zituzten lurraldeak (bai beren botere publikoak antolatzeke modu berezi bat bezala ulertuz bai beste gai batzuetan zeukaten araubide juridiko propioari dagokionez) XVIII. mendean eta XIX. mendearen zati handi batean”. Horiek dira, beraz, Nafarroaz gain, EHAE Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 2.2 artikulua araberako Euskal Herriaren Komunitate Autonomoaren Lurraldea osatzen duten hiru probintziak, aipatutako aginduak egun dituzten mugetan hartzen dituenak: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia. Aztergaietakoren batean mantendutako argudiaketak, <alegia, LLHHen eskumenak beren eskubide historikoetatik datozela, –eskumenak esleitzeko halako iturri autonomoa bailitzan–, Konstituzioaren 1. XGak bermatu egin ditu eta, azkenik, EHAEk eguneratu; eta baita ere EHAEk Autonomia Erkidegoa ulertzen duela Lurralde Historiko bakoitzak Erkidego horretan sartzeko hartutako erabakiaren azken emaitza gisa eratutako subjektu bezala>, behartu egiten gaitu hurbilketa labur bat egitera haren oinarri eta edukira. Hurbilketa hori mantendu egingo da Estatutuaren interpretazio funtzionalaren esparruan, kontrolako eskumenak baliatzeko, aztertzen dihardugun Proposamena Estatutuaren legezketasunari egokitzen zaion zaintzeko, EHAEko 39. artikulua eta, hura garatuz, ekainaren 30eko 13/1994 Legeak Batzorde honi izendatzen dizkieten eskumenak, hain justu. Esparru horri lotu behar gara, ustez eta –gisa denez– eskubide historikoei eta Konstituzioaren 1. XGari ematen zaion irismen eta edukiak baldintzatu egiten duela Estatutuaren interpretazioa.

Historia aipatzea, berriz, Konstituzioaren testuan foru-lurraldeen eskubide historikoak sartzeko, da, Konstituzioaren legegileari dagokionez, aitortzea borondate bat –aipatutako lau lurraldeek urteen joanean egiaztatu dutena– autogobernu propioa edukitzeko, eta berekin dakar, halaber, Konstituzioaren konpromisoa horiek babesteko eta errespetatzeko, eta haien eguneratzea betiere Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen bidez egiteko. Kontua da foru-araubidea gordetzea eratutako ordena juridiko-politikoaren barruan, EHAeri pasatuz bere eguneratzea burutzeko baliatu beharreko erakunde- eta eskumen-oinarriak zehazteko funtzioa. Bada, beraz, oinarri historiko bat duen legitimitate baten aitortze konstituzional bat, konstituziogileak eraikitako legezketasunean –haren aurrekoa delarik– jasotzen dena, eta eratutako botereen legegintzaren emaitza islatu beharra daukana.

Hala, Konstituzioak agindurik, ohiko legegileak ez du erabateko askatasunik Konstituzioaren esparruan eta behartua dago bermatzera lurralde-autogobernuko araubide batekin antzemateko moduko foru-araubide baten existentzia, horixe definitu baitzuen KAak, berme instituzional izen generikoaz, uztailaren 28ko

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

32/1981 KAEan, zeina proiektatzen baita nola Estatu-mailan, hala berezko maila autonomikoan ere.

Konstituzioak sortu ez dituen eskubideak dira. Nahiz eta ezin diren titulu autonomotzat hartu, zeinetatik berariazko eskumenik ondorioztatu daitekeen, abenduaren 18ko 123/1984 KAEak (3. OJ) dioen bezala, ez du esan nahi bazter utz daitezkeenik, jatorriari dagozkionez dagozkion eskumen-esleipenen fundamentazioan, zeren konklusio hori onestera haiek Gutun Nagusian aipatzea alferreko bihurtuko bailitzateke. XGaren xedea bakar-bakarrik ulertuko balitz EAaren VIII. Tituluarekiko igortze bat bezala, inolako zentzurik gabeko araua genuke, xedapen huts bat nekez uztar litekeena arau konstituzionala izatearekin. Hori dela eta:

a) KAaren 147.1 artikulua, Estatutuak konfiguratzearekin Autonomia Erkidego bakoitzaren oinarriko arau instituzional gisa, dio barne hartu behar dituztela Konstituzioaren esparruan hartutako eskumenak, zeinetan txertatua baita EAaren XGa eta ez lehen aipatutako aginduetan soilik. Horregatik aldarrikatu du KAak 1985eko uztailaren 29ko 94/1985 epaian ezen, nahiz eta Autonomia Erkidegoek Erkidego bakoitzak jaso behar dituen eskumenak zehazterakoan kontuan izan behar duten erreferentzia-esparru nagusia Konstituzioko 148 eta 149. artikulua izan behar direla, ez dagoela bazterturik eskumen horietakoren batzuek oinarria beste agindu konstituzional batzuetan eduki ahal izatea.

b) Konstituzio Auzitegiak mantendu egiten du 1984ko otsailaren 2ko 11/1984 epaian (4. OJ) ezen "Lurralde historikoen eskumenak, alde batetik, eta Autonomia Erkidegoenak, bestetik, sortzen diren iturriak desberdinak dira halaberrez. Foru-lurraldeak "eskubide historikoen" titularrak dira, eskubide horiek Konstituzioak errespetatu eta babestuek dira eta Konstituzioaren eta Autonomia Erkidegoen esparruan eguneratu daitezke, Konstituzioko 1. xedapen gehigarriak dioenaren indarrez; horregatik, lurralde horien eskumenak mugarriztatzeak exijitu ahal izango du ikerketa historiko bat "eskubide" horiek zein diren argitzeko. Aldiz, Autonomia Erkidegoen eskumenak dira, hain zuzen ere, Konstituzioak ezarritako esparruaren barruan Autonomia Erkidego horiek hartu dituztenak zeinek bere Autonomia Estatutuaren bitartez; jo egin beharko da, beraz, Konstituziora, Autonomia Estatutueta eta beste arau balizko batzuetara, aurrekoen esparruan emandako eskumenak mugarriztatu dituztenetara, jakiteko zein diren Erkidego bakoitzari dagozkionak.

c) Auzitegi horrek berak, 140/1990 1990eko irailaren 20ko epaian (3. OJ), hau interpretatzen du: "Euskal Herriko Foru Lurraldeek mantendu ditzakete beraiei eskubide historikoengatik izendatutako eskumenak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren babesean, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren esparruan eguneraturik (KAE hauek: 11/1984, 4. OJ; 123/1984, 3. OJ; 76/1984, 4. OJ; 94/1986, 6. OJ)".

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

d) Konstituzioko 1. XGan erabilitako eskubide historiko kontzeptuak halako eskumen-edukia aipatzen du, hain zuzen ere, Foru Erakundeak modu jarraituan baliatutakoa eta Estatuak aitortzen duena; eta lurralde horien eskumenak mugarriztatzeak ikerketa historiko bat galdatu egin lezake (KAE hauek: 11/1984, 4. OJ; 86/1988, 4. OJ).

e) Eta, azkenik, ezerk ez du eragozten Konstituzioak eskumen zehatz bat Autonomia Erkidegoren baten berezko eskumen gisa izendatzeak berekin ekartzetik euskarri duen eskubide historikoaren aitortzea, 1985eko uztailaren 29ko 94/1985 KAEak dioen bezala eta hala jasorik dago juridikoki EAeri EHAEan esleitutako eskumenen batzuen esleipenean.

Izanez ere, eskubide historikoen berme konstituzionalak berekin ekar dezake, abenduaren 21eko 214/1989 KAEan (26. OJ) jasoa denez, Estatuko legegileak tratamendu arauemaile berezi bat ematea, edo nahiago bada, ohiz kanpokoak –arau komunitik apartatzen delako zentzuan– foru-lurraldeentzat, haien oinarri konstituzionala non eta Konstituzioko xedapen gehigarrian baitago, hain zehatz.

Kontsiderazio horiei jarraituz, hain zuzen, eta, haietatik ilkitzen diren mugen barruan, esan dezakegu eskubide historikoek bereganatu dutela kategoria juridikoaren izaera, eta izaera hori euskarritzat baliatu dela maila apalogoko arautzat, ohiko samarra izaki salbagueardako klausulak edo foru-erreserbakoak sartzea ohiko legerian. Badute, beraz, izaera aurrekonstituzionala eta proiektio arauemailea, nola dimentsio instituzionalean hala eskumenean, zeren:

a) Informatu egiten dituzte eragin diezaieketen lege guztiak, eta autogobernuaren kausa efiziente eta formala dira, haietan dutelako jatorria EHAEan hartutako eskumen batzuek, hala espreski aitortzen den bezala Gernikako Estatutuko 16, 17 eta 41. artikuluetan.

b) Eta ezin erabilizkoak dira Estatuko legegile ohikoarentzat eta/edo autonomikoarentzat, Konstituzioaren eta, zehazkiago, Estatutuaren aterkiak babestuak daudelako. Da, 76/1988 1988ko apirilaren 26ko KAEak (6 .OJ) dioen bezala, "... bada, berme eta interpretaziorako erregela bat, lehentasunezko tokian jartzen dituen, haien errespetu eta babesari dagokionez, foru-araubideak beren definizio estatutarioan, bai Euskal Herriko Erakunde komunen aurrean bai Estatuko botere zentralen aurrean; eta Estatuak berak zehazten ditu foru-araubide horiek beraien funtsezko edukari dagokionez, ezin ukituzkoa botere autonomiko edo estatukoaren aldetik. Kontuan hartu behar da, bestalde, ezen Estatuak berak, beste batzuetan, jaso egiten duela foru-bermeak Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuekiko dakarren muga; hala, bere 10. artikuluan. , 1 eta 3. apartatuetan, Autonomia Erkidegoaren eskumen jakin batzuk aipatzen dituen, aipatzen ditu «Herialde Historikoei dagozkien ahalmenei kalterik egiteke, beraren (Estatutua) 37. artikulua xedatutakoaz bat», esamolde hori errepikatu egiten da 25.1 artikuluan Eusko Legebiltzarraren botereentzako muga gisa. ...".

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Beraz, Konstituzioaren onarpenak segurtatzen ez badu ere halako eduki zehatzik edo halako eskumen-eremu jakinik baizik eta foru-araubide baten preserbazioa, antzemateko moduko eran minimo murrizgaitz batekin, ez du esan nahi bazterrera utzi behar dela erakunde- eta eskumen-multzo bat mantendu beharra, foru-araubide hori antzemangarri egingo dutenak, beroriez aldian-aldian eta tokian-tokian kontzientzia sozialak duen irudiarentzat, zeinak zehazten diren, gaur egungo ordena juridikoan, ohiko legegileak ezin erabil dezakeen nukleo batean, EHAEn jasotakoa.

Autonomia Estatutua bihurtu egiten da elementua, bakarra ez bada, bai inportanteena, lurralde historikoen foru-araubidea eguneratzeko, halaxe esan baitzuen KAak 76/1988 1988ko apirilaren 26ko epaian (5. OJ): "Euskal Herriko Autonomia Estatutua da, era batera, Konstituzioak euskal naziotasunari aitortzen dion autonomiarako eskubidearen adierazpen, eta foru-araubidearen adierazpen eguneratu foru-araubide eguneratu gisa, Konstituzioko 1. XGaren zentzuan. Era horretan azaltzen da, Euskadiko erakunde komunek Autonomia Estatutuaren eskutik foru-araubidearekin zuzenean lotutako gaien gaineko eginkizunak jaso izana (esaterako, kontzertu ekonomikoak), eta, alderantziz, Estatutuak lurralde historikoetako foru-organoei utzi izana beren jarduera historikoarekin nahitaez zerikusia izan ez duten hainbat eskumen –Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 37.3.f) artikulua-". 37.3.f) EHAEn-".

EHAEn foru-araubidearen eguneratze hori norabide bikoitzean ikusten du:

- a) Alde batetik, Euskal Herria joz bere 1. artikuluan, bere osoan jo ere, espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen den subjektutzat, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, baina erregimen autonomikoaren onarpenak esan nahi ez duela uko egiten zaienik Euskal Herriari herri gisa historian barrena dagozkiokkeen eskubideei, EHAEn Agindu gehigarri bakarrean jaso den bezala.
- b) Eta aitortuz Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak eskubidea badutela, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko, baina Estatutu honetan xedatutakoak ekartzeke lurralde historiko bakoitzak bereak dituen foru-araubidearen izaeraren zein bakoitzak bereziak dituen araubidearen eskumenen aldaketarik, EHAEn 37.2 artikulua agintzen duen bezala.

Foru-faktoreak badu, beraz, dimentsio bikoitz bat kanpoaldera proiektatzen dena, halako berrikuntza konjuntibo eta ez disjuntiboan, ukatzen duenean ezen EHAEn onarpenak inolaz ere esan nahi izatea uko egiten zaienik historian oinarritutako eskubideei eta, barne-dimentsio bat, aztertzen diharduguna, hain justu, eta zeinetara mugatu beharrak garen; hortaz, barne-dimentsio horrek zerikusia du Autonomia Erkidegoaren barne antolamendu instituzionalarekin, zeinetan berariaz lurraldeetako foru-entitateei esleitzen zaien beraien araubide pribatiboa, EHAEn 37.1 artikulua, eta eskumen eskusiboen multzo bat 37. artikulua 3 eta 4. apartatuetatik eta 41. artikulutik ateratzen direnak. Itundutako elementua, borondateak uztartzearen emaitza, gure sistema instituzionalaren funtsezko oinarri bihurtzen da hala.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Hala, lurralde-egitura konplexu bat konfiguratzeko da, zeinetan legegintzaren monopolioa, Eusko Legebiltzarrari esleitzen zaiona, egin behar baita, bere 25.1 artikuluan dioen bezala in fine, "37. artikulua aipatzen diren erakundeek kompetentziaz kalterik egiteke...", halako moldean non Estatutuak xedatzen duenak errespetatu beharra baitauka nola foru-araubidearen izaera hala lurralde historiko bakoitzaren araubide pribatiboen eskumenak. Lurralde-konplexutasun horrek, EHAEk bere muina den horretan ezartzen duen eskumen-banaketatik harago, behartu egiten du, botere politikoa horizontalki banatutako edozein sistematan bezala, etengabe hitz egitera eta kolaboratzera elkarrekin erakunde komunak eta lurralde historikoen artean, hori EAEko erakunde-arkitekturaren berezko zatia baita eta bere isla izan behar du ordenamendu juridikoan. EHAeko 42.a artikuluan aurki daiteke sistema akordatu edo itunduaren adierazpen zehatz bat, foru-araubidearen zati osatzaile dena eta honako hau dena, 76/1988 (9. OJ) KAren epaiaren arabera, "araubide horren berme instituzionalaren gutxienezko edukia, bada haren desagerpenak berekin lezarke foraltasunaren iraupena aitortu ahal izateko funtsezko faktore baten desagerpena".

Berme instituzionalaren teknikaren egokitasuna foru-lurraldeen eskubide historikoak babesteko eta eguneratzeko agindu konstituzionalarekin, bildu egiten da KAak foraltasunaren gune ukiezin bat bezala definitu duenera, eta hura zehazteko beharrezkoa da batez ere EHAera jotzea, zehaztu eta espezifikatu egiten baitu foru-araubidearen gutxienezko edukia, KAak azpimarratu zuen bezala 76/1988 (5. OJ) ebazpenean in fine. Gernikako Estatutua bihurtzen da hala, tresna nagusi eta oinarritzko, segurtasun juridikoa ematen diena foru-lurraldeen eskubide historikoei eta foru-osagai murrizgaitz hori era zehatzean definitzen duena. Horren ondorioz, Estatutuaren itunaren mende jarritako lege guztiak behartuak daude itun hori errespetatzera, ezin dutela bortxatu unean uneko errealitateara egokitu behar diren aitzakiatan. Hala pretendituko balitz, ustez-eta foraltasunaren irudia ez datorrela bat unean-unean dagoen kontzientzia sozialarekin, lehenik eta behin Autonomia Estatutua aldatu beharra izango da. Ezin daitekeena da beheagoko maila hierarkikoko lege batzuek aldatu ahal izatea gure Autonomia Erkidegoaren oinarritzko arau instituzionalean zehaztutako eskumen-banaketa sistema, momentu historiko bakoitzean izan daitezkeen inguruabarretan euskarriz.

Autonomia Estatutuak burututako foru-araubideen eguneratzeak bi dimentsio desberdin biltzen ditu (apirilaren 26ko 76/1988 KAEa, 6. OJa):

a) Isurki instituzionalean, "... baieztatu egiten da Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian, Estatutuko 3. artikuluan, kotsakratutako berme konstituzionala lurralde historikoetako bakoitzaren autogobernuko antolamenduari eta erakundeek dagokienez, eta 37.2 artikuluan, hemen, nola foru-araubideaz hala lurralde historikoen eskumenez denaz bezainbatean, hau ezartzearekin: «Estatutu honetan xedatutakoak ez du ekarriko lurralde historiko bakoitzak bereak dituen foru-araubidearen izaeraren zein bakoitzak bereziak dituen araubidearen eskumenean aldaketarik».

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

b) Eskumenen isurkian, eguneratzeak zehaztu eta espezifikatu egiten du foru-bermearen edukia, bi mota zehaztuz, lurralde historikoei dagozkienak, aipatutako ebazpenak jasotzen duen bezala:

a. Estatututik zuzenean eratorritako eskumen eskusiboak: Dira, hain zuzen ere, 3. apartatuko a) eta e) bitarteko azpiapartatuetan izenez zehaztutakoak, eta 1. apartatuko lehen tartekian jasotakoak, «Estatutu honetan zehaztu daitezzen ... guztiak».

b. Erkidegoko botereen jarduera jakinen bidez zehaztu beharko diren eskumenak, eta barne hartzen dituztenak bai «eskuordetu dakizkien» eskumen eskusiboak (37.3.f artikulua) Estatutuan zehaztu gabe eskuordetze hori nork egiten duen, bai eta «Eusko Legebiltzarrak zehaztu ditzan gaietan, arau bidez garatu eta beren lurraldean betearaztea» ere (37.4 artikulua).

Baditugu hortaz bi eskumen suerte trszendentzia juridiko banarekin. Alde batetik, foraltasunaren gune ukiezinaren parte direnak, hots, Estatutuaren aginduz, EHAEk espreski izendatzen dizkien eskumenak, haien artean sartuz beren oinarria araubide pribatiboetan izan eta LLHHeK baliatzen aritu ziratekeenak, Estatutua onetsi aurretik, hain zuzen; eta, beste eskumen batzuk, foraltasunaren hedatze-eremuaren parte direnak, zeinen edukia jartzen baita beste organo batzuen jardunaren mende baina ez direnak aurkitzen EHAEk gordetzen duen minimo murrizgaitz horretan eta, beraz, aldatu egin daitezkeenak, betiere eskumen-banaketako sistemaren aldaketa ikuspuntu formal batetik egitez geroz lege-mailako arau batekin, Eusko Legebiltzarrak emanarekin, zeinak artikulatuko baitu modu zuzen, berariazko eta oinarrituan aldaketa hori, Batzorde honek aditzera eman zuen bezala 5/2003 Erabakian, mahastizaintza eta ardogintzaren antolaketarakoaren gainekoan.

Foru-araubidearen edukiaren osagai nuklear ukiezin hori zehazten da honako bi aginduetan:

1.- EHAEko 3 eta 24.2 artikulua, dimentsio instituzionalean ere aipatu ditugunak, zeinarenatik Euskal Herria osatzen duen Herrialde Historikoetako bakoitzak, betiere berorren baitan, autogobernuko bere antolaketa eta instituzio propioak gorde baitituzake edota, bestela, berrezar eta egunera, eta horrek badu bere isla 37.1 artikuluan zeinarenatik Herrialde Historikoen organo foralak horietako bakoitzaren erregimen juridiko propioaren arauera antolatuko diren.

2.- 10.34 artikulua; hari jarraituz, kamio-bideei dagozkienetan, Konstituzioko 148. artikulua 1. zenbakiaren 5. apartatuan bildurik dauden kompetentziez gainera, Herrialde Historikoetako Diputazio Foralek osorik gordeko baitituzte beren baitan dituzten erregimen juridiko eta kompetentziak, edo eta, hala nahi izanez gero, Estatutuaren 3. artikulua arauera berrartuko dituztenak.

3.- 37. artikulua, 2. epigrafea eta 3. artikuluko a), b), c), d), e) eta f) –lehenengo tartekia– apartatuak “Estatutu honetan seinalatuko diren guztiak”.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

4.- 41. Artikulua, zeinak, bere 1. epigrafean dioen legez, xede baitu Ekonomia Itunaren foru-sistema tradizionala jasotzea eta bere 2. epigrafean ezartzen baititu errespetatu behar dituen oinarriak eta printzipioak, aureikusiz Estatuaren esku-hartze bat eta Eusko Legebiltzarrarena ere bai, honako eskumen hauetan zehatz ditzakegunak:

- a) Lurralde historikoek zerga-araubidea mantentzea, ezartzea eta arautzea beren lurraldean, kontuan hartuz Estatuaren zerga-egitura orokorra, Estatuarekiko koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako ekonomia-itunak berak jasotzen dituen arauak eta Eusko Legebiltzarrak Autonomia Erkidegoaren barruan helburu horiek erdiesteko ematen dituenak.
- b) Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, kitatuko, bilduko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak nork bere lurralde historikoaren barruan, salbu eta muga-zergari dagozkionak eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak, betiere Estatuarekiko lankidetzari eta bere goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.
- c) Aplikatzea, zeinek bere lurraldean, Estatuak lurralde erkideari aplikatzea erabaki dezakeen arau fiskal ohiz kanpoko eta koiunturalak, arau horietarako zehaztutako indarraldi bera ezarriz.

Horren ondorioz, KAak esan zuen bezala –behin eta berriz aipatutako epaian–, nekez ulertu ahal izango da ezen foraltasunaren gune ukiezin hori, Estatuaren aginduz bete beharrekoa, zehazteke dagoela, eta minimo murrizgaitz honexetara beharko da moldatu gure kontsideraziopean jarritako proposamena dituen aginduetako bakoitzaren analisi partikularizatuagoan.

BIGARRENA.- FORU ARAUBIDE PRIBATIBOAREN BERMEAREN PROIEKZIOAZ EUSKO LEGEBILTZARRAREN LEGEGINTZA ESKUMENA MUGARRIZTATZEN

Orain azertu behar da orokortasunez planteatu den bigarren gaia, hau da, Eusko Legebiltzarraren eskumena aldatzeko EAEn ezarritako eskumen-sistema Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen aldaketaren bidez.

Arbitraje Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legeak ahalbidetu da bere jardunaren bidez eta bere Erabaki eta Ebazpenen bitartez LHL erreformatu eta aldatzeko prozedura bat ezartzea, lege bat zeinak ohiko lege izateaz batera euskal zuradura instituzionalean duen egiteko trazedentalala biltzen duen.

Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkuraren azaroaren 3ko 05/2003 Erabakia, Arabako Batzar Nagusiek eta Arabako Foru Aldundiak Mahats-ardoaren Antolaketarako Lege-Egitasmoaren gainean aurkeztutako eskumen-arazoei buruzkoa, lehenengoa izan zen inguruabar horiek ezarri zituen:

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

"Gauzak horrela, ez datoz bat, ezta hurrik eman ere, Lurralde Historikoen Legeari edukiaren ikusmiratik dagokion garrantzia eta lege horrek formaren aldetik duen lege-itxura. Nahikoa da Eusko Legebiltzarrak lege-lerruneko xedapen bat ematea, lege garrantzitsu horren edukia aldatu ahal izateko.

Begi-bistan dago horixe nahi izan zuela Lurralde Historikoen Legea onetsi zuen euskal legegileak berak, eta, horren inguruan, oso adierazgarria da legearen beraren zioen azalpena: "Lehenengo idazpuruak, bukatzeko, Kondaira-Lurraldeen agintepideak esandako oinarri- irizpide hoiei atxikiz araupetzen ditu. Horregatik eta "nolanahi ere" dagozkien agintepideak sendetsiz bat, oraingo Lege honek geroan sortu daitezkeen egoera berriei egokitu ahal izatea oharrematen du, batetik Estatutua agintepide berriak egiteratzearen, eta bestetik herritarrei zerbitzu hobea egiteko aholkugarri gertatu eta agian izan daitekeen agintepide-birbanaketa baten ondorioz gai berriak eskuratu ahal izateko edo horietarako eskua emateko lege-bideak jarriaz. Honela, gure Herriaren gizarte, ekonomia eta politikaren aldetikako bilakakuntzaren beraren indarrezko ikusmolde egokikaitzik eta zurrunik eza bermatzen da".

Argi dago euskal legegileak buruan zuela, eskumen-banaketari dagokionez behinik behin, Lurralde Historikoen Legeak eduki dinamikoa izatea; horrek saihestuko luke legearen eskema behin betiko finkatzea eta bertan ezarritako esparrua ez garatzea." (2. Zuzenbide Oinarria).

Jarraitu zuen Arbitraje Batzordeak Erabaki berorretan, aipatuz, zehazkiago, Eusko Legebiltzarrak emandako lege-lerruneko araua izatearen baldintza formala – aldaketa hori zuzenean, beren beregi eta oinarri sendoekin ezarriko duen araua, hain zuzen–, onartuz legegintza-teknika era askotakoa izan daitekeela:

"Proposatutako hirugarren abiaburuari dagokionez, aipamen horretatik zentzuzko ondorioa atera daiteke, diskurtsoarekin hariarekin bat datorrena. Ondorio horri ekinez, Lurralde Historikoen Legeak ezarritako eskumen-banaketaren eskema, hau da, horren eduki materiala aldatzeko, nahitaezkoa da, formaren ikusmiratik behinik behin, Eusko Jaurlaritzak lege-lerruneko arau bat ematea. Arau horrek zuzenean, beren beregi eta oinarri sendoekin ezarri behar du aldarazpena. Osterantzean, Lurralde Historikoen Legeak bere eginkizun nagusia galduko luke, hain zuzen ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan oinarrizko eskumen-banaketa egitea. Hori gauzatzeko legegintza-teknika era askotakoa izan daiteke. Onargarria da, adibidez, Lurralde Historikoen Legea oso-osorik eraldatzeko xedapen orokor bat ematea; xedapen hori gaikuntza-titulua izango da, gerogarrenean arauketa zehatza emateko, ordu arte indarrean egon izan denaren desberdina. Onargarria da, era berean, lege berezi bat edo arlokako lege bat ematea; lege horrek beren beregi eskumen-banaketa berri bat ezarriko du, eta, horrekin, Lurralde Historikoen Legeak egindako eskumen-banaketaren eskema aldaraziko da. Modu horietan jokatuz gero, uztartu egin daitezke segurtasun juridikoa eta egungo eskumen-banaketari zor zaion errespetua, banaketa hori baita Lurralde Historikoaren Legearen oinarrizko edukia. Bi-biok uztartzeaz gain, aldarazpenerako eta egokitzapenerako eskakizunak betetzen dira denboran zehar, eta ez da beharrezkoa, formaren ikuspuntutik eta arau-

EBAZPEN BATZORDEA **COMISIÓN ARBITRAL**

hierarkiaren ikuspuntutik, mekanismo bereziak ezartzea aldarazpena burutu ahal izateko." (2. Zuzenbide Oinarria).

Aipua osatu behar da Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkuraren otsailaren 8ko 01/2005 Erabakiaren beharrezko erreferentziarekin, Arabako Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiak Uren Lege Proiektuaren gainean aurkeztutako eskumen-arazoei buruzko erabakiarekin, hain zehatz ere:

"Lehenengoa.– Alderdiak aipatu duten eran, Batzorde honen ustez, abiapuntu gisa, gogoratu beharra dago 5/03 Erabakian funtsean esan zena LHLren aldaketak bete beharreko parametroei buruz. Hauxe esan zuen ondorio gisa: "LHLren eskumen-banaketaren eskema aldatzeko, haren eduki materiala aldatzeko, beharrezkoa da, ikuspuntu formal batetik, Eusko Legebiltzarrak lege mailako arau bat ematea, aldaketa hori zuzenean, berariaz eta oinarriturik artikulatzeko, zeren bestela LHLk galdu egingo bailuke Euskal Autonomia Erkidegoan duen bere berezko funtzioa, hots, eskumenen oinarritzko arauketa egitea. Arauketa hori egiteko, legegintza-teknika bat baino gehiago erabili daiteke: LHL osotoro eraberritzeko xedapen orokor bat; gaitze-titulu bat, une batera arte zegoenaz bestelako erregulazio zehatz bat gero egin ahal izateko; edo lege berezi edo sektorial bat, egin nahi den eskumen-banaketa berria espreski zedarriztatzeko eta, ondorioz, LHLren eskumen-banaketaren eskema aldatzeko. Horrela bakarrik uztar litezke, alde batetik, segurtasun juridikoa eta oraingo eskumen-banaketaren errespetua (LHLren mami nagusia), eta bestetik, eskumen-banaketa hori denboraren joanean aldatu eta egokitu beharra eta, bestalde, banaketa hori aldatzeko orduan, ikuspuntu formalek eta arauen hierarkiaren ikuspuntutik, mekanismo berezirik ez izatea". (1. Zuzenbide Oinarria).

Arbitraje Batzordeak bere 05/2003 Erabakian ezarritako eta gero 01/2005 Erabakian berretsitako doktrinak berriz ere aurkitu zuen bere kontrastea norabide berean Arbitraje Batzordearen bi erabakitan, hain zuzen ere, Euskadiko Udal Legeari buruzko bi proiekturi buruzkoetan.

Haietako lehenengoan, hau da, urriaren 20ko 01/2008 Erabakian, LHL nahi zen aldatu, orduan eztabaidagai zen Euskadiko Udal Lege Proiektuaren azken xedapenak xedatutakoaren arabera, eta indargabetu LHLren bigarren xedapen gehigarria. Arbitraje Batzordeak erabaki zuen kasu honetan, LHLren erreforma horri buruz, honako hau, lehen esandako irizpidea azpimarratuz:

"Haatik, eskumenak mugatzeko esparruan horrek duen eragin ukaezina kontuan izanik, egoki zehaztu zituen zenbait eskakizun Arbitraje Batzorde honek bere 05/2003 Erabakian: hasteko, Eusko Legebiltzarraren lege-mailako araua, «aldaketa zuzen, berariaz eta funtsatuta jasoko duena bere artikuluetan, hala izango ez balitz LHLk galdu egingo lukeelako Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko eskumenak banatzeko bere funtzioa».

Kasu honetan, ordea, eskakizun horiek bete egiten dira -eraberritzearen oinarria Euskadiko Udalei buruzko lege-proiektuaren zioen adierazpenaren azkeneko pasartean azaldu da-, lege formal, zuzen, berariazko eta funtsatua baita. Beraz, ez

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

dago inolako eragozpenik lege-aldaketak egiteko, eraberritzeko tresna soilaren ikuspegitik. Arazoa sortuko litzateke eraberritze horrek eragin kaltegarria izango balu foru-eskumenetan eta horrek gizartean duen ezagutzeko moduko irudia aldatuko balu. Kasu horretan erantzunak ezezkoa izan beharko luke.” (3. Zuzenbide Oinarria).

Beste aukera bat izan zuen Arbitraje Batzordeak bere 03/2012 Erabakian, apirilaren 19koan, Euskadiko Udalei buruzko beste Lege Proiektu baten inguruan, LHLren balizko aldaketarekin lotutako hainbat gairi konpontzeko eta hau sostengatu zuen:

“11.– Aurreko oinarrietan zehaztutako osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko eskumen-banaketaren gaineko interpretazioa kontuan hartuta, argi geratzen da, lehenik eta behin, aurkaratutako xedapenek ez dutela EHAEk zehaztutako eskumen-banaketan aldaketarik eragiten. Beste alde batetik, prozedura honetan aurkaratzearen xede diren azken xedapenaren atalek aurreikusitakoaren bidez LHLren xedapenak aldatzen dituzten kasuetan, Euskadiko Udalei buruzko lege-proiektuak guztiz betetzen ditu Ebazpen Batzorde honek zehaztutako eskakizunak, ondorengo legeek LHLk lurralde historikoei esleitutako eskumenak aldatuz gero, aldaketa «zuzena, berariazkoa eta arrazoitua» izan behar dela kontuan hartuta. Eta lurralde historikoei EHAEk, Ekonomia Itunak eta LHLk eskatutakoa baino esku hartzeko esparru zabalago bat aitortzen die.” (A Zuzenbide Oinarria, laugarrena, hamaika)

Lege-proposamena irakurrita egiten den lehenengo egiaztapena da bada, ikuspegi formal batetik behintzat, lehen adierazitako baldintzak betetzen direla eta, gainera, ez dela aldean arteko eztabaidagai LHL aldatzeko erabilitako erari buruzko gaia.

Gaiak, hala ere, lotura du, Arbitraje Batzordeak LHL dela-eta marraztutako baldintza formalen mantentzearekin bainoago, JLParen eduki materialari buruzko alderdiarekin eta ea horrek aldatzen duen ala ez eskumen-banaketako esparru bat, Eusko Legebiltzarrak erabil ditzakeen eskumenetatik harago dagoen eta eskumen horiek gainditzen dituen. Kontua ez da esatea foraltasunaren gune ukiezina ezin aldatuzko zerbait dela; aitzitik oso, hura kasuan kasuko eta aldiari aldiko beharrei egokitzea zerbait beharrezkoa eta bistakoa da, nola orobat beharrezkoa eta bistakoa baden egokitze hori egin behar dela bat etorri EAEko barruko eskumen-banaketak behar dituen baldintzekin formalki ez ezik, are eskumen-banaketa horren eduki materialari dagokionean ere.

Hemen bere zentzu guztia hartzen du lehen transkribatutako gogoetak, Arbitraje Batzordeak 05/2003 Erabakiaren kariatara egin zuenak, kausa, gainera, Arbitraje Batzordearen dagoeneko aipatutako gainerako Erabakiena, zeren Erabaki horretan azpimarratu egin baitzen LTHaren giltzarritzotasuna eta egoera berrietara egokitzeko bere posibilitatea, egoera berri horiek bihar-etzi sor bailitezke Estatutuaren garapenaren ondorioz eta horrek Autonomia Erkidegoari ekar liezazkikeen eskumen berrien baliatzearen ondorioz eta/edo hiritarrak hobeto zerbitzatzeko komenigarri gerta litekeen balizko eskumen-birbanaketa baten indarrez.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Balitzko eskumen-aldaketak, beraz, errespetatu egin behar ditu jadanik adierazitako baldintza formalak, baina ez dago besterik gabe esaterik baldintza formalekiko eta haiek betetzearekiko errespetu horrekin posible denik LTHaren aldaketarik aldaketa horrek eragiten baldin badie euskal legegile ohikoarentzat xedaezinezko diren eskumen-elementuei, foraltasunaren gune ukiezinean sartuak, bada, horiek, Konstituzioak eta Estatutuak babesturik egoki, beren jatorriagatik eta gero Konstituzioak jaso izanagatik, ezin direlako aldatu Eusko Legebiltzarraren bitartez.

Horregatik onartu beharra bereizkuntza hori: bateko, foraltasunaren gune ukiezinarene parte diren eskumenak, ezin direnak aldatu LTH aldatu ere Arbitraje Batzordearen exijitutako baldintzekin, eta, besteko, harako beste eskumen-termino haiek foraltasunaren hedatze-eremuaren parte direnak eta aldatu egin daitezkeenak LTHren balitzko arauketa baten medioz baldin eta Arbitraje Batzordeak lehen aipatu ditugun Erabakietan adierazitako baldintzak betez gero.

Azken finean, aztertu egin behar da ea JLPan planteatzen dena ote den erreforma bat euskal legegile ohikoak izendaturik daukan eskumen-eremua gainditzen duena, funtsezko eran aldatzen duelako foraltasunaren gune ukiezina, aldeaz aurretik zehaztua eta ezin xedatuzko zaiena.

Hori ez da, inolaz ere ez, gehitzea edo metatzea beste baldintza gehigarri batzuk LTH aldatzeko, Arbitraje Batzordeak ezarri eta dagoeneko aipatutako irizpideen arabera, baizik eta egiaztatzea Lurralde Historikoen Legeak jaso egiten duela eskumen-banaketako esparrua Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, baina eskumen-banaketa horretan badirela zenbait gai zeinak beren izaera xedaezinagatik balitzko erreforma batetik landa geratzen diren Eusko Legebiltzarraren esparruan, EAEko ohiko legegilearen egoitza bera.

Non eta foraltasunaren gune ukiezin horretan dago euskal legegileak errespetatu behar duen xedaezintasun-muga zeren hura aldatzea eskumen hutsetatik harago doa eta antolamendu instituzionalaren eremuari eragiten dio eta ondorio gisa dakar Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren beharrezko aldaketa, eta hori bistan denez euskal legegile ohikoaren eskumen-irismenetik kanpo geratzen da.

HIRUGARRENA.- FORU OGASUNEN ARLOKO ESKUMENAZ ETA UDALERRIEN FINANTZA-TUTORETZA BALIATZEAREN AZ

Kunpli da, aurrenik, tokiko ogasunen gaia mugarriztatzea, eta hartakotz behar da aztertu azpiko eskumen-titulua edo tituluak bai eta eskumen hori osatzen duten ahalmen multzoa ere. Prozeduran diharduten lau erakundeek baliarazi egiten dute, beren argudiaketaren euskarri, Arbitraje Batzordeak aurretik beste Erabaki batzuetan egindako interpretazioa: 2/2003 Erabakia, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauari buruzkoa (EHAA, 204.a, 2003ko urriaren 20koa); 1/2008 Erabakia, Udal Lege Proiektuaren buruzkoa (EHAA, 115.a, 2008ko ekainaren 13koa), eta 3/2012 Erabakian, apirilaren 19koan, emandako

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

boto partikularra (EHAA, 115.a 2012ko ekainaren 13koa), Euskadiko Udal Lege Proiektuaren inguruan emana. Aldiz, Euskal Sozialistak taldeak bere alegazioak artikulatzen ditu Arbitraje Batzorde honek 3/2012 Erabakian jarraitutako interpretazioari jarraituz.

Prozedura honen xede den eskumen-arazoa ebazteko, beharrezkoa da hastea "Tokiko Ogasunak" eskumen-titulua mugarriztatetik eta, horren ondoren, zehaztea zeini dagokion eskumen hori erakunde komunak eta organo foralen arteko eskumen-banaketaren arauen arabera.

Lehenengoa: "Tokiko Ogasuna" eskumen-titulua mugarriztatzea

1.- Ez dago EHAEan Ogasun orokorrari buruzko eskumen-titulu bereizirik, Estatuarentzat aurreikusita dagoen bezala Konstituzioko 149.1.14 artikuluan; bestalde, EHAk ez du berariaz aipatzen Tokiko Ogasuna eskumen-titulu bereizi modura. 2.- Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 10.4 artikulua toki-araubideari buruzko eskumena aitortzen dio EAeri, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe.

2.- Arbitraje Batzordeak bere 3/2012 Erabakian interpretatzen du Toki-ogasunei buruzko eskumena, bere osoan, "toki-araubidearen" esparruko zati dela eta, beraz, EAeren eskumenarena. Ondorio horietarako, hau dio:

"EHAEren 10.4 artikulua EAeri ematen dio toki-araubidearen esparruko eskumen «esklusiboa». Eta topiko bat da toki-ogasunak «toki-araubidearen» esparruko zati direla esatea. Horixe bera baieztatu du behin eta berriz Konstituzio Auzitegiaren (KA) jurisprudentziak –guztien artean, ikusi Toki Ogasunen Legeari buruzko abenduaren 13ko 233/1999 KAeren 4. oinarri juridikoa–; horrela jasotzen du ere indarrean dagoen legeriak, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua –ikus Toki-ogasunen Legearen Testu Bategina– jasotzen duen Estatuaren eskumenari lotuta, eta horrela onartu du ere Ebazpen Batzorde honek –ikus 2/2003 Erabakia–. Toki-araubidearen gaineko eskumena onartuta, «Konstituzioaren 149.1.18 artikulua xedatutakoari kalterik egin gabe», horrenbestez, ezin da zalantzan jarri EAk toki-ogasunen gaineko eskumena bere osotasunean bere gain duela".

3.-Esandako Erabakian adierazitako jarreraren aurrean, esan beharra dago KA behin eta berriz interpretatu duela ezen, toki-ogasunei buruzko zenbait alderditan, lehenetsutako eskumen-titulua dela 149.1.14 artikuluko "Ogasun Orokorra" titulua.

Zentzu horretan, 233/1999 KAren epaiak hau dio:

«Horrelako neurri bat (toki-erakundeek parte hartzea Estatuaren diru-sarrera fiskaletan) dudagabeki zuzendurik ote dagoen toki-ogasunen finantza-nahikotasuna bermatzera (Konstituzioko 142. artikulua) (...) hura inkardinatu behar da argudiatze-

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

dhalegin handiagorik gabe (...) Ogasun Orokorraren eskumenean» (233/1999 KAEa, 31. zuzenbide oinarria).

KAk onartzen du badirela zenbait xede (hala nola den toki-ogasunen finantza-nahikotasuna babestea), Estatuari permititzen diotenak toki-ogasunaren alderdi batzuk arautzea, "Ogasun Orokorrari" buruzko 149.1.14 artikulua babesean.

Zentzu berean, 237/1992 KAEak (6. OJ), 96/1990 KAEa aipatzen duela, eman zuen aditzera "ez dagoela ez jakiterik Estatuaren eskumen bikoitzaren berri, konbergentea hemen, Ogasun Orokorraren gainean eta Administrazio publikoen araubide juridikoa ezartzeko (Konstituzioko 149.1.14 eta 18 artikulua), zeren zerk eta toki-entitateek Estatuko tributuetan parte hartzeak duen izaerak, beren autonomiaren berme gisa, bihurtzen baitu baliabide-hornitzeko sistema hori ogasun horien funtzionamenduaren euskarri «Ogasun Orokor osoaren barruan» eta, horren ondorioz, «beronen oinarritzko elementu» bilakarazten."

4.- Doktrina jurisprudenzial horrek badu bere isla, berebat, Toki Ogasunak Arautzeko Legearen testu bateginaren 1.1 artikuluan bada, bere aplikazio-eremua arautzean, xedatze du Tokiko Administrazioaren araubide juridiko finantzarioaren oinarriak direla, Konstituzioaren 149.1.18. artikulua babesean emandako oinarriak, alegia, lege honetan jasotako aginduak, 186. artikuluko 2. eta 3. apartatuak izan ezik, salbu eta tokiko tributuko sistema arautzen dutenak eta Konstituzioaren 142. artikulua aipatzen dituen Estatuko tributuen partaidetzak garatzen dituztenak; hori guztia Konstituzioaren 149.1.14. artikuluan xedatutakoaren arabera Estatuari dagozkion eskumen eskusiboak kalterik egin gabe.

5.- Zentzu berean mintzo da Arbitraje Batzordearen 2/2012 Erabakian emandako boto partikularra tributuko itunduetako parte-hartzearen gaineko eskumena-ri buruz, hau esatean:

Konstituzioaren 142. artikulua baino aipuak, tributuko eskumenei buruzkoarekin bat doanak, eta 149.1.14 artikulua buruzko azken salbuespenak (Ogasun orokorra) errotik ezesten dute Erabakiak burututako eskumen-kokatzea, zeren Erabaki horrek, esan denez, segurtatzen baitu ezen tributuko itunduetako parte-hartzeari buruzko eskumena toki-araubidearen gaiaren esparrukoa dela. Arauketa horretatik ilkitzen da ezen, zer eskumen-titulua gaitzen dion Estatuari esku-hartze arauemailea toki-erakundearen partaidetzaren gainean Estatuko diru-sarreretan, eskumen-titulua hura ez dela, berriro diogu, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua (Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak) baina 149.1.14 artikulua (Ogasun orokorra) eta artikulua horretan ez da existitzen oinarriak/garapena jokoak zeren eta alor horretan eskumenak eskusiboak baitira halako moldez non ogasun bakoitzaren titularra baita eskuduna erabakitzeke parte-hartzearen araubidea beren tributuko propioek sortutako diru-sarretan (61. apartatua).

6. Gainera, KAK berak defendatu du ezen, Estatuak kreditua antolatzearenean duen oinarritzko eskumenaren indarrez (149.1.11 art.), Estatuari dagokiola eskusiboki

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

toki-erakundeen zorpetzea permititu behar duten baldintzak edo aurrekontuak ezartzea. Urriaren 23ko 171/2014 bere Epaian (4. OJ) hau esan du:

“...toki-erakundeen zorpetze-eragiketen baimen zehatza zuzenean dagokio haien finantza-tutoretza izendatua duenari —Estatua edo eskumena daukan Autonomia Erkidegoa—, nahiz eta eskusiboki Estatuari dagokion zorpetze hori permititu behar duten baldintza orokorrak edo aurrekontuak ezartzea [goiz, 4/1981 KAE, otsailaren 2koa, 16 f OJ]; eta KAE hauek: 134/2011, 14 b) OJ; 196/2011, 12 a) OJ; 197/2011, 15. OJ; 120/2012, 7. OJ], dena ere kontuan izanik dagoen doktrina Estatuaren oinarritzko eskumenari buruz kreditua antolatzearenean; eskumen hori modu hedakorrean interpretatu dugu “exekuzio hutseko egintzak sartzeraino” [133/1997 KAE, uztailaren 16koa, 4 B) eta 9 A) b) oinarri juridikoak; eta 235/1999 KAE, abenduaren 20koa, 3. OJ]. Zehazki, 134/2011 KAEan, abenduaren 12ko 18/2001 Legearen –aurrekontu-egonkortasunari buruzko lege orokorra– 23.2 artikulua dela eta, zeinak baldintzatu egiten baitzion toki-ogasunak arautzeko abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 54. artikuluko kreditu-eragiketak eta zor-jaulkipenak baimentzea aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete izanari, sostengatu zuen zela preskripzio bat toki-erakundeen kreditu-eragiketen eta zor-jaulkipenen finantza-ordenaziokoa zeinak estaldura legitimoa aurkitzen baitu Konstituzioren 149.1.11 eta 13 artikuluko erregeletan eta ez baitakar erakunde horien autonomiaren urraketarik ez beraien nahikotasun finantzarioarenik, biek ere lotu beharra baitaukate Estatuaren eskumen esandako horiek berekin daramatzaten mugei [14 b) OJ].

7.- Beraz, KAren doktrinari jarraituz, eta bat etorritz Arbitraje Batzordearen 2/2012 Erabakian emandako boto partikularren interpretazioarekin, esan daiteke ezen “Toki-ogasunen” araubide juridikoa dela-eta, toki-araubidearen oinarritzko legeriari buruzko Konstituzioren 149.1.18 artikuluz gain, 149.1.14 artikuluko “Ogasun orokorra” titulua ere ari dela horretaz, eta Estatuaren oinarritzko eskumena ere bai kreditua antolatzearenean (Konstituzioren 149.1.11 art.).

Horren ondorioz, eta lehenengo gai honetaz, azpimarratu beharra dago “Toki-ogasunen” arloan eskumen-titulu bat baino gehiago ari direla, "toki-araubidea" eskumen-titulu eskusibotik harago; alde horretatik, ez dirudi onartzeko modukoa denik esatea toki-araubideari buruzko eskumen-tituluak Toki-ogasunen gaia “bere osoan” biltzen duela, Arbitraje Batzordearen 3/2012 Erabakian adierazten den bezala.

Hemendik aurrera, aztertu egingo dugu toki-ogasunei buruzko eskumenaren barne-banaketa EAE barruan.

Bigarrena. Eskumenen barne-banaketa –Erakunde komunak eta Lurralde Historikoen artean- Toki-ogasunaren arloan.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan, toki-ogasunaren gaia –berezko gai gisa– esleitu gabe dago, eskusibitatez, ezein erakunderi. EHAEn 10.4 artikulua EAEri

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

izendatzen dio “toki-araubideari” buruzko eskumen eskusiboa, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe.

EHAEn 37.3 artikulua arautzen ditu Lurralde Historikoen eskumen eskusiboak eta, beste batzuen artean, bere buruari esleitzen dio bere instituzio propioen antolamendu, erregimen eta ihardunbideari buruzko eskumena, bai eta bere presupostuen prestaketa eta onarpenari buruzkoa ere. 37.3) artikulua f) letran igorpen-klausula bat ezartzen da: “Estatutu honetan seinalatuko diren guztiak edo eta berorien eskutan utziko direnak”. Klausula horrek eskumen jakin batzuetara garamatza, hain zuzen ere, –foraltasunaren bermearen indarrez– honako hauek euskarri dituzten eskumenetara: Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria, EHAEn 41 eta 42. artikulua (Ogasun eta Ondareari buruzko III. Titulua) eta, Estatutuak berak hala igorritik, Ekonomia Itunaren Legea. Ezin daiteke ahaztu ezen Konstituzio Auzitegiak arestian emandako 2016ko ekainaren 23ko 118/2016 epaian (181. BOE, 2016ko uztailaren 28koa), bere 12. oinarri juridikoan defendatu duela ekonomia-ituneko araubidea “sartua dagoela foru-araubidearen nukleoan eta bereizgarri duela “araubide fiskal propio” bat izatea, babestu besterik egiten ez duena bere “lurralde-autogobernuaren” edo bere “foraltasunaren” berezitasun batzuk (76/1988 KAE, apirilaren 26koa, 2 eta 4. OJJAk).

Era berean, esandako epaiaren 3. oinarri juridikoan dio foru-arau fiskalen baliozkotasunaren parametro berehalako edo zuzeneko direla, Konstituzioaz gain, bai Autonomia Estatutua, bai Kontzertua, azken bi arau hauek ordenatu egiten dituztelako Estatuaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoen arteko tributu-harremanak.

Ekonomia Itunak, gaur egun maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak arautuak, arautu egiten ditu EAEk Estatuarekin dituen finantza- eta tributu-harremanak eta EAEko finantza- eta tributu-sistemaren bizkarrezurra da.

EAEko Autonomia Estatutuko 41. artikulua hauxe dio: Lurralde historikoetako instituzio eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute, beren lurraldearen barruan ari direla. Horretarako, Espainiako Estatu federalaren zerga-egitura orokorra kontuan hartuko dute, bai eta itunak berak Espainiako Estatu federalarekiko koordinazioa, zerga-harmonizazioa eta lankidetzari lortzeko biltzen dituen arauak eta Euskadin bertan helburu horiek erdiesteko Eusko Legebiltzarrak ematen dituenak ere (EHAeko 41.2.a). Autonomia Estatutuari beraren 41.2.b artikulua, aldiz: Foru-aldundi bakoitzak ordainaraziko, kudeatuko, kitatuko, bilduko eta ikuskatuko ditu zerga guztiak nork bere lurralde historikoaren barruan, mugazergari dagozkionak eta gaur egun zerga-monopolioen bidez biltzen direnak ezik, beti ere Estatuarekiko lankidetzari eta bere goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe. Beraz, Ekonomia Itunaren sistemaren tributu-arloko eskumen arauemaileak esleituak daude Ekonomia Itunaren Legearen bitartez ez ezik, are konstituzionaltasun-multzoak ere, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak eta EHAek osatutakoak.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

EHAren 42. artikulua, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren diru-sarrerak arautzearekin, dio bere a) letran Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko dituela banaketa zuzenerako irizpideak eta, irizpideon arabera, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak adostu eta gauzatzeko erabiliko den prozedura.

76/1988 KAEak (9. OJ) elementu adostu edo itundu horri iritzi dio foru-araubidearen nukleoaren osatzaile eta araubide horren berme instituzionalaren gutxienezko edukaren zati, hau esan baitu, esan duenez:

“...legegintzako-aurrekariez, Euskal Herriaren autonomiaren erakunde-konfigurazio bereziaz eta Autonomia Erkidegoaren eta Lurralde Historikoen interesen arteko konparazioaz iritzi beharra dago ezen EHAko 42. artikuluko “adostu” esapideak berekin dakarrela borondate-adostasun edo -akordio bat galdatzea Erakunde komunen eta lurralde Historikoen artean”.

Epai horretan dio Konstituzioaren Auzitegiak borondate-akordioaren desagertzea berekin lekarkeela foraltasunaren iraupena aitortu ahal izateko funtsezko faktore baten desagertzea. Itundutako elementu horrek, edo borondateak uztartu behar direnak, badu bere proiektzioa gure ordenamenduko zenbait legetan aurreikusitako parte-hartze mekanismoetan.

Zentzu horretan, Ekonomia Itunaren tramitazio parlamentarioak eta haren aldaketek bere behar dute errespetatu foru-berme instituzionalaren isurki partizipatiboa, bada Gorte Nagusietan tramitatzen da Artikulu Bakarreko Legearen bidez eta irakurraldi bakarreko prozeduran. LHLk ezartzen ditu, halaber, zenbait prozedura-berme Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren Akordioa formalizatuko duen Eusko Legebiltzarraren legearen tramitazioan, Akordio horren ondorioz zehazten direla balaibideak banatzeko metodologia eta Lurralde Historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoaren aurrekontu-gastuei egin beharreko ekarpenak, gutxienez hiru aurrekontu-urteko aldiatarako indarrarekin. LTHren aurreikuspenaren arabera (22. Artikulua, Zortzigarrena), Akordio hori barne hartuko duen Eusko Legebiltzarraren Legea onetsi beharra dago berriazko prozedura batez, eta tramitatu Artikulu bakarreko lege bidez eta irakurraldi bakarreko prozeduran.

LHLk aurreikusten ditu baita zenbait mekanismo foru-erakundearen parte-hartze aktiboarentzat erabakiak elkar-hartzean eta adostasun instituzionala bilatzean Eusko Legebiltzarrean batere legerik onartu aurretik, eragiten dienik Lurralde Historikoek baliabide-banaketa eta Lurralde Historikoek Ogasun Nagusiari egin beharreko ekarpenen dauzkaten eskumenei. Interesgarria da azpimarratzea LHLk ezartzen duela ezen Finantza Publikoen Euskal Kontseilua joko dela eratutzat, halaber, “EHAko udal-erakunde maila osoaren eta bere sektore publikoaren finantza-jardueran Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin eta lurralde historikoetako foru-ogasunekin koordinatze aldera” (28.1 artikulua azken tartekia, LLEren azken xedapenetako lehenengoan 1. zenbakiak sartua).

EBAZPEN BATZORDEA **COMISIÓN ARBITRAL**

Hurrengo paragrafoetan garatzen den argudiaketatik ondorioztatu daitekeen bezala, EHAEko 10.4 artikulutik –EAEri “toki-araubidearen” eskumena esleitzen diona–, eta hainbat arautatik eratorritako araubide ekonomiko-finantzariotik (Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria, Autonomia Estatutua, Ekonomia Itunaren Legea, eta euskal eskubide historikoak eguneratu dituzten gainerako arautatik), baliatuko dugu Arbitraje Batzordearen 2/2008 Erabakia, ondorio hau dakarrena: “ezin daiteke inolaz ere formulatu eskumen eskluienterik alor honetan, beste Administrazio batzuei dagokienez, nahiz eta Euskadiko kasuan finantza-tutoretzaren gaineko eskumen hori foru-organoei dagokien.”

Alde horretatik, behar da hizpidera ekarri Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak xedatzen duena, bada haren Zio Azalpenaren arabera,
“ ... Ekonomia Itunetik ondorioztatzen diren bereizgarritasun ekonomiko-finantzarioen argitan, eta Autonomia Estatutuak berak jasotzen duen erregulazioa aintzat hartuz, komenigarria ez ezik beharrezkoa ere bada tokiko finantzaketaren alorreko zenbait printzipio eta arau jasotzea, betiere espresuki aitortuta EAEko lurralde historikoek beren esparru instituzionaletan eskumen inportanteak dituztela esparru material horretan, baina argi adieraziz eskumenok, aldi berean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari esleitzen zaion egiteko ezin garrantzitsuagoan uztartu behar direla, bai alor horretan, bai eremu ekonomiko-finantzarioarekin eta aurrekontu-egonkortasunarekin eta finantza-jasangarritasunarekin loturiko beste alor batzuetan”.

Eztabaida sortzen da, batez ere, norainoko eskumena duen erakundeetako bakoitzak toki-ogasunen arloan.

2.- ES taldeak, Arbitraje Batzordearen 3/2012 Erabakiari jarraituz, alegatzen du EHAEk ez duela batere xedapenik toki-erakundeen sarreren erregulazioari eragiten dionik eta ez duela aipatzen ez toki-ogasunak ez haien sarreren erregulazioa. Esaten da, berebat, ez EHAEko 412. artikulua dituela inon ere aipatzen toki-ogasunak, ez 42-45 bitarteko artikuluek dituztela inon ere aipatzen, ez espresuki ez inplizitu edo tazituki, toki-ogasunak. Beraz, bukatzen du esanez EHAEn ez dela inon ere aipatzen lurralde historikoen toki-ogasunen arloko eskumena eta, zehatzago, toki-erakundeen sarrerak erabakitzeko eskumena, salbu eta toki-mailako tributuei eragingo diena EHAEko 41. artikulua dioen tributuei osatzaile diren aldetik (3.5 OJ).

Arbitraje Batzordeak 3/2012 Erabakian honako hau dio:

"Izan ere, EHAEn 41. artikulua soilik zerga-sistemari eta Estatuari ordaindu beharreko kupoa zehaztea aipatzen du. Ekonomia Itunaren bidez berresten da hori. Itunak zerga itunduak (1. kapitulua), Estatuaren eta EAEren arteko harreman finantzarioak (2. kapitulua) eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa eta Arbitraje Batzordea (3. kapitulua) arautzen ditu. Horrenbestez, EHAEn 41. artikuluari dagokionez, oro har, Ekonomia Itunak soilik zerga-esparruko eskumenak arautzen ditu. Zehazki esateko, guri dagokigun esparruari dagokionean, Ekonomia Itunak hertsiki arautzen ditu tokiko zergak, hain zuzen ere, «Toki-ogasunak» izenburupean,

EBAZPEN BATZORDEA **COMISIÓN ARBITRAL**

eta Ekonomia Itunak espresuki aurreikusitako tokiko zergak zehazteaz gain (39. artikulua eta hurrengoak), «beste tokiko zerga batzuk» (42. artikulua) finkatzeko aukera ematen die lurralde historikoei, bertan zehaztutako irizpideak jarraituz. Hau da, Ekonomia Itunera bideratzen duen EHAren 41. artikulua lurralde historikoei soilik zerga-esparruko eskumenak esleitzen dizkie, eta horrenbestez, LHLren 7. artikuluko a) letraren 6. zenbakiak zerga-alorreko eskumenak esleitzen dizkie soilik "(3.9 OJ).

Laburbilduz, Arbitraje Batzordeak, transkribatutako oinarri juridikoan, murriztu egiten du lurralde historikoen toki-ogasunarenean duen eskumena Ekonomia Itunean aurreikusitako toki-tributuetara eta beste toki-tributu batzuk ezartzeko posibilitatera.

Jarrera horren kontra, hiru foru-aldundiak, Arabako Batzar Nagusiak eta Eusko Jaurlaritza funtsean bat datoz diotenean "toki-erakundeen finantza-tutoretza" foru-erakundeen eskumena dela eta bere hartan jasotzen duela, halaber, toki-erakundeen partaidetza tributu itunduetan eta toki-aurrekontuen eremuaren gaineko eskumena.

Piztutako eztabaidaren aurrean, aztertu egin behar da noraino iristen diren foru-erakundeek toki-erakundeen gainean duten finantza-tutoretza osatzen duten ahalmenak.

Hirugarrena. Toki-erakundeen gaineko finantza-tutoretzaren irismena

1.- Arbitraje Batzordearen 2/2003 eta 1/2008 Erabakiek iritzi zioten ezen zehaztea udalerrien partaidetza zerga itunduen foru-sarreretan eta haien banaketan lurralde historikoen eskumen berezko eta eskusiboa dela, eta nola eskumen normatiboak hala exekuziokoak badituena.

1/2008 Erabakiak kontsideratu zuen ezen epaitzen ari zen udal lege-proiektuak toki-erakundeek zerga itunduetan izan beharreko partaidetza zehazteko eta banatzeko parametroak ezartzea zela ageri-ageriko sartzeko bat foru-erakundeen gaitasun arauemailean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari egotzitako koordinatzeko eta proposatzeko funtzioak ez murriztuta ere; gehieneko zehaztasuna duen arau horrek gaudituz egiten zuen neurrian autonomia-erkidegoko ordezkariak berezkozat jotzen duen "gutxieneko atalasea", berariazko zehaztapen horretan gai honetako finantza-zaintzako foru-ahalmenak errespetatu gabe.

- 3/3012 Erabakian, Arbitraje Batzordeak norabidez aldatu zuen eta hau interpretatu zuen:

"toki-ogasunen gaineko, eta zehazkiago, toki-erakundeen baliabideak arautu eta zehazteko eskumena EAEko osorako erakundeei dagokie, EHAren 10.4 artikulua betez, tokiko zergei dagokienean salbu, beti ere EHAren eta Ekonomia Itunaren Legearen 41. artikulua xedatutakoaren eta horiei lotutako «finantza-zaintzarako

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

ahalmenei» edo legeak berariaz esleitzen dizkieten beste batzuen barruan, kontuan hartuta Ekonomia Itunari dagokionean LHLk lurralde historikoei gai honen inguruan ez diela beste eskumenik esleitzen.” (3.34 OJ).

- 2/2013 Erabakiaren boto partikularrak dio, ordea, udalek Lurralde bakoitzean tributu itunduen ondoriozko sarreretan izan beharreko parte-hartzea zehazteari dagozkion nondik norako guztien arauketa foru-erakundeei dagokiela (46. apart.). Uste du ezen, LHLko 39. artikulua eta jurisprudentzia konstituzionalak aipatzen dituzten diru-sarreraren titulartasunaren irizpidearekin bat etorritik, euskal udalerrien finantza-nahikotasuna –Konstituzioko 142. artikulua exijitzen duena– bermatzeko erantzukizuna dutenak lehenengo eta behin izan behar dutela foru-organoek (67. apart.); era berean, aitortu egiten du toki-araubideari buruzko EHAEko 42. artikulua [Euskal Herriko ogasun nagusiaren titulartasunarekiko loturan (Estatutuko 42. artikulua)] permititzen dietela erakunde komunei sortzea, euren diru-sarreraren kargu sortu ere, “Autonomia Erkidego guztiko udalerriekiko lankidetzak-funtsak eta lege ezartzea haiek banatzeko irizpideak egokien deritzon eran, Estatutuko 41.2.f artikuluari eta LHL2 39.2 artikuluari dagokienez” (70. apart.).

2.- Arbitraje Batzordearen Erabakiak labur eman ondoren, esan egin behar, hortaz, EHAEko 41. artikulua onduz eta, hura garatuz, Itunaren Legearen ondorioz, LLHHei badutela beren sarrera-araubide propioa, betiere lotu beharra izango duena koordinazio, zerga-harmonizazio eta koordinazio arauak, nola Estatuaren ahal legegile autonomikoarenei. Hortik hara, Ekonomia Itunaren Legea izan da araudia aitortu dituen finantza-tutoretzako ahalmenak EAeko toki-erakundeen gainean eskumen-titulu berariazko gisa, EHAEko 41. artikulua aureikusitako agindua betez.

Berorretan jasotako eskumenek dute beren oinarria Konstituzioren lehen xedapen gehigarrian eta Estatuaren arauak eskubide historiko adierazgarrietako batez egin duen eguneratzean. Ekonomia Ituna da Estatu lege bat, legegile autonomikoak alde bakarrez ezin alda dezakeena. Lege arrunta da baina halere bere oneste-prozeduran Euskal Herriko ordezkari-erakundeek behar dute esku hartu eta aldatzeko ere prozedura bera erabili beharra dago nahitaez. Artikulu bakarreko legea dugu, Gorte Nagusiek batera onetsi zein ezetsi baino egiten ez dutena, zuzenketa-aukerarik gabe, aurretiaz itundutako testua.

1981eko Ekonomia Itunaren Legeak (127. BOE, maiatzaren 28koa), bere 45. artikuluan aitortu egiten zizkien foru-aldundiei Estatuak unean-unean tributu-ezartze eta -antolatzearen arloan burutzen zituen finantza-tutoretzako ahalmenak (toki-mailako tributuei dagokienez). Agindu horrek bereizi egiten zuen, alde batetik, lurralde historikoetako erakunde eskudunen ahalmen arauemailea toki-mailako tributua “mantendu, ezarri eta arautzeko” (1. zenb.), lotzen zitzaiona Konstituzioren lehen xedapen gehigarriaren eskubide historikoen eguneratze-prozesuari; eta, bestetik, foru-aldundiek dituzten finantza-tutoretzako ahalmenak muga bakarrekin, hots, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa ezin izana.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

46.1 artikulua, zerga itunduez ziharduenak, honako hau xedatzen zuen:

"Bere kondaira-eskubideetatikako ahalmenen arauera, Euskal Herriak Udal-Lankidetasunerako Erresuma-Baltzarako edo Toki-Erakundeentzat dirubideak egiteko orain edo geroan itunepeko zergapideetango partzuertasunez osatu dedin beste ezein baltza edo horrelatsuko egituratarako artez egin ditzan ekarketak Foru-Diputazioen esku geldituko dira oso-osorik eta, hoiiek, hortikako dirutzak bakoitzaren kondaira-lurreko Toki-Erakundeen artean banatuko dituzte, bidezko eritzitako irizpidez".

Aldiz, 46. artikulua arautu egiten zuen itunepekoen besteko tributuetako partaidetza eta aitortu foru-aldundiei, Gobernuaren eta Euskal Herriko erakunde eskudunen artean itunduko ziratekeen irizpideen arabera, izaera orokorreko banaketa-arauei jarraituz Lurralde Historiko bakoitzeko toki-korporazioei zegozkiekeen zenbatekoak banatzeko ahalmena.

Pasarte hauek irakurrita, atera daiteke, ondorio gisa, Estatuko legegileak 1981ean aitortu zela lurralde historikoei eskumena arautzeko tributu itunduengatik bildutako zenbatekoak toki-erakundeen artean banatzeko irizpideak "bere kondaira-eskubideetatikako ahalmenen arauera". Beraz, eskubide historikoen eguneratzeak, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak xedatutakoaren ondorio, bere garatze-eremu inportanteetako bat hartzen du EAEko udalerrietako toki-ogasunen arloan.

2/1990 Legearen bitartez Ekonomia Itunaren Legea egokitu egin zen toki-ogasunak arautzen dituen legera eta tasa eta prezio publikoen legera. Aldaketa horrekin, erredakzio berri bat eman zitzaien finantza-tutoretzako ahalmenei 48 bosgarren artikuluan. Erredakzio berriak hauxe dio (12/2002 Legea, maiatzaren 23koa):

"Toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie; horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik".

Hauteman daiteke nola finantza-tutoretzako ahalmenak orain zabaldu egin diren Estatuak toki-erakundeen arloan egikaritzen dituen guztietara; ez da mugatzen tributuen ezartze eta antolatzea. Beste batetik, orain ordea ez du finkatzen ahalmen horien titularra. Zera besterik ez dio: "Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie". Bestalde, desagertu egin da itunepeko zergapideetatikako banaketari buruzko aipua.

¿Zer esan nahi du lege-aldaketa horrek: desagertu egin direla lurralde historikoek toki-erakundeen gainean dituzten finantza-tutoretzako ahalmenak?

3.- Arbitraje Batzordeak 3/2012 Erabakian hau esan zuen honetaz:

"Arbitraje Batzorde honek azpimarratu zuen moduan, xedapen honen bidez ez da zehazten ahalmen horien titularra, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde

EBAZPEN BATZORDEA COMISIÓN ARBITRAL

eskudunen esku egongo direla» esaten baita soilik. Aitzitik, 1981eko Ekonomia Itunaren bidez «finantza-zaintzarako ahalmen» horiek zuzenean foru-aldundiei esleitzen zitzaizkien. Ekonomia Itunaren Legearen egungo testuak EA Eren esku uzten du esparru honetan osorako erakundeen eta lurralde historikoen arteko eskumenen banaketa zehazteko ardura. Era horretara, 1981eko Itunaren akats bat zuzentzen du, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko eskumenak banatzeko arau gisa jasotzen baitzen, EHA Eren 41. artikulua xedatutakoaz haratago. Eta horrekin batera, berrezarri egiten da EHA Eren leku nagusia eskubide historikoak mantendu eta eguneratzeko prozesuan, LH Lri buruzko apirilaren 26ko 76/1988 KAEak zehaztutakoaren ildotik; izan ere, Erkidegoa sortzeko arauari dagokionez berretsi egiten du EA Eren oinarritzko arau instituzionala «osorako erakundeak sortzeko arau, zein hiru lurralde historikoen autogobernurako ahala integratzeko eta berregitratzeko (edo eguneratzeko) arau bilakatzen dela». Ondorioz, EA Eko legegileak «ahalmen» horien titulartasunaren inguruan erabaki ahal izango du. Gainerakoan, 2002ko Ekonomia Itunaren bidez egindako aldaketa honen esanahia argi eta garbi antzeman daiteke indarreko Itunaren 51. artikulua aipatutako ahalmenen gainean foru-aldundien titulartasuna aldatzen ez dela ikusita, aurreko arauak zehaztutakoari dagokionean –1981eko Ekonomia Itunaren Legeko 46. artikulua–.».12).

4.- Interpretazio horren aitzinean, argudio bat baino gehiago jar daitezke. 48. 5 artikulua Euskadiko erakunde komunak dioenean ez da soil-soilik erakunde komunez ari baizik eta, toki-ogasunen gaineko eskumena eskumen partekatu den neurrian, erakunde komunak eskudunak izango direla finantza-tutoretzako ahalmenak baliatzeko, beren eskumenak baliatuz izan ere, eta lurralde historikoak berenak baliatuz.

Adierazi behar da, hortaz, 48 bosgarren artikuluan organo eskudunik zehaztu ez arren, horrek ez dituela ahultzen lurralde historikoek toki-ogasunen gainean dituzten finantza-tutoretzako ahalmenak. Ekonomia Itunaren Legearen 48 bosgarren artikulua bildutako “finantza-tutoretza”rekiko aipamena kokatu beharra dago bere hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren barruan, berebiziko garrantzia bai baitu, eskumen-konfigurazioa osatzeko, toki-ogasunen eremuan.

Ekonomia Itunaren Legearen hirugarren xedapen gehigarriak, bai jatorrizko bertsioan bai indarrean duen testuan aitortu egiten dizkie foru-aldundiei 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuak aitortu zizkien ahalmenak ekonomia eta administrazioaren arloan, indarreangotzat jotzen baititu Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusten den foru-araubidea eguneratzeko prozesua dela-eta, baina betiere kontuan izan beharko direla Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan aipatzen diren oinarriak ere. Errege Dekretu horretako 15. artikulua hau agintzen zuen:

“Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako aldundiek jarraituko dute edukitzen, hala administrazio arloan nola ekonomiarenean, orain baliatzen ari diren eskudantzia guztiak.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Hala ere, ezin izango dute inongo tributu-xedapenik eman kontraesanean aurki badadi Espainiak erbesteko nazioekin hitzartutako naizoarteko itunekin."

Igorpen horrez gain, Itunaren Legearen 3. xedapen gehigarriak klausula bat gehitzen du, alegia, hori ulertu behar dela «betiere kalterik ekarri gabe Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan aipatzen diren oinarriei». Oinarri horiek bi arauak ezarriak dira, hots, Toki Araubidearen Oinarritzko 7/1985 Legeak eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak Arautzeko Legearen testuategina (TOALTB) onesten duenak, eta biek ere, bestalde, aitortu egiten dituzte euskal foru-araubideak arlo honetan dituzten berezitasunak (bigarren xedapen gehigarria, Toki Araubidearen Legeko 6. apartatua eta Toki Ogasunen Legearen testuateginako zortzigarren xedapen gehigarria). Hain zehatz ere, Toki Ogasunen Legearen testuateginako 1.2 artikulua, bere aplikazio-eremua arautzean, xedatzen du "Lege hau aplikatuko dela lurralde nazional osoan, Euskal Herriko eta Nafarroako tokiko araubide finantzarioak eragotzi gabe". Errepara dezagun "araubide finantzarioak" dioela eta ez tributu-araubideak huts-hutsik.

Zer zentzu luke Ekonomia Itunaren Legearen 3. xedapen gehigarriak abiapuntutzat joz gero uste izatea foru-erakundeek eskumena dutela bakar-bakarrik toki-mailako zergak arautzeko? Ez da ahaztu behar Ekonomia Itunaren Legearen 39tik 42ra arteko artikuluek aitortu egiten dietela, aitortu ere, lurralde historikoei toki-zergen arauketa.

Eskubide historikoak ez dira eskumenen esleipenerako titulu, baina bai ordea interpretazio-elementu foru-araubideko erakundeei Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren babesarekin dagozkien eskumenen irismenaren gainean, Konstituzio Auzitegiak ohartarazi duen bezala bi epaitan (76/1998 eta 140/1990). Eskubide historiko horiek interpretatu behar dira EHAren 37.2 artikulua argira, hauxe baitio: "Estatutu honetan xedatutakoak ez du ekarriko lurralde historiko bakoitzak bereak dituen foru-araubidearen izaeraren zein bakoitzak bereziak dituen araubidearen eskumenen aldaketarik".

Horrezaz, Konstituzioaren Auzitegiaren 76/1988 Epaiak (6. OJ) hau esan zuen: "sortzen diren organo berriei -erakunde komunei- ematen zaizkien botere eta eskumenak, bai eta Estatuko erakunde zentralerik egiten den eskumen-banaketa ere, beti ulertu behar dira kalterik egin gabe Estatutuak berak zehazten dituen foru-araubidearen eta lurralde historikoei berezko zaizkien eskumenen bermeari". Beraz, bermeari eta interpretazioari lotutako araua da, zeinak lehentasuneko tokian jartzen baitu Estatutuaren definizioaren arabera foru-erregimenak, horiek errespetatzeari eta babesteari dagokionez, Euskal Herriko erakunde erkideen zein Estatuko agintaritza zentralen aurrean; foru-erregimen horien oinarritzko edukia, Estatutuak berak zehazten duen bezala, ukigaitza da autonomia- edo estatu-mailako agintaritzen aldetik".

Ukaezina da ezen lurralde historikoen finantza-araubideak, lehenengo Ekonomia Itunetik indarrean dagoenak, toki-ogasunen alderdi ekonomiko-finantzarioak ere

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

biltzen dituela. Alde horretatik, Itunaren hirugarren xedapen gehigarria jo behar da foruak berrezartzeko prozesua ixteko xedapentzat ekonomia- eta finantza-arloari dagokienez.

5.- Foru-araubidearen berriazkotasunaren toki-ogasunen gaineko proiektzioa aitortu egiten da, halaber, Estatuko legegileak toki-araubidearen arloan (Toki Araubidearen Oinarrizko Legea) eta toki-ogasunen arloan (Toki Ogasunen Legearen testu bategina) emandako oinarrizko legerian, kotsakratu egiten duela Ekonomia Itunaren Legeak aurreikusitako errespetua udal araubide ekonomiko-finantzarioaren aldera, EHAren 41. artikulua aurreikusitako agindua betez.

Azaldu den bezala, lurralde historikoek toki-ogasunen arloan dituzten ahalmenen aitortpena, Ekonomia Itunaren Legean ez ezik, Toki Araubidearen Oinarrizko Legearen bigarren xedapen gehigarrian, 6. zenbakian, ere badaude jasorik, eta haren arabera:

“Euskal Herriko lurralde historikoek araubide bereziarekin jarraituko dute udal-arloan ekonomiaren eta finantzaketaren araubideari dagokionez Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera. Horrek ez du esan nahi euskal toki-korporazioek gainerako toki-korporazioek dutena baino autonomia-maila txikiagoa dutenik, nahiz eta lege honetako 115. artikuluan xedatutakoa eta gai honi dagokionez autonomia-erkidegoari dagozkion eskumenak aplikatu.

Ardura hori Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren 1. zenbakian ere errepikatzen da. Izan dezagun kontuan tributu-araubideaz ez baina araubide ekonomiko-finantzarioaz ari dela. Toki Araubidearen Oinarrizko Legearen 39. artikulua ondorioz, toki-erakundeek partaidetza izango dute Estatuaren tributuetan, Legean berean ezartzen diren zenbatekoan eta irizpideen arabera. Xedatzen da, era berean, toki-erakundeek partaidetza izango dutela autonomia-erkidegoen berezko tributuetan, bakoitzaren parlamentuaren legeak finkatutako moduan eta zenbatekoan. Agindu hori irakurrik ondorioztatzen da, hortaz, Estatuko edo autonomietako eskumena finkatzeko funtsezko datua toki-erakundeek partaidetza duten tributuen ondoriozko diru-sarrerak banatzeko irizpideak ezarri behar direnean tributu horien titulartasuna dela. Irizpide hori EAEko barne-mailara eramanez gero, foru-erakundeak izango dira eskumena daukatenak tributu itunduen ondoriozko diru-sarrerak banatzeko irizpideak ezartzeko.

Foru-eskumena argi eta garbi onartzen da berriki argitaratu den Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean, zehazki 117 eta 118 artikuluetan. 118. artikulua, itunpeko tributuen etekinetan parte hartzeari dagokionez, hau ezartzen du: "Lurralde historiko bakoitzean, toki-erakundeek zenbateko parte-hartzea izango duten zehaztea lurralde historikoko foru-organoen eskumena da, eta, ondorioz, organo horiek askatasun osoz baliatuko dute eskumen hori, foru-arauetan

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

aurreikusitakoarekin eta, hala dagokionean, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan zehaztutakoarekin bat etorrita".

Azken buruan, argi dago ezen Ekonomia Ituna onartzen duen Legearen 48.5 artikuluko finantza-tutoretzako ahalmenen artean sartzen dela itunpeko tributuetan zenbateko parte-hartzea izango duten zehaztea eta hori lurralde historiko bakoitzeko toki-erakundeei dagokiela.

Horraingo helduta, tokiko tributuetak arautzeaz eta itunpeko tributuetan zenbateko parte-hartzea izango duten zehazteaz gainera, zeina lurralde historiko bakoitzean toki-erakundeei baitagokio, aztertu beharko genuke zer beste ahalmenek osatzen duten toki-erakundeen finantzaketa-tutoretzan foru-erakundeei duten eskumena.

6.- Euskal Sozialistak taldearen ustez, finantza-tutoretzako ahalmenak kontrol-egintzak baino ez dira. Bere 3.19 zuzenbide-oinarrian, Arbitraje Batzordeak bildu ditu Konstituzio Auzitegiak "finantza-tutoretzako ahalmentzat" jo dituen suposatutako batzuk, kontrol-egintza hutsak direla nabarmentzeko:

"Horrela, tokiko ogasunen finantza-ikuskaritza, orokorra eta iraunkorra dena (Konstituzio Auzitegiaren 179/1985 epaia, abenduaren 19koa, tokiko ogasunak saneatzeko eta erregulatzeko neurri urgenteei buruz); tokiko erakundeen kanpoko fiskalizazioa (a posteriori), zeinak legitimatzen baitu autonomia-erkidegoak eskumen hori esleitzea dagokion organo fiskalizatzaileari –Sindicatura de Comptes, Kataluniako kasuan–, nahiz eta horrek ez duen baztertzeko Estatuak ere esleitzea Kontuen Auzitegiaren bidez (Konstituzio Auzitegiaren 187/1988 epaia, urriaren 17koa, Kataluniako Sindicatura de Comptes buruz, eta 217/1989, toki-araubidearen oinarriari buruz); Toki Ogasunen Legean aurreikusten diren salbuespeneko kasu batzuetarako kredituak ituntzeko baimena, korporazioko presidentek kreditu-eragiketak zuzenean baimentzeko duen ahalmena (epe luze eta laburrean), baimentzea kanpoarekin formalizatu beharreko kreditu-eragiketak eta zorraren bidez antolatzen direnak edo kreditu publikoari helduta egiten den beste edozein (Konstituzio Auzitegiaren 233/1999 epaia, toki-ogasunei buruzkoa, zuzenbideko 21. oinarria); exijitzea Zerga Administrazioaren aldeko aurreko txosten teknikoak udalek ekonomia-jardueren gaineko zergatik salbuetsi onartzeko edo ezesteko eta zerga horri buruzko ikuskaritza-jarduerara delegatzea (Konstituzio Auzitegiaren 233/1999 epaia, 41. zuzenbide-oinarria); toki-erakundeen zorrak konpentsatzeko baimena (Konstituzio Auzitegiaren 233/1999 epaia, 41. zuzenbide-oinarria); baimentzea toki-interesa gainditzen ez duten zorpetze-eragiketak (Konstituzio Auzitegiaren 134/2011 epaia, uztailaren 20koa, aurrekontu-egonkortasunaren gaineko legei buruz, 14. zuzenbide-oinarria, b) letra); exijitzea toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren helburuari buruzko aldeko aurreko txostena, onartzea finantza-desoreka konpontzeko plan ekonomiko-finantzarioa (Konstituzio Auzitegiaren 134/2011 epaia, uztailaren 20koa, aurrekontu-egonkortasunari eta toki-ogasunei buruz, 16. zuzenbide-oinarria); eta zuzentzea finantza-desorekako egoerak (Konstituzio Auzitegiaren 134/2011 epaia, 17. zuzenbide-oinarria, b letra)". (3.19 zuzenbide-oinarria).

EBAZPEN BATZORDEA **COMISIÓN ARBITRAL**

Finantza-tutoretzaren gaineko suposatuen ikusita, Arbitraje Batzordeak hau ondorioztatu du:

... toki-erakundeen gaineko "finantza-tutoretzako ahalmenek" leku marjinala dute gure toki-ordenamenduan; ahalmen horiek, batez ere, zenbait zergatara mugatzen dira; eta, gainera, erraz sartzen direnez toki-autonomiarekin gatazkan, oso mugatua da haien hedatze-esparrua. «Ahalmen» horietan ez da sartzen toki-ogasunen gaineko eskumena, orokorrean, ezta, zehazki, toki-erakundeen diru-sarrerak zehazteari buruzko eskumena ere. Hori horrela, «ahalmen» horiez ari garela, badirudi jarduera administratiborako baliabide exekutiboez ari dela, eta ez direla ahalmen arautzaileak; eta, «tutoretza» terminoak iradokitzen duenez, baliabide exekutibo haien egonkortasun finantzarioa bermatzeko bereziki garrantzitsuak diren zenbait egintza baimentzeko suposatuez ari dela (3.20 zuzenbide-oinarria).

7.- Tesi horri aurka egin dakioke argudio hauen bidez:

Lehendabizi, Arbitraje Batzordeak, 3/2012 Ebazpenaren 3.20 zuzenbide-oinarrian, baieztatzen du finantza-tutoretzako ahalmenak kokatzen direla, batez ere, zenbait zergaren esparru mugatuan. Aldiz, Konstituzio Auzitegiak emandako epaietatik ateratako suposatuen arabera, zeinak 3.19 zuzenbide-oinarrian aipatzen diren (Toki Ogasunen Legean aurreikusten diren salbuespeneko kasu batzuetarako kredituak ituntzeko baimena, baimentzea kanpoarekin formalizatu beharreko kreditu-eragiketak eta zorraren bidez antolatzen direnak edo kreditu publikoari helduta egiten den beste edozein, toki-erakundeen zorrak konpentsatzeko baimena, baimentzea toki- interesa gainditzen ez duten zorpetze-eragiketak, exijitzea toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren helburuari buruzko alde aurreko txostena, onartzea finantza-desoreka konpontzeko plan ekonomiko-finantzarioa eta finantza-desorekako egoerak konpontzea), beste ondorio batera hel daiteke: eztabaidaezina dirudi ezen aipatu diren suposatu guztiak zerga-esparrutik kanpo gelditzen direla.

Hori horrela, suposatu horiek aztertuta, ondoriozta daiteke finantza-tutoretza zerga-esparrutik harago doala eta aurrekontuen sektoreari ere heltzen diola. Zalantzarik gabekoa da ezen lurralde historikoei emandako atribuzio edo tutoretzako ahalmen guztiak ez zaizkiela zerga-esparruari stricto sensu lotzen, eta haietako batzuek esparru hori gainditzen dutela. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapenak berak beste bi ahalmen onartzen dizkie foru-aldundiei; 6. zenbakian, 1. paragrafoan, ahalmena ematen die foru-aldundiei, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 116. bis artikuluari dagokionez, eta finantza-tutoretzako ahalmenak erabiltzean, onartzeko, haiek formulatzeko behar diren arauak zehaztuta, haien korporazioen plan ekonomiko-finantzarioak, bat etorrita Estatuak hartarako eman duen araudiarekin; helburu horretarako, foru-aldundiei onartzen die 116. ter artikuluan ezarritakoarekin bat eginda kalkulu-irizpideak garatzeko ahalmena, halatan non haien eskumenekoa izango baita haien

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

lurraldeetako toki-erakundeek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostuari buruzko komunikazioa jasotzea.

Bigarren paragrafoan, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legearen laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera, udalerriz beheragoko lurralde-eremuko entitateek beren kontuen berri eman behar diete foru-erakundeei eta foru-erakundeek erabaki beharko dute, aipatu xedapena betez, haiek desegin behar dituzten.

lido berean, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, zortzigarren xedapen gehigarriko 2. eta 3. zenbakietan, toki-erakundeen gaineko finantza-tutoretzako beste ahalmen batzuk onartzen dizkie lurralde historikoei.

Bigarren zenbakian hau ezartzen du:

"Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren hirugarren azken xedapenean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunari buruzko Legearen 48. artikuluko bosgarren paragrafoan aurreikusten den subrogazio-klausularen arabera, Lurralde Historikoei lege honetako 193 bis eta 218. artikuluetan xedatzen diren txostenak jasoko dituzte".

Estatuko legegileak 48. artikuluko subrogazio-klausulari heltzen dio jakinarazteko lurralde historikoak izango direla (eta ez erakunde komunak) aipatu txostenak jaso behar dituztenak. Eta berriz heltzen dio 3. zenbakian, non lurralde historikoei onartzen baitie, Ekonomia Itunari buruzko Legearen 48. artikuluko bosgarren paragrafoan aurreikusten den subrogazio-klausularen arabera, toki-entitateekin hitzarmenak egiteko eskumena dutela toki-entitate horien ekonomia- eta finantza-kudeaketa, kontabilitate-kudeaketa eta aurrekontu-kudeaketaren barneko kontrolaz eta ikuskapenez arduratzen diren organoen autonomia eta eraginkortasuna sendotze aldera. Xedapen hori Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen 2. artikuluko 4. zenbakiak ematen du.

Hori horrela, ulertu behar da nahikoa argudio dagoela adierazteko finantza-tutoretzako ahalmenek zerga-esparru hutsa gainditzen dutela.

8.- 3/2012 Ebazpenak, zuzenbideko 16. oinarrian, hau zioen beren-beregi:

"«Finantza-tutoretzako ahalmenak» ez dira aipatzen toki-araubideko oinarritzko arauen artean. Ez dago "ahalmen" horiei buruzko aipamenik ez Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legean, ez indarrean dagoen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean (2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa)".

Aurreko apartatuan erakutsi bezala, baieztapen hori argitu behar da; existitzen diren tutoretzako ahalmenei, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

buruzko apirilaren 27ko 2/2010 Lege Organikoak eta Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak sarturiko aldaketek, berariaz, finantza-tutoretzako ahalmen berriak onetsi dizkiete lurralde historikoei.

Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legearen lehen xedapen gehigarriak ezartzen du lege hori Konstituzioaren 149.1.14 eta 18 artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan aplikatuko zaiola EAERI, bai eta Euskadiko Autonomia Estatututik, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azkenetako hirugarren xedapenetik eta foru-lurraldeen eskubide historikoak eguneratzen dituzten gainerako arauetatik eratorritako partikulartasunak ere. Halaber, ezartzen du ezen, haiei dagozkien koordinazio- eta tutoretza-ahalmenez gain, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 26.2 artikuluan zerbitzuak emateko modua erabakitzeaz aipatzen den eskumena ere foru-aldundiei dagokiela, gaiarekin zerikusia duten udalerriekin adostu eta gero.

Agindu hori interpretatuta, ondoriozta daiteke espresuki lurralde historikoei onartzen zaizkiela, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 26.2 artikuluan zerbitzuak emateko modua erabakitzeaz aipatzen den eskumenaz gainera, toki-erakundeen "koordinazio- eta tutoretza-ahalmenak".

2/2012 Lege Organikoaren 20.2 artikulua finantza-tutoretzako neurri berriak eman ditu, aplikatu beharko lirakekeen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111 eta 135 artikuluetan definitzen den esparru subjektiboan sartzen diren toki-korporazioen aurrekontu-egonkortasuna edo zor publikoaren helburua betetzen ez duten suposatuetan, halatan non helburua bete ez duen toki-korporazioaren epe luzeko zorpetze-eragiketa guztiek beharko baitute Estatuaren baimena edo, hala badagokio, finantza-tutoretza esleituta duen autonomia-erkidegoarena (ikus, horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren 171/2014 epaia). Haren azken xedapenetako hirugarrenean ezartzen da ezen, foru-araubideari jarraikiz, Ekonomia Ituna onartzen duen Legean ezarritakoaren kontra joan gabe aplikatuko zaiola Euskal Autonomia Erkidegoari lege hartan ezarritakoa. Zorpetze-eragiketen gaineko finantza-tutoretza ere foru-erakundeei dagokie.

Lege autonomikoei dagokienez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak printzipio hori ezarri du 2/2016 Legearen 109.2 artikuluan, non hau ezartzen baita:

"Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen ogasuna, lurralde historikoetako foru-organoek ogasunaren arloan onartutako xedapenen arabera arautuko da, eta, hala badagokio, lege honetan aurreikusitako aurreikuspenen arabera, bai eta tokiko araugintza-ahalez baliatuta onartutako arauen arabera ere".

Eta modu zehatzagoan, toki-erakundeen plan ekonomiko-finantzarioei dagokienez, berariaz aipatzen da finantza-tutoretza 2/2016 Legearen 116.1 artikuluan:

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

1. "Foru-aldundiek beteko dituzte fidantza-babeseko ahalmenak, bai eta, ahalmen horiei dagokienez, udalerriek edo –aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak bete ez badira– aldundiak berak onartutako plan ekonomiko-finantzarioei buruzko laguntza teknikorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako eskumenak ere. Hori guztia, aplikagarria den estatuko arauetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, eta lege honetan xedatutakoarekin bat etorrira".

9.- Beste aztergai bat da ea lurralde historikoetako finantza-tutoretzak toki-ogasunen aurrekontu-arloa ere hartzen duen.

Arbitraje Batzordearen 2/2003 Ebazpenak baietsi zuen ezen Ekonomia Ituna onartzen duen Legearen 48.5 artikuluan aipatzen den finantza-tutoretzak aurrekontu-arloa ere hartzen duela, eta ezin dela gastuaren area diru-sarreraren areatik bereizi; batzordeak uste zuen interpretazio hori zela koherenteena sistema osoari begira, halatan non lurralde historikoek eskumena izan behar zuten, zerga-eskumenaz gain, toki-erakundeek bete behar zuten aurrekontu-erregulazioa ezartzeko. Haren arabera, ondorio honetara heldu zen Arbitraje Batzordea:

"Finantza-tutoretza zerga-alderdiei ez ezik (edo toki-erakundeen diru-sarrerei ez ezik, orokorrean), haien gastu-aukerari ere ezartzen zaie". Horrek esan nahi du, Arbitraje Batzordearen ustez, ezen "toki-ogasunen ezin bereizizko parte da aurrekontuak (eta harekin loturiko gaiak) arautzea, diru-sarrerak arautzearekin batera, eta biak hartzen ditu finantza-tutoretzak".

Ebazpen hartan batzordeko bi kideren boto partikularra izan zen, non adierazten baitzen ebazpena metodologikoki gaizki egindako azterketa baten ondorioa izan zela, desegokiro erabiltzen baitzen beste ordenamendu batzuetako erregulazioa eta oker ulertzen zuelako Ekonomia Itunak eskumenen barne-banaketa egiteko tresna gisa duen balioa.

Arbitraje Batzordearen 3/2012 Ebazpenak oinarri duen jurisprudentziaren arabera (zuzenbideko 3.10 oinarria), lurralde historikoek ez dute arautzeko ahalmenik tokiko erakundeen aurrekontu-arloan: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren eta Auzitegi Gorenaren epaiak (1999ko urriaren 25eko, 2002ko apirilaren 8ko eta 2002ko apirilaren 26ko epaiak, zeinetan berresten baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 1994ko uztailaren 15eko, 1995eko azaroaren 9ko eta 1994ko uztailaren 15eko epaiak, zeinetan indargabetzen baitziren, hurrenez hurren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren martxoaren 25eko 9/1991 Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren martxoaren 26ko 2/1991 Foru Araua, haiek guztiak dagokion lurralde historikoko tokiko entitateen aurrekontu-arauei buruzkoak.

Aipaturiko jurisprudentziari gagozkiola, kontra egin daiteke esanez maiatzaren 13ko 12/1981 Ekonomia Itunaren Legea indarrean zegoelarik eman zirela ebazpen horretan aipatzen diren Auzitegi Gorenaren epaiak, eta termino ezberdinetan

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

arautzen zirela foru-aldundien finantza-tutoretzako ahalmenak 12/1981 Legearen 45. artikuluan eta Ekonomia Ituna onartzen zuen otsailaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikuluan. Halaber, adierazi behar da, lehen aipatu bezala, tokiko erakundeen gaineko finantza-tutoretzako neurri berriak sartu dituztela 2/2012 Lege Organikoak eta Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak eta, gorago esan bezala, aldaketa horietan lurralde historikoen finantza-tutoretzako ahalmen espezifiko batzuk agertzen direla. Tokiko autonomiaren aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruz berriki egin diren erreformen eraginak esparru juridiko berri bat ekarri du. Aipatuta ditugu lurralde historikoei lege horietan espresuki onartzen zaizkien finantza-tutoretzako ahalmenak; zeinen arabera, besteak beste, tokiko erakundeek zorpetzeko aukera definitzen den.

Euskal Sozialistak taldeak, bere alegazioak defendatzeko, Auzitegi Gorenaren 2015eko uztailaren 9ko epaia baliatzen du (2939/2013 Kasazio Errekurtsoa), zeinean eztabaidatzen baita ea Ekonomia Ituna onartzen duen Legeak lurralde historikoei onartzen dizkien tokiko entitateen gaineko finantza-tutoretzako ahalmenen artean sartzen den batzar nagusiek tokiko aurrekontu-jarduerari buruzko arau juridikoak emateko ahalmena. Errekurritu den foru-arauak aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-esparru bat ezartzen zuen Arabako lurralde historikoko tokiko administrazioentzat, tokiko entitateei, haien organismo autonomoei eta haien mendeko sozietate publikoei aplikatu beharrekoa.

Auzitegi Gorenak ulertzen duenez, lurralde historikoek ez dute tokiko erakundeen aurrekontu-arloari buruz arautzeko ahalmenik, zerga-arloan ez bezala. Ondorio horretara heltzeko, beste epai batzuetan agertu diren hiru proposiziotan oinarritzen da: Ez Konstituzioak, ez Autonomia Estatutuak eta ez Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ere ematen diete foru-erakundeei tokiko aurrekontuen gainean arautzeko eskumena; Ekonomia Ituna onartzen duen Legeak zergak arautzen ditu, baina ez du ezartzen edo onartzen tokiko erakundeen beste arlo ekonomiko-finantzario batzuei buruzko araurik; eskubide historikoak aipatzea (bereziki 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako erregulazioa) lurralde historikoen eta Euskal Herrian foraltasuna osatzen duten organoen ahalmen eta aginpideen aipamen gisa bakarrik uler daiteke, "haiek Konstituzioaren, Estatutuaren eta Konstituzioaren bloke arautzailea osatzen duten gainerako arauen ikuspegitik eta nagusitasunetik eguneratu ostean agertzen diren bezala".

Esan behar da agertu diren gogoetei buruzko zenbait ñabardura egin daitezkeela ebazpen honetan aztergai dugun auziari begira.

Lehenengoz eta behin, Itunaren Legearen 3. xedapen gehigarriak, 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretura jotzen duenak, suposatzen du foru-aldundiak administrazio- eta ekonomia-arloan lehen zituzten ahalmenei eustea; esan dugun bezala, eskubide historikoetara jotzeko modu bat da. Agindu horrek, baina, klausula bat gehitzen du, zeinaren arabera hura ulertu behar baita "Konstituzioaren 149.1.18

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

artikuluak aipatzen dituen oinarrien kontra egin gabe". Azpimarratu behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak ezarri dituztela oinarri horiek, eta haien arabera, aldi berean, euskal foru-araubidearen aplikazio-eremutik kanpo uzten dituztela araubide ekonomiko-finantzarioa eta lurralde historikoei esleitzen zaiela arlo horren gaineko eskumena.

Lehenago esan bezala, ekonomia- eta finantza-arloari dagokienez, foruak berrezartzeko prozesua ixteko xedapentzat ulertu behar da Itunaren hirugarren xedapen gehigarria.

Adierazi behar da ezen euskal foru-araubideak tokiko ogasunei buruz dituen espezifikotasunak jasotzen dituzten Estatuko legeak –"araubide ekonomiko-finantzarioa" edo "arlotu ekonomiko eta administratiboko ahalmenak" bezalako terminoak erabiltzen dituzte– ez direla mugatzen zerga-alderdiak aipatzera. Hori horrela, aipatu behar ditugu Ekonomia Ituna onartzen duen Legearen hirugarren xedapen gehigarria, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarria, 6. zenbakia, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren zortzigarren xedapen gehigarria.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriak hau ezartzen du: "Euskal Herriko lurralde historikoei araubide bereziarekin jarraituko dute udal-arloan ekonomiaren eta finantzaketaren araubideari dagokionez Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera. Horrek ez du esan nahi euskal toki-korporazioek gainerako toki-korporazioek dutena baino autonomia-maila txikiagoa dutenik, nahiz eta lege honetako 115. artikuluan xedatutakoa eta gai honi dagokionez autonomia-erkidegoari dagozkion eskumenak aplikatu".

Zalantzarik gabe, aipatu diren xedapenetan erabiltzen den "udalerrien ekonomiaren eta finantzaketaren araubidea" kontzeptu legalak aurrekontu-prozedura eta udal-kontabilitate publikoa biltzen ditu.

Haren ondorioz, lurralde historikoei, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren eta Ekonomia Ituna onartzen duen Legearen arabera, eskumena izango dute aurrekontu-prozedurari eta udal-kontabilitate publikoari buruzko arauak emateko, gainerako toki-korporazioek baino autonomia gutxiago ez izateko bermeak eta Autonomia Erkidegoaren beraren eskumenek ezartzen dituzten mugekin; euskal legegileak printzipioak ezarri eta arauak eman ahal izango ditu tokiko ogasunak erabat antolatzeke foru-ogasunekin eta Euskadiko Ogasun Nagusiarekin arlo guztietan. Halaber, administrazio-prozedurari eta kontabilitate publikoari buruzko irizpide homogeneousak eman ahal izango ditu.

Hartara, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, 115.3 artikuluan hau ezartzen du:

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Toki-erakundeetako sektore publikoen zorpetze-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea lurralde historikoetako foru-organoek onesten dituzten arauak ezarriko dute. Lurralde historikoetako foru-organoek onesten dituzten arauak ezartzen duten eran, toki-erakundeek eta beraien organismo autonomo, erakunde, sozietate eta fundazioek Euskal autonomia Erkidegoko instituzio komunek erabiltzen dituzten irizpideekiko irizpide homogeneous aplikatuko dituzte aurrekontu-prozeduraren eta kontabilitate publikoaren arloan, horrela, ondorio informatiboetarako, euskal sektore publiko osoaren kontsolidazioa lortze aldera.

Azken buruan, lurralde historikoek, tokiko ogasunen gainean dituzten eskumenen bidez, eragin argia dute diru-sarreraren arloan (tokiko zergak, itunpeko zergetako partaidetza) eta gastuen arloan (zorpetzeko baimenak, txostenak, plan ekonomiko-finantzarioen irizpideak arautu eta onartzea...).

Laugarrena: Foru-erakundearen eskumenaren mugak tokiko ogasunen arloan

1.- Foru-erakundeek tokiko ogasunei buruz dituzten eskumenen ahalmenak aztertu ondoren, azpimarratu behar dugu eskumen hori tokiko erakundearen autonomiak, lehenengoz eta behin, mugatzen duela. Ezin dugu ahaztu tokiko autonomiak bidea ematen duela tokiko erakundeek beren ogasun propioak izan ditzaten diru-sarreraren eta gastuen gestiori buruz. Konstituzio Auzitegiak ezarri duen bezala, tresna eta baliabide horiek edukitzeak bidea ematen du "Konstituzioak bermatzen duen autonomia benetan izateko" (96/1990, zuzenbideko 7. oinarria).

Tokiko autonomiari esker, tokiko erakundeek eskumena dute beren ekonomia, finantzak eta aurrekontuak antolatzeko eta kudeatzeko. Hala ere, lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak eta, hala badagokio, EAEko erakunde komunak eskumenak errespetatu beharko dituzte, zeinek tokiko erakundearen nahikotasun finantzarioa bermatu beharko duten.

Lurralde historikoek tokiko ogasunen arloan duten eskumenaren beste muga bat erakunde komunak eskumenetatik dator.

2.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.4 artikulua "toki-araubideari" buruzko eskumena aitortzen dio EAERI, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe. Eskumen horren arabera, Konstituzio Auzitegiak onetsi du erakunde komunak eskumena dutela jatorri autonomikoa duten diru-sarrera guztietan EAEko tokiko erakunde guztiek izango duten partaidetza banatzeko irizpideak lege bidez arautu eta ezartzeko. Hori horrela, Konstituzio Auzitegiaren 85/2013 epaia hizpidera ekarri beharko genuke, zeinen arabera "lurralde historikoak ez dira zerga arloko eskumena duten erakunde publiko bakarrak Euskal Autonomia Erkidegoan. Horri buruz, lehenago esan dugun bezala, Estatutuaren 42.b artikulua Euskadiko Ogasun Nagusiaren diru-sarreraren artean sartzen ditu "Eusko Legebiltzarrak ezarri ditzan Euskal Herriko zerga propioen emaitza, Konstituzioaren 157. artikuluan eta Autonomia Erkidegoen Finantza-erakundearen Lege Organikoan agindutakoarekin bat".

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

3.- Erakunde komunei esleitzen zaien beste eskumen bat da lurralde historikoek bakarrik arautu behar dituzten zergen "koordinazioa, armonizazio fiskala eta koordinazioa". Konstituzio Auzitegiak, lehen aipaturiko epaian (5. Zuzenbide-oinarria), adierazi du ezen Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta hura osatzen duten lurralde historikoak ez direla tankan itxiriko konpartimentuak, baizik eta etengabe harremanetan dauden bi arlo instituzional, eta harreman horren adibide bat izan daitekeela legegile autonomikoak bere zerga-ahalmena erabiltzea hala zerga berriak sortzeko nola lurralde historikoek bakarrik arautu ditzaketen zergen "koordinaziorako, zerga-armonizaziorako eta lankidetzarako".

4.- Beste alde batetik, Arbitraje Batzordeak 1/2008 Ebazpenean ulertu zuen bezala eta 3/2012 Ebazpeneko boto partikularrean jaso zen bezala: "finantza-tutoretzaren nukleo gogor horretan ere normaltasunez onartzen da erakunde ez-foral batek arauak eman ditzakeela, interes orokorreko arrazoiengatik, ogasunen arteko homogeneotasunaren gaineko irizpideak finkatze aldera". Beraz, onartzen da finantza-tutoretzaren kanpoko muga eta onartzen da erakunde komunei, oinarri estatalak errespetatuz, egokitu ahal zaiela lurraldez gaineko interes orokorra zehaztea, zeinek, modu printzipal eta abstraktu batean agertuta, balio behar duen foru-organismoek gero jokabidea zehaztu dezaten, horrela, mugitzeko funtsezko askatasuna utziko zaielarik foru-organo hauei" (1/2008 Ebazpenaren 1.2 zuzenbide-oinarria eta 3/2012 Ebazpenaren boto partikularren 22. apartatua).

Arbitraje Batzordean 2/2008 Ebazpenak onartzen zuen euskal legegileak udalerriei ere aplikatzea Lurralde Historikoen Legearen 15.2 artikulua edukia, bakarrik foru-aldundiei buruz ari dena, irizpide homogeneoak finkatuz aurrekontu-prozeduraren arloan, euskal sektore publiko osoaren informazio kontsolidatua lortze aldera. 2/2008 Ebazpenean, aurrekontu-arabidearen arloan indarrean diren legegildapenen testu bategina aldatzeko lege-proiektuaz ari dela, Arbitraje Batzordeak 2008ko 1. eta 3. arazoak, udal-legeari buruzko proiektuari buruzkoak, ebatzi zituen ebazpenaren zuzenbideko 4. oinarria baliatu zuen:

«4.- Aldeek zalantzan ipini duten alderdi xedatzailearekin hasita, eta udal-legeari buruzko proiektuaren 53. artikulua erekin, zeina Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik inpugnatu duen. Artikulu horrek, 1. apartatuan, zehazten du "foru-organismoek ematen dituzten arauetan aurreikusitako moduan", udalerriek erakunde komunek erabiltzen dituzten irizpideekiko irizpide homogeneoak aplikatuko dituztela aurrekontu-prozeduraren arlo zabalean, "horrela, informazioa emateari dagokionez, euskal sektore publiko osoa sendotu dadin". 2. apartatuan, euskal ogasun guztien erabat artikulatzeaz ari da, udalerrien aurrekontu-egonkortasuna lortzeko. Hartarako, aintzat hartuko dira Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan hartuko diren erabakietatik eratorritako konpromisoak.

Zaila da udalerriei ukatzea foru-aldundiei onetsi zaiena, batez ere arlo horretan arautzeko foru-ahalmena onartu denean. Jakina, betiere helburua izanik euskal erakunde guztiek partekatuko duten helburu informatibo komun bat ezartzea, euskal

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

sektore publiko osoa sendotu dadin. Udalen lege-proiektuan arautzen da, modu printzipalean, zehaztasun handitan sartu gabe, eta, beraz, foru-organoei jokatzeko erabateko askatasuna emanda eta gai hori modu orokorrean araututa.

Azken buruan, interes orokorrari buruzko izaera finalistak justifikatzen du irizpide homogeenak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko irizpideak ezartzea, foru-eskumenetan immisioa egin gabe.

5.- Erakunde komunek foru-ogasunen arloan duten eskumenaren beste adibide bat ondorioztatzen da Ekonomia Ituna onartzen duen Legearen 48.5 artikulutik, non ezartzen baita "Toki-erakundearen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie(la)". Antzera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 6. zenbakiak, jada aipatu dugunak, nahiz eta Euskadiko lurralde historikoei araubide berezia onartzen dien udal-arloko araubide ekonomiko-finantzarioaz, Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera, araubide berezi hura onartzen die "Autonomia Erkidegoak arlo horretan izan litzakeen eskumenen kontra jo gabe". Ardura hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren 1. zenbakian ere errepikatzen da.

Arbitraje Batzordeak 1/2008 Ebazpenean adierazi bezala, ulertu behar da bai erakunde komunek bai foru-erakundeek dituztela finantza-tutoretzako eskumenak. Erakunde-maila bakoitzak bere eskumenak bete beharko ditu dagozkion tituluen arabera.

6.- Tokiko finantzaketaren lurraldez gaineko interesaren adibide bat dugu Eusko Legebiltzarraren 2/2007 Legean, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldirian aplikatuko den metodologiari buruzkoan, non zehazten baita "toki-erakundeek itundu nahi dituzten urtebetetik gorako kreditu-eragiketak lurralde historikoenekin eta Autonomia Erkidegoaren zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan" (2.2 xedapen gehigarria).

Halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 115.3 artikulua ezartzen du: "toki-erakundeek eta beraien organismo autonomo, erakunde, sozietate eta fundazioek Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunek erabiltzen dituzten irizpideekiko irizpide homogeenak aplikatuko dituzte aurrekontu-prozeduraren eta kontabilitate publikoaren arloan, horrela, ondorio informatiboetarako, euskal sektore publiko osoaren kontsolidazioa lortze aldera".

Bai foru-erakundeek eta bai erakunde komunek tokiko ogasunari buruzko eskumena dutela ikusita, adierazi behar da, Konstituzio Auzitegiak azaldu bezala, funtsezkoa dela kontsentsu-mekanismoak bilatzea. Garrantzitsuagoa da foru-erakundeek eskumen-arazoan errebindikatzen duten itun edo adostasuna. Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 epaiak (9. zuzenbide-oinarria) foru-araubidearen nukleoaren

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

osagaitzat jotzen du adostu edo itundutako elementu hori, baita araubide horren berme instituzionalaren gutxienezko edukiaren zatitza ere, "hura desagertzeak suposatuko bailuke funtsezko faktore bat desagertzea foraltasunaren irautea onartu ahal izateko".

LAUGARRENA.- LEGE PROPOSAMENAREN BIGARREN KAPITULUAN AIPATZEN DEN GOBERNUARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO ESKUMEN ESPARRURA HURBILTZEARI BURUZ.

Auzi orokorraren abiapuntua da pentsatzea ezen egitura politiko deszentralizatua duten botere-sistemetan, Euskal Autonomia Erkidegoko antolakuntza kasu, beharrezkoa dela gobernuarteko kooperazio-formak eta -mekanismoak bilatu behar direla.

Horretan bat datoz alde guztiak: beharrezkoa ez ezik, juridikoki ezarritako betebeharrak bada. Horrela ondorioztatu behar da jurisprudentzia konstituzionaletik (esaterako, Konstituzio Auzitegiaren 18/1982 epaia, martxoaren 4koa, lankidetzako printzipioa jotzen duena Estatuko lurralde antolaketan deszentralizatuak berezkoa duen esentziazat; edo Konstituzio Auzitegiaren 132/1998 epaia, ekainaren 18koa, besteak beste); Euskal Herriaren Autonomia Estatututik; (administrazioen arteko harremanetarako) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legetik; edo Lurralde Historikoen 27/1983 Legetik beretik, zeinak lankidetzak eta elkartasuna ezartzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta foru-organoen arteko harremanetarako jardunbide gisa (2.1 artikulua) eta eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioetan oinarritzen baitu administrazio publikoek beren eskumenak betetzea (2.2 artikulua).

Halaber, badirudi alde guztiek onartzen dutela Eusko Legebiltzarrari dagokiola kooperazio-mekanismo horiek ezartzeko ahalmena edo eskumena.

Horrela ulertu behar da Eusko Legebiltzarraren lege ugaritan jasotzen baitira koordinazio edo lankidetzako mekanismoak eta organoak edo printzipio homonimoak. Besteak beste, arestian aipatu dugun Lurralde Historikoen Legea (17. artikuluan; edo Finantzen Euskal Kontseilua aurreikusten duenean); 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Legeari buruz (adibidez, 53. artikulua); 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa, Ekarpenen Legea deritzona (hirugarren xedapen gehigarria), edo 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa, zergabideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunekoak). Ikusi, halaber, lurralde historikoetako erakundeen arteko elkarrekiko koordinazio, armonizazio fiskal eta kolaborazioaren arloan Eusko Legebiltzarrak duen ahalmen arautzaileari buruz, Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 2.4 artikulua.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Desadostasunak agertzen dira zehaztu behar denean zein den lankidetzako mekanismoak arautzeko edo jasotzeko eskumenaren irismena edo eduki materiala.

Hari buruzko desadostasunen terminoak behar bezala kokatzeko, egokia da esatea, aldez aurretik, zelan erabiltzen diren lankidetzak, koordinazio edo kolaborazio bezalako terminoak.

Nahiz eta modu ezberdinean ulertzen diren familia semantiko berekoak diren adierazpenok –erakundeen eta administrazioen arteko harremanei dagokienez–, ohartaraz daiteke, halaber, dikotomia bat dagoela hitzon erabileran, eta dikotomia hori datzala jakitean ea jarduera boluntario eta onartua suposatzen duten edo, bestela, jarduera hura nahitaezkoa eta inposatutakoa den.

Horrela, esaterako, askotan adierazten da, jurisprudenzia konstituzionalak egiten duen bezala, lankidetzak boluntarioa dela eta koordinazioa, aldiz, inposatutakoa dela. Horrela, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 27ko 118/1996 epaiak esaten du, adibidez: "eskumen eskusiboen kasuetan, eta, horrenbestez, eskumen-arlo berean eskluinteak diren kasuan, eskumen estatal eta autonomikoak paralelismo-plano batean kokatzen dira eta lankidetzak da teknika egokia, zein boluntaritatean datzan, koordinazioaren ordez, zeinek nolabaiteko zuzentze-boterea duen, nolabaiteko nagusitasuna baitu koordinatzaileak koordinatuaren gainean" (66. zuzenbide-oinarria). Aipa daitezke Konstituzio Auzitegiaren beste epai batzuk, non adierazten den koordinazioak dakarrela erakunde batzuk nagusi izatea beste batzuei buruz, hala nola 32/1983, apirilaren 28koa; 80/1985, uztailaren 4koa; 27/1987, otsailaren 27koa, edo 214/1989, abenduaren 21ekoa. Konstituzio Auzitegiaren 32/1983 epai aipatuak ezarri zuenaren arabera, koordinatzeko boterearen eduki orokorra hau da: "Estatuko eta erkidegoetako agintarien elkarrekiko informazioa, homogeneotasun teknikoa zenbait arlotan eta baterako ekintza posible egingo duten harremanetarako bideak eta sistemak ezartzea".

ldo horretan, ohikoa da bi koordinazio mota aipatzea (horrela egiten dute, esaterako 1/2015 eskumen-arazoaren idazkiak edo Eusko Jaurlaritzaren alegazioenak). Alde batetik, koordinazio boluntarioa, lankidetzak edo kolaboraziokoa, edo elkarrekin adostua. Eta beste alde batetik, koordinazio inposatua, nahitaezkoa edo zentzu hertsikoa. Bien arteko lehen ezberdintasuna da ea koordinazio-mekanismoak arautzen dituenak inposa ditzakeen ala ez koordinatuek errespetatu beharko dituzten neurriak edo mekanismoak. Baliatu ohi den beste ezberdintasun esanguratsu baten arabera (hori baliatzen du, esaterako, 1/2015 eskumen-arazoak), nahitaezko koordinazioan, boluntarioan ez bezala, bada, aldez aurretik onartua, koordinatu egiten diren gobernu-mailen gaineko koordinazio-titulu espezifiko bat, lankidetzaren beharrak eta betebeharrak orokorrak ezin baitezakete jokatuta eskumenak esleitzeko bide gisa.

Beraz, oinarri horretatik abiatuta, badirudi bat datozela (gutxienez barne-antolaketari buruzko lege-proposamena, eskumen-arazoak eta alegazioak, Eusko Jaurlaritzarenak barne) esatean ezen Eusko Legebiltzarrak lankidetzako

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

mekanismoak ezartzeko duen eskumena dela lankidetzaren boluntarioko edo elkarrekin adostutako lankidetzako mekanismoak arautzekoa, eta ez koordinazio inposatu edo nahitaezkorako organo gisa arautzekoa.

Hala ere, desadostasun argia dago balioetsi behar denean ea barne-antolaketari buruzko lege-proposamenen jasotzen dena (14. artikulutik 18ra) lankidetzaren mota bati ala besteari buruz den. Eskumen-arazoek eta EJK haiei aurkezturiko alegazioek ulertzen dute lege-proposamenak, neurri ezberdinean bada ere, koordinazio inposatua jasotzen duela, eta ez daukala hartarako titulurik edo habilitaziorik. Euskal Sozialistak legebiltzar-taldearen alegazio-idazkian, bestalde, azpimarratzen da proposameneko "lankidetzaren edo kolaborazio-organok": "sekula ez direla izango administrazio batzuk beste batzuen menpe jartzeko organok". Elkarteko organok dira, non administrazioen ordezkariak lankidetzaren eginbeharrak lotzen dituen; baina, elkarteko organok baitira, adosteko organok dira. Ez da aurreikusten, inoiz ez, administrazio baten borondatearen aurkako erabaki lotesleak hartu ahal izatea (...). Inpugnatu den proposamenak, beti, gobernuaren arteko topaketa eta kolaboraziorako organotzat jotzen ditu gobernuaren arteko lankidetzaren organok, eta inoiz ez erabakiak nahitaez, bakoitzaren eskumenak betetzeko lana baldintzatuz, inposatu ditzaketen organotzat.

Badirudi, beraz, konpondu behar den arazoa ez dela ea Eusko Legebiltzarrak gobernuaren arteko lankidetzarako mekanismoak edo formak arautu ditzakeen ala ez. Ulertzen da baietza, lankidetzarako mekanismoak edo formak arautu ditzakeela, lankidetzaren boluntario edo itundua bada. Ez dator Estatutuarekin bat, aldiz, koordinatuei inposaketa edo nahitaezko jarduerak eragiten dietenak, Estatutuan ez baitago hori posible egingo lukeen habilitaziorik. Koordinazio (edo lankidetzaren) inposatu edo nahitaezkorako ahalmenek muga garrantzitsuak dituzte, besteak beste, hain zuzen ere, ahalmen horiek ustezkoak ez izatea, baizik eta goragoko erakunde batek berariazko lege-xedapen baten emanak (esaterako, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko harremanetan, Konstituzioaren 149.1.13, 15 eta 16 artikulua, edo, autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundearen arteko harremanetan, 149.1.22 artikulua). Halaber: koordinazioak (koordinatzailearen nolabaiteko nagusitasuna eta koordinatzen den erakundearen eskumen-jardueraren nolabaiteko mugatzea eragiten dituenak) ez du suposatzen erakunde koordinatuaren eskumenen ablazioa, eskumen horiek oso-osorik gordetzen baititu; koordinazioa ez da hierarkia, eta beraz, erakunde nagusiak ezin du, besterik gabe, mendeko erakundearen borondatea ordezkatu, haren erabakitze ahalmena bereganatuta (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 106/1987, ekainaren 25koa; 227/1988, azaroaren 29koa, edo 103/1989, ekainaren 8koa); koordinazio-ahalmenak erabiltzeak errespetatu behar ditu, beti, ahalmen horietara lotuta dauden administrazioek libre erabakitze ahalmena aukera bat edo haientzako nolabaiteko aukerabide bat (Konstituzio Auzitegiaren 27/1987 epaia, otsailaren 27koa); edo koordinazio-ahalmenak erabiltzea ahalmen horien helburuak mugatzen duela, hots: administrazioen jardueren koherentzia bilatzeko helburuak, non beharrezko proportzionaltasunaz jardun behar den helburua lortze aldera.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Onartzen badugu Eusko Legebiltzarrak baduela lankidetzaren boluntario edo elkarrekin adosturiko lankidetzarako mekanismoak arautzeko eskumenik, orain arte egin duen bezala, funtsezko auzia da zehaztea nola eta noraino eraman dezakeen arautze hori, edo bestela nahi bada, zehaztea zein den lankidetzaren organoen jardura hori, lurralde historikoen eskumen-esparruan.

Horri dagokionez, interesgarria da Euskal Sozialistak taldearen alegazio-idazkian bertan emandako ideia batzuetatik abiatzea, onartzen baitu (hamahirugarren puntua), modu zuzenean gure ustez:

- Lankidetzaren organoak sortzeak eskatzen du erakunde instituzional bakoitzak badituela eskumen horiek eta haien erabateko titulartasunari eustea, ezin bestela izan.

- Erkidegoko Legebiltzarrak gobernuen arteko organoak sortu eta arautzeko duen ahalmena Autonomia Estatutuaren 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera jasotzen da, "lurralde historikoei dagozkien eskumenek mugatuta, 37. artikuluari jarraituz".

Harekin lotuta, gogoratu behar da ezin direla gobernuen arteko lankidetzaren organoak eratu "erabakiak nahitaez, bakoitzaren eskumenak betetzeko lana baldintzatuz, inposatu ditzaketen organo" gisa. Hori horrela, ondoriozta dezakegu 2. kapituluko erregulazioa ez dela Estatutuaren kontrakoa izango, erregulazio horrek ez badakar koordinazio-jardura inposatu edo nahitaezkorik eta Autonomia Estatutuaren 37. artikuluen arabera lurralde historikoei dagozkien eskumenen titulartasunari eragiten ez badie edo eskumenak betetzea baldintzatzen ez badu. Eta hori guztiori, eskumen propio batetik egiten ari dela aurreuposatuz. Auziari ikuspegi zehatzago batetik heltzen badiogu, ikus dezakegu bai eskumen-arazoek idazkiek, eta bai Eusko Jaurlaritzaren alegazioek ere, adierazten dutela 2. kapituluko aurreikuspen batzuek Estatutua urratzen dutela, uler baitaiteke, erakunde komunekiko koordinazio- eta kolaborazio-mekanismoak edo organoak ezartzean, erakunde horiek jarduteko habilitatuta daudela –helburu horretarako– baita lurralde historikoei eskumen eskusiboa duten eskumenetan ere. Hori gertatuko litzateke –eskumen-arazoek arabera–, eskumen hauen inguruan: lurralde historikoen antolakuntza, araubide eta funtzionamendua (jatorrizko lege-proposamenaren 2, 14 eta 17, edo 18. artikuluek); zergak arautzeko ahalmenak (14, 16 eta 17. artikuluek), Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 41.2.b artikulua ezartzen duenaren aurka, argi eta garbi adierazten den Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko Planean; edo aurrekontuak (jatorrizko lege-proposamenaren 16. artikulua), Autonomia Estatutuaren 37.3.b artikuluen aurka.

Horri gagozkiola, eta esandakoan oinarrituta, adierazi beharko genuke –lehenengoz eta behin– 2. kapituluko zenbait xedapen ez zaizkiola behar bezala egokitzen Autonomia Estatutuari, arrazoi hauengatik:

- 1.- Lankidetzari buruzko xedapenak, Autonomia Estatutuan ezarritakoari egokitu gabe lurralde historikoen eskumen-jarduerari eragiten diotenak.

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Behin eta berriz aipatzen da (jatorrizko lege-proposamenaren 14.3, 16.1 edo 17.3 artikuluetan) bermatu behar dela, batzar nagusiek zerga-gaietan duten araubiderako ahalmenak gauzatzean koordinazioa eta kolaborazioaren bidez, "zergen funtsezko elementuen erregulazio harmonizatua betetzeko obligazioa" (zeina, Ekonomia Itunaren arabera, araudi autonomoa den), baina helburu hori baliagarria izango da, baldin eta, adierazi den bezala, koordinazio boluntario edo elkarrekin adosturiko koordinazio baten bidez artikulatzen bada, eta baldintzatzen ez baditu lurralde historikoek arlo horretan dituzten eskumenen titulartasuna eta erabilera.

Interesgarria da gogora ekartzea Arbitraje Batzordearen 2011ko maiatzaren 13ko 1/2011 Ebazpena (Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea, zuzenbideko 9. oinarria), non, ikusita Autonomia Erkidegoko erakunde komunek ez dutela, Ekonomia Itunaren erregimenean, koordinazio, lankidetzeta eta armonizazioa beste eskumenik, hau ezartzen den: "arlotu honetako koordinazioaren funtzioa da – aztergai dugun arloan– beste erakunde batzuen eskumen oso-osoa diren eskumenen gauzatzea koordinatzea. Eta haren helburua da "hiru lurralde historikoen zerga-sistemen homogeneotasun estruktural eta teknikoa lortzea, Euskal Autonomia Erkidego osoan, zergen erregulazioan egon litezkeen ezberdintasunak gorabehera, zerga-sistema koherente eta homogeneo bat lortze aldera, non alde guztiek haien artean komunikatu eta erlazionatzea izango duten. Horregatik, Konstituzio Auzitegiak ezarritako moduan ulertu behar da, hau da: modu orokorrean, "harremanetarako bitartekoak eta sistemak jartzea erakundeek, beraien eskumenak gauzatzean, elkarren berri izan dezaten eta zenbait gaitan homogeneotasun teknikoak eta batera jardun dezaten", sistema osoaren integrazioa ahalbidetze aldera (ikusitako Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 28ko 32/1983 epaia, 2. zuzenbide-oinarria). Nolanahi ere, koordinazio- eta armonizazio-ahalmen horiek ezin dezakete erregulazio uniforme bat ezarri, bai hura ezartzeko eskumenik ez dagoelako, bai lurralde historikoek zergak arautzeko duten eskumena edukirik gabe uztea ekarriko lukeelako.

Gainera, jatorrizko lege-proposamenaren 17.3 artikulua ez dator bat Autonomia Estatutuarekin (41.2.a artikulua), aurreikusten baitu foru-aldundi bakoitzeko foru-ogasunaren arduradunek lankidetzan jardutea "zergen funtsezko elementuen erregulazio harmonizatua bermatzeko", nahiz eta zerga-arau foralak onartzea batzar nagusiei dagokien.

2.- Eskumen propiorik ez izatea koordinatzen den arlo material eta/edo funtzionalean.

Gobernuen arteko lankidetzeta-organoak edo -mekanismoak arautzeak aurrez onartzen du (nahiz eta lankidetzeta boluntario edo elkarrekin adosturiko lankidetzeko mekanismoak izan) kooperazio-harreman horretan parte hartzen duten erakunde instituzional guztiak haien eskumenen titularrak direla (ahaztu barik beharrezkoa izango litzatekeela, lankidetzeta inposatua balitz, inposizio hori habilitatuko lukeen berriazko titulu bat). Premisa hori ontzat hartuta, ulertu behar da Eusko Legebiltzarrak EAEn koordinazio, armonizazio eta lankidetzarako arauak eman ahal izatea zerga-araubidea erregulatze aldera (Autonomia Estatutuaren 41.2 artikulua), baina ez dirudi, aldiz, hartarako eskumenik duenik foru-aldundiek Autonomia

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

Estatutuko 41.2.b artikuluko eskumenak gauzatzeari dagokionez (zergak ordainaraztea, kudeatzea, kitatzea, biltzea eta ikuskatzea), eta hori egiten du 14.4, 16.3 eta 17.4 artikuluetan. Zentzu horretan, adieraz daiteke 16.12 artikulua bat datorrela Estatutuak egiten duen banaketarekin, baldin eta harekin ulertzen ez bada Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari esleitzen zaiola lurralde historikoen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak egiteko ahalmena, horrek lurralde historikoek aurrekontuen arloan duten eskumen eskusiboari eragitea ekarriko bailuke (Autonomia Estatutuaren 37.3.b artikulua).

Bestalde, jatorrizko lege-proposamenaren 18. artikulua –erakundeen arteko harremani dagokionez– nahitaezko lankidetzaharreman bat artikulatzen du, non aurreikusten baitu kontrol instituzional hierarkiko bat lege-proposamenak lurralde historikoei esleitzen dizkien gai ugari erregelamendu bidez garatzeko edo betetzeko eskumenen gainean. Ohartarazi behar dugu hori guztiori bateragarria izango dela Autonomia Estatutuarekin baldin eta foraltasunaren espantsio-eremuari lotuta eta mugatuta ulertzen bada.

BOSGARRENA.- LEGE PROPOSAMENAREN AGINDUEN AURKA EGIN DIREN INPUGNAZIO BAKOITZAREN AZTERKETA ZEHATZA

Jatorrizko lege-proposamenaren 1. artikulutik 5.era, biak barne, egindako inpugnazioen azterketa

1.1 1.1 artikulua ezartzen du jatorrizko lege-proposamenaren xedea dela Euskal Autonomia Erkidegoko barne-antolaketa instituzionala arautzea, Autonomia Estatutuan ezarritakoa lantzeko.

Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua EAEren eskumen eskusibotzat jotzen ditu bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta jarduera, eta 37.3.a artikulua lurralde historikoetako foru-organoei ematen die, haien lurraldearen barruan, haien erakunde propioen antolaketa, araubide eta jardueraren gaineko eskumen eskusiboa. Horregatik, bada, indarrean dagoen Lurralde Historikoen Legeak, 1.1 artikuluan, bere xedea finkatzean, azpimarratzen du Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoen foru-organoen eskumenen banaketa.

"Antolaketa instituzionala" terminoa nahasia izan daiteke, ulertuko balitz hark Autonomia Erkidegoan dauden erakunde guztiak biltzen dituela, eta hori are nabarmenagoa da aztergai dugun artikulua 2. paragrafoan, egitura instituzional hori deskribatzen baitu Autonomia Erkidegoko erakunde komunek, lurralde historikoetako foru-organoei eta udalerriek osatua. Testu horretatik ondoriozta liteke erakunde horien guztien antolaketa arautu nahi dela.

Hala ere, artikulua berak adierazten baitu Estatutuan ezarritakoa lantzeko egiten dela, ulertu behar da haren helburua dela gure oinarritzko arau instituzionalera egokitzea. Beraz, azken horren arabera interpretatu beharko genuke. Irizpide bera

EBAZPEN BATZORDEA

COMISIÓN ARBITRAL

erabili beharko genuke 2. artikulua ere Estatutuaren eskumen-ordenara egokitzen dela ulertzean.

1.2 Nahiz eta 3. artikuluan erakundeen artean Arbitraje Batzordea ez aipatu, ez da Estatutuaren kontrakorik ikusten.

1.3 4.1. artikulua arabera, batzar nagusiak eta foru-aldundia dira lurralde historikoen foru-organoak, indarrean dagoen Lurralde Historikoen Legearen 1.2 artikulua antzeko erredakzio batekin. Gainera, gehitzen du foru-aldundia "osatuko da ahaldun nagusiarekin, haren buru izango baita, eta foru-diputatuekin".

Arestian esan bezala, Autonomia Estatutuaren 37.3.a artikulua arabera, lurralde historikoen eskumen eskusiboa da, beren foru-arauen bidez, beren erakunde propioen antolaketa, araubidea eta jarduera. Hori horrela, Estatutuak ezarritako eskumen-ordena urratzen da gehitze horrekin.

4.2 artikuluari dagokionez, Arbitraje Batzordeak ulertzen du ezen ez aipatzeak Autonomia Estatutuaren 3. artikulua lurralde historikoei onartzen dien eskumena, autogobernuko haien antolakuntza eta erakundeak gordetzekoak, ez duela esan nahi harekin ados ez dagoenik, batez ere kontuan hartzen bada artikulua horretan aipatzen den gauza bakarra dela lurralde historiko bakoitza bere erregimen pribatiboaren arabera gobernatuko dela.

4.3 artikulua Autonomia Estatutuaren 3, 24.2, 25.1, 37.2 eta 37.3 artikulua urratzen ditu, foraltasunaren nukleo ukiezinari eta hark berezkoa duen berme instituzionalari eragiten baitie, antolatzeko eskumenari buruz, eskumen hura, aipatu artikuluetan, lurralde historikoei aitortzen zaie-eta modu eskusiboan, eta botere autonomiko edo estatalek ezin urratu dezakete.

